Eraikitako ondarearen ingurutzailer termikoak, karga-hormak hain zuzen ere, material desberdinez proportzio ezberdinetan osatuta daude. Hori dela eta, elementu hauetan sortzen diren galerak bero transmisioaren ondorioz kalkulatzeko zaildu egiten du. Alde batetik hormak osatzen duten materialen oinarritzko ezaugarri termikoak ez direlako ezagutzen. Beste aldetik horma hauetan sortzen diren bero galeren handitzea, bi eta hiru dimentsioko zubi-termikoen ondorioz, kalkulatzeko metodologia bereziak behar direlako. Hortaz, ingurutzailer termiko mota hauen karakterizazio termikoak garatu ahal izateko beharra handia dago.

Ingurutzailer termikotik sortutako nahi gabeko aire sarrerak edo ihesak, infiltrazioak eta exfiltrazioak deritze. Hauek eraikuntan sortzen diren %20 eta %50 arteko bero galeren arduradunak dira [3]. Eraikin bakoitzean sortutako aire transmisioa ingurutzaileraren ihes-arearen eta klima baldintzen (stack efektua eta haizea) arabera da. Zenbat eta handiagoa izan ihes-area orduan eta bero galerak handiagoak izango dira. Beraz, aire ihesak saihestu nahi izatekotan, ihes-area murriztea helburu bihurtzen da. Diseinu fasean, ezin da zehazki jakin zenbat izango den ihes-arearen kopurua, hala ere badaude parametro hau estimatu ahal izateko metodoak, 2.1.Taula. Beste aldetik, eraikuntza fasean prozedura zehatzak erabil daitezke gertatzen diren aire ihes errealak kalkulatzeko. Metodo hedatuena, haizagailu-atea bezala ezagututa [4,5], eraikinaren ingurutzailer zeharkatzen den airearen fluxua neurtzea ahalbidetzen du.

2. 1. Taula- Eraikinaren diseinu fasean kontuan hartzeko aire ihes-area hermetikotasun mailaren arabera.

Eraikinaren hermetikotasun maila	Deskribapena	Ihes-area (cm ² /m ²)
Hermetikoa	Hermetikotasun aditu batengatik gainbegiratutako eraikuntza	0.7
Ona	Eraikitzaile aditu batez kontu handiz zigitatutako eraikuntza bat.	1.4
Ertaina	Egungo ekoizpen etxe tipikoak.	2.8
Iragazkorra	1970eko aurreko etxe tipikoak	5.6
Oso iragazkorra	Etxe zaharrak jatorrizko egoeran	10.4

Eraikin mota hauen hormen konposizioa oso aldakorra izan daiteke. Hori dela eta, transmisioz sortutako bero galerak ere oso desberdinak izan daitezke. Gainera, ikusi den bezala ingurutzailer termikoa aire estankotasunean, beraz sortutako galera termikoetan, duen garrantzia handia da. Eraikitako ondarearen ingurutzaileraren ezaugarri termikoei buruzko informazio gabezia falta dela eta, arlo honetan ikerketa gehiago burutzea ezinbestekoan bihurtu da.

2.2. Helmena eta helburuak

Kapitulu honen helburu nagusia eraikitako ondarearen benetako egoera termikoa zehaztea da. Horretarako inguratzaile termikoen azterketa esperimentalen bidez eraikinen portaera termikoan eragin nabarmena duten parametroen azterketa burutuko da. Helburua kontuan izanda eta azterketa esperimentalak gauzatu ahal izateko analisia azterketa eremu batean mugatzea beharrezkoa da.

Hortaz, kapitulu honek hurrengo helburuak ezartzen ditu:

- 2.1. **Helburua** Azterketa eremua hautatzea eraikitako ondare tipologiaren ezaugarri nabarmenak kontuan izanda.
- 2.2. **Helburua** Eraikitako ondarearen aire estankotasunarekiko portaeraren zehaztapena.
- 2.3. **Helburua** Eraikin tipologia honetako hormak osatzen duten material nagusien ezaugarri termikoen zehaztapena.
- 2.4. **Helburua** Aztertutako inguratzaile termikoen portaera termikoa zehazteko modelo bat garatu izan ditzaketen geometria eta ezaugarri termikoen aldakuntzak kontuan izanda.

2.3. Metodologia

2.3.1. Kapituluaren egitura

Kapitulu honen sarrera eta helburuak aurkeztu ondoren, ikerketa osoan zehar burututako metodologia azalduko da, 2.1.irudia. Lehenik eta behin, azterketa eremuaren ezaugarri arkitektoniko nagusienak aurkeztuko dira eraikitako ondarearen tipologia deskribatzeko. Ondoren, eraikin mota honen portaera termikoan efektu gehien duten parametroak ikuspegi zabal batetik aztertuko dira. Alderdi nagusienak detektatu ahal izan eta gero bere azterketa sakonarekin jarraituko da.

Horretarako lehenik eta behin saiakuntza esperimentalen bitartez parametro hauen karakterizazioa burutuko da. Ezaugarrien determinazioan oinarrituta eta simulazioan egindako azterketaren bitartez, inguratzaile termikoen bero transmisioarekiko portaera analisia garatuko da. Ebaluazio honek eredu bat garatzeko aukera eskaini behar du eraikin mota hauen inguratzaile termikoen portaera karakterizatzeko eta kasu honetan aurki daitezkeen aldakuntza geometrikoak eta termikoak kontuan izanda.

Azterketa esperimentalei dagokionez alde batetik azterketa eremuaren eraikin kasuetan bertan egin dira. Gainerako analisiak, saiakuntzaren metodologiagatik, Gasteizko Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laborategiko (EKKL) Termika Atalean eta Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako (Donostia) laborategietan burutu dira.

Azkenik, kapitulu osoaren ondorioekin jarraituko da. Kapitulu honen egitura berezia dela eta ondorio nagusienak aurkeztuko dira atal honetan ondorio zehatzak azterketen atalean soilik aurkeztu ahal izateko.



2. 1. Irudia- Kapitulu egituraren deskribapen grafikoa

2.3.2. Azterketa-eremuaren definizioa

Ikerketa burutu ahal izateko eta zati esperimentala duenez kontuan izanda beharrezkoa da azterketa eremu bat ezartzea. Honek eraikitako ondarearen ezaugarri nagusiak eduki behar ditu lortutako ondorioak estrapolatu ahal izateko. Horren ondorioz eraikitako ondarearen eraikin moten ezaugarri nagusiak identifikatzea beharrezkoa bihurtzen da aztertutako eremuak bete ditzan:

- Eraikitako tipologia ahalik eta adierazgarria izatea.
- Horma nagusiak harriez osatuta izatea.
- Horma nagusiak karga-hormak izatea.
- Egurrezko habeez osatutako barne egitura.
- Eraikitako ondare araugatik babesturiko eraikin mota izatea.

Bete beharreko baldintzak kontuan izanda Donostiako XIX. mendeko zabalgunea adibide bezala kontuan hartu daiteke.

Azterketa eremuaren jatorriak 1864an Donostia hiriko harresien eraistearekin, aurreko urtean Gerra Plaza kondizio galeraren ondorioz, bat datoz. Harresien eraispeneren ostean, hiriaren hedapena harresien kanpoaldetik gero eta egingarri ikusten zen.

Hori dela eta, 1862an hirigintzako lehiaketa bat antolatu zen. Lehiaketa honen irabazlea Antonio Cortázar, "Porvenir" deituriko proiektuarekin izan zen. Jatorrizko proiektuaren aldaketa batzuen, lursailen salmenten eta 1865eko eraikuntza ordenamendu berrien onarpenaren ondoren, hiri proiektuaren lehenengo lursailak eraikitzen hasi zen.

Zabalgunearen garapena hiru fasetan egin zen, 2.2.Irudia. Lehenengo hamar urteetan lehenengo fasea garatu zen Bulebarretik Askatasunaren Hiribidera. Bigarren fasearen garapena, 1875-1890, gerra karlistaren ondorioz, modu motelagoan garatu zen. Fase honetan lehenengo faseko lursailetan eraiki arren, batez ere askatasunaren hiribidetik San Martineko Kalera arte izan ziren eraikitzeko erabili lursail nagusiak. Azkeneko fasea, garrantzitsuena izanik eraikin kopuruagatik, 1890 eta 1915 artean izan zen eta San Martin Kalea eta Easo aldera arte okupatu zuen garapena.



2. 2. Irudia- Aztertutako eremuaren eraikinen sailkapena urteko eraikuntzaren arabera [6].

Hirigintza proiektu honen protagonistak etxe-uharte itxiak izkina alakatuekin dira. Etxe-uharte tipoa bere dimentsioen arabera sailkatzen da. Alde batetik, handienak, lehenengo eta azkeneko garapen faseetan eman ziren eta bere neurriak 86x56 edo 82x67 metrokoak ziren. Beste aldetik, txikienak 56x62 metrokoak ziren. Altuerari dagokionez, kalearen orden-mailaren arabera dira. Lehenengo mailako kaleak, 15 metro zabalera baino gehiago dutenak, 20 metro altuera maximoa dute. Bigarren mailako kaleak, 9 eta 15 metro arteko zabalera, 18 metro altuera maximoa eraikinetan dute. Eraikinen tipologiari dagokionez hiru taldetan sailkatu daitezke: mehelin arteko eraikinak, izkinako eraikinak eta banakako eraikinak.

Lehenengo taldea zabalduna da eta orubearen dimentsio ohikoenak 9 eta 10.5 metro arteko zabalera, non normalean 3 leihorako hutsune banatzen dira, eta 20



metro sakonera. Batzuetan 14 metro zabalerako kasuak ikus daitezke eta normalean 4 leiho hutsune izaten dute. Fatxadaren tipologia askotarikoa da, 2. 3. Irudia, normalean hareharrizko harlandukoak izaten dira, beste batzuetan soilagoak dira margotutako emokadura batekin ematen zaielako akabera. Kasu berezietan akabera zeramikoak ere ikus daitezke.



2. 3. Irudia- Aztertutako eremuaren mehelin arteko eraikin adibideak.

Bigarren taldea, hau da izkinako eraikinak 2.4. Irudia, dimentsio handiagokoak dira, izan ere, jatorrian erosahalten handiko gizarterako zuzendu ziren. Horren ondorioz, barruko planta banaketa erabat ezberdina da, horma nagusiko gelak jabeentzako eta barruko gelak eta uharte-patioko gelak zerbitzurako. Dimentsioak aldatu daitezke baina 17.5x10.5 metro eta 20x20 metro arteko lursailak ziren. Fatxadari dagokionez, mehelin arteko eraikinak bezalako kasuetan aurki daitezken fatxadak dira.



2. 4. Irudia- Aztertutako eremuaren izkina eraikin adibideak.

Azkenik, banakako eraikinak eraikin tipologia aldakorrena irudikatzen du eraikin bereziak izaten direlako. Talde honetan banakako etxebizitzetik zuzkidura-eraikinetara aurki daitezke. Eraikin bereziak izatearen ondorioz, eraikin hauen

konposizioa arkitektonikoa oso garatua izaten dute. Eraikin bakoitza konposizio eredu bat jarraitu arren, orokorrean denak elementu bat dute komunean, hareharriaren nagusitasuna fatxadetan.

2.4. Inguratzaile termikoaren azterketa esperimental

Atal honek kapituluaren azterketa zatia garatzen du. Horretarako, airearekiko estankotasuna eta inguratzaile termikoen bero galeren erantzuna azterketa helburu bezala, saiakuntza esperimentaletan eta simulazioetan oinarritutako analisia burutu da.

Ondorioz, aztertutako parametro termiko bakoitzaren analisia garatzeko atala bi zatitan banatu da. Atal bakoitzak kapitulu bat jarraitzen duen egitura garatzen du bakoitzak metodologia propioa duelako. Azkenik, atal bakoitzean lortutako emaitzen eta ondorioen bitartez, kapitulu osoaren ondorio orokorrak lortu dira.

2.4.1. Airearekiko estankotasunaren karakterizazioa

2.4.1.1. Sarrera

Aireztapena eraikinetan Barneko Airearen Kalitatea (BAK) bermatzen duen mekanismoa da. Aldi berean, eraikinen energia-eraginkortasunean eragin kritikoa duen alderdi bat da. Geletan aire freskoa sartzeko beharra bero edo hozte-karga gehigarriak sortzen ditu eta erabiltzen den aireztapen motaren menpe daude. Gutxi gorabehera, aireztapenak eraikinen energia kontsumoaren %30-60koa irudikatzen du [7]. Hori dela eta, gatazka bat dago aireztapen-tasa murriztearen, berokuntza/hozte eskaria gutxitzeko, eta aireztapen-tasa handitzearen, BAK hobetzeko, artean.

Beste alde batetik, European eraikuntzaren energia-araudiak nabarmenki sendotu dira azken hamarkadan [8,9] eta inguratzaile termikoen isolamendu eskakizunak areagotu egin dira bero galerak murrizteko. Horren ondorioz, proportzionalki airearen truke-tasa eraikinen bero-galera energia-eskarian bere eraginak areagotu du. Tradizionalki gogoratu beharra dago eraikinen aire berriztatzearen ondorioz bero-galaretan nabarmen osoko ondorioa duten bi fenomeno desberdin daudela: aireztapena eta infiltrazioa. Hau da, aireztapena eraikinen BAK garantizatzeko ezaugarri beharrezkoa bada, infiltrazioak nahigabeko eta kontrolik gabeko efektua dira. Hori dela eta, infiltrazioek aire fresko gehigarria eskaintzen duten arren, ez dute bermatzen BAK egokia eta eraikinen berokuntza eta hozte-beharrak nabarmen handitu ditzakete.

Ikerketa berri batek eraikuntzen estankotasunaren garrantzia ohartzen du infiltrazioek eraikinen %20 eta %50 arteko energia-eskariaren eragina dutelako [3]. Lehendikako eraikinen kasuetan, aplikagarri diren birgaitze energetikoen neurri



handien artean, eskuarki airearekiko hermetikotasunaren hobekuntza burutzen da, batez ere beste posible esku-hartze bideragarriak ez direnen kasuetan, eraikin historikoetan bezala. Profesional askok hermetikotasun azterketa gauzatzen ari dute energia analisietan, eraikin mota hauetan eragin handia duela eta [10-12].

Hermetikotasunak eraikinetan eragin handia kontuan hartuta, fenomeno horren karakterizazioa hainbat ikuspuntutatik aztertu da. Ikuspegi kualitatibo batetik, Dickerhoff [13] eta Harje eta Born [14] aire-ihesen iturriak aztertu zituzten. Iturri posible bakoitzaren eragina aztertu zuten eta kasuen hainbat eraikuntza-osagai eta instalazio mota kontuan hartuta. Elementu bakoitzaren tarreak eta batez besteko balioak honako moduan ikusi zituzten:

- Hormak: %18-50; %35.
- Sabaien xehetasunak: %3-30; %18.
- Aire behartutako berokuntza eta/edo hozte sistemak: %3-28; %18.
- Ateak eta leihoak: %6-22; %15.
- Tximinia: %0-30; %12.
- Irekiguneak espazio girotutan: %2-12; %5.
- Difusioa hormetan zehar: <%1

Metodo kuantitatiboek dagokienez, eraikinen estankotasunarekiko egoera, eraikuntza osoak edo barrunbe partzialen hermetikotasun azterketei bidez lortzen da. Gogoratu behar da eraikinaren aire-hermetikotasuna ezin dela eraikuntza sistema, eraikinaren adina edo ikuskapen bisual batekin soilik ondorioztatu. Hori dela eta Blower Door Testa (BDT) metodo oso erabilia bihurtu da aire infiltrazioak karakterizatzeko [4,5]. Ohiko hermetikotasun-adierazleak q_{50} eta n_{50} dira. Eraikinaren ingurutzaileraren aire-ihesa tasa eta airearen berritze-tasa adierazten dute hurrenez hurren, barneko eta kanpoaldeko 50 Pa arteko presio diferentziarekin. Presioaren diferentzia handi hau nahikoa da klima aldakorreko baldintzek emaitzetan eragina izan ez dezaten. Hala ere, balioa hau baldintza naturalek eragiten duten aire fluxu baino handiagoa da, normalean 4 eta 10 Pa bitarteko aldea sortzen delako [15]. Infiltrazioetan, hain zuzen ere, hainbat alderdiek eragiten dituzte, hala nola, eguraldiaren baldintzak, eraikuntza mota edo kokapena.

Konplexutasun hori dela-eta, teknika gehigarriak behar dira BDT bidez lortutako emaitzak ebaluatzeko eta egungo eraikinen infiltrazio-tasa erreala kalkulatzeko. 1970eko hamarkadaren amaieran eta 1980ko hamarkadaren hasieran, hainbat ikerketek BDTren emaitzen eta gas-trazatzaile metodoaren emaitzen arteko loturak aurkitu zituzten [4,16,17]. BDT emaitza hauetan oinarrituta, hainbat eredu enpiriko berriak garatu ziren eraikineko airearen infiltrazio-tasa kalkulatzeko, 2.2.Taula.

LBL-ak [18] eta Shermanek [19] garatutako ereduak hedatuenak dira. Lehenengoak (LBL) aire-ihes azalera baliokidea (ELA) 4 Pa-etan eta indar eragileek konbinatzen ditu, hala nola haizearen eragina eta stack-efektua. Prozesu honetan, stack (f_s) eta haizea (f_w) faktoreak tenperatura desberdintasunaren (ΔT) eta haize-abiaduraren (U) balioekin erabiltzen dira. Beste aldetik, Shermanek LBL eredu sinplifikatu zuen urrezko arau ospetsuaren garapenarekin, Kronval eta Persily-rekin egotzitakoa. Eredu honek eraikinaren altuera (cf_1), haize kontrako babes-maila (cf_2), eraikinaren aire-ihes mota (cf_3) eta batez besteko urteko infiltrazio-ihes ratioa (N_o) kontuan hartzen ditu.

2. 2. Taula- Blower Door Test saiakuntzan oinarritzen diren aire infiltrazio ereduak.

Eredua	Ekuazioa
LBL	$Q = \sqrt{Q_s^2 + Q_w^2} = \sqrt{(A_L \cdot f_s \cdot \sqrt{\Delta T})^2 + (A_L \cdot f_w \cdot U)^2}$
Kronval-Pesily	$ACH_{K-P} = \frac{ACH_{50}}{20}$
Sherman	$ACH = \frac{ACH_{50}}{N}; N = N_o \cdot cf_1 \cdot cf_2 \cdot cf_3$
Kronval	$ACH = C_L \cdot (0,026 \cdot \Delta T + 0,010 \cdot U^2)^n$ 1. Tenperaturaren eragina: $ACH = \left(\frac{0,32}{V}\right) \cdot C_L \cdot \Delta T^n$ 2. Haizearen eragina:
Shaw	$ACH_{shielded} = \left(\frac{0,76}{V}\right) \cdot C_L \cdot U^n$ $ACH_{exposed} = \left(\frac{0,42}{V}\right) \cdot C_L \cdot U^{2n}$ 3. Haize eta tenperatura konbinazioa: $ACH = \left(\frac{4,53}{V}\right) \cdot C_L$

BDTaren emaitzen garrantzia eta baliagarritasunarengatik gero eta ikerketa gehiago argitalatzen dira metodologia hau erabiliz. 2.3.Taulan gaur egun arte argitaratutako proben emaitzak erakusten dira, herrialde eta urtearen arabera. Batez besteko hermetikotasuna eta tarteak laburbiltzen ditu kasu bakoitzean, behaketen balore maximoen eta minimoen arteko aldea ezagutzeko. Emaitzen aldakuntza handia erakusten du ebaluatutako eraikinaren tipologiaren arabera. Hala eta guztiz ere, balore orokorrak oso altuak dira eraikinen energia eraginkortasun helburua lortzeko [20].

2.. 3. Taula- Eraikinen estankotasunari buruzko argitalpen berrien berrikuspena.

Herrialdeak	Argitaratu-tako urtea	Lagin zenbakia	\bar{n}_{50} (h^{-1}); \bar{q}_{50} (m^3h/m^2)	Min/Max \bar{q}_{50} (m^3h/m^2)	Min/Max n_{50} (h^{-1})
Espainia [21]	2014	13	6.26 ; 4.41	1.78/8.44	2.57/13.43
Espainia [22]	2013	120	3.40 ; -	-	-
Portugal [12]	2014	8	46.51 ; 219.93	70.28/702.73	15.28/144.62
Finland/Estonia / Suedia [11]*	2015	53	-;13.0/15.8/17.4	3.9/35.2	-
Italia [23]	2013	5	1.74 ; -	-	1.37/1.97
Italia [24]	2012	20	7.30 ; 8.73	2.1/62.7	3.2/23.3
Grezia [25]	2008	20	6.79 ; -	-	1.87/11.30
Irlanda [26]	2012	28	9.64 ; 9.11	5.12/14.42	5.39/14.90
Estonia [27]	2007	32	4.90 ; 4.2	0.9/17.9	0.7/13.6
Portugal [28]	2015	49	7.83 ; -	-	-
Lituania [29]	2014	27	4.73 ; 5.06	0.4/14.61	0.41/11.3

-Informazioa ez eskuragarria



Nabarmentzekoa da neguko denboraldi larriagoa duten herrialdeek errendimendu hermetiko hobea eskaintzen dutela. Hau iparraldeko herrialdeek duten galera termikoen efektu handiagoari eta energia-kontsumoari buruzko duten kezka sakonagoari izan daiteke. Klima beroagoetan, esaterako, hegoaldeko Europa herrialdetan, arauk infiltrazioak kontrolatu orde besterik lehenetsi dute, hala nola, isolamendu termikoak edo eguzkiaren babesa. Hala eta guztiz ere, Europako politika energetiko aldaketek [8,9] eta erabiltzaileen barneko erosotasun hobea lortzeko eskaerak pixkanaka-pixkanaka infiltrazioen kontrola baldintza garrantzitsu batean bihurtu dute eraikinen kalitatea lortzeko.

Aipatutako 2.3.Taulan eraikin historikoak aztertzen dituzten ikerketak [11,12] kasuak dira. Ikusten den bezala, agerian dago eraikin historiko saiakuntzen informazio gabezia. Beraz, ezinbestekoa bihurtu da aire-ihesen ezagutza handitzea eraikin hauen energia eraginkortasuna hobetu ahal izateko.

2.4.1.2. Helmena eta helburuak

Atal honen helburu nagusia ondarearen eraikuntzako hermetikotasunaren ezagutza maila areagotzea da. Horrela, parametroak eraikin tipologia honen eraginkortasun energetikoan duen garrantzia neurtu ahal izango da. Helburu nagusia lortzeko, BDT metodologian oinarritutako saiakuntza kanpaina bat burutu zen Donostiako Kortazar deituriko zabalgunean. Aplikazio-eremu honen eraikinei esker lortutako emaitzekin eraikitako ondarean hermetikotasun datu-base adierazgarri bat garatu ahal izatea eskainiko du.

Hortaz, atal honek hurrengo helburuak ezartzen ditu:

2.4.1.1. Helburua Erabilera mota eta kontserbazio egoera desberdinak dituzten eraikin historikoen zerrenda bat garatzea azterketa-eremuaren kasu adierazgarri multzo bat ezartzeko.

2.4.1.2. Helburua Hautatutako kasuen aire estankotasunarekiko azterketa garatzea.

2.4.1.3. Helburua Emaitzen analisia ebaluatutako eraikuntza tipologiaren ohiko hermetikotasun joera aurkitzeko.

2.4.1.3. Helburua Lortutako emaitzen bitartez, aztertutako kasuen estankotasun maila eta ezaugarrien arteko korrelazio detekzioa eraikitako ondarearen portaera hermetikoa aurreikusteko oinarritzko ereduak garatzeko.

2.4.1.3. Kasu-azterketen aukeraketa

Laginen hautapena eraikin mota, tamaina eta kontserbazio mailaren arabera egin zen emaitzak ahalik eta adierazgarrien izan zitezten. Helburu nagusia hermetikotasun maila ebaluatzea da, eraikin historikoen eraginkortasunean eragiten duen parametro esanguratsu gisa. Guztira, 8 eraikin historiko hautatu ziren azterketarako, 2.4.Taulan identifikatzen dira eta 2.5.Irudian bere kokapena hirian. Eraikinen erabilera motei dagokionez, 4 bizitegi, 2 hezkuntza, 1 kultural eta 1 bulego eraikin dira, azkena hiriaren udaletxea izanez. Horrela, ikertu eta aztertu diren laginak eraikin mota guztietako adierazgarria da.

2.4. Taula-Aztertuako eraikinen zerrenda.

Eraikinaren izena	Erref.	Eraikuntza urtea	Eraikinaren erabilera	Ondare babes-maila
Easo 22	A	1905	Bizitegi	Babesik gabe
Urbietta 38A	B	1893	Hezkuntza	C
Aldamar 3A	C	1901	Hezkuntza	C
Birmingham 11	D	1919	Bizitegi	D
Victoria-Eugenia	E	1910	Antzokia/Administratiboa	A
Ijentea 01	F	1882	City Council	A
Larramendi 13	G	1906	Bizitegi	D
Loiola 14	H	1893	Bizitegi	C



2. 5. Irudia-Kasu-azterketen erabilera mota eta kokapena Donostian.

Ebaluatutako eraikinak etengabe okupatuta zeuden erabiltzaileengatik, beraz, ez zen posible izan eraikin osoko probak egitea. Gainera, ebaluatuen eraikinen dimentsio handiak direla eta, tamaina handiko haizagailutan oinarritutako teknikak beharko lirateke (king size fans) [30], proba egiteko bideragarritasuna zailtzen duena. Beraz, BDT partzialak egitea erabaki zen "Detached-Unit method" oinarrituta [31]. Guztira, 37 lagin aztertzen dira eta 2.5. Taulan ezaugarri orokorrak laburbiltzen dira, kasu bakoitzako informazio geometrikoa barne. Emaitzak kasu bakoitzaren ezaugarri geometrikoen eta neurtutako hermetikotasun arteko harremana antzemateko



aztertu ziren. Nahiz eta kasu gehienek 40 eta 140 m² bitarteko azalera izan, airearen bolumenak nabarmeneko bariazioa dute kasuen arteko sabai altuera desberdinak direla eta. Dibertsitate handia dago, batez ere 2,2 eta 2,9 metroko arteko etxebizitzaren altuera beste erabilera batzuekin alderatzen denean, hala nola udaletxeko 6 metro baino gehiago duten kasuekin.

2.5. Taula- Kasu-azterketen ezaugarri konstruktiboak.

Erref. kasua	Azalera erabiltaria [m ²]	Perimetroa [m]	Bataz besteko sabaia altuera [m]	¹ Eraikin inguratz ailearen azalera [m ²]	Bolumena [m ³]	² Kontserbazio gradua (W; C;S;L;F)	Leiho azalera [m ²]	Leiho perimetroa [m]	Leiho perimetro erabilgarria [m]
1.A	60	39	2.56	222	155	3;3;1;1;1	10.6	34.3	42.3
2.A	44	36	2.87	191	126	1;2;1;1;1	6.9	22.5	27.3
3.A	49	36	2.83	201	138	3;3;1;1;1	7.4	23.6	29.5
4.A	68	41	2.86	254	195	3;2;1;2;1	13.1	38.6	49.3
5.A	46	37	2.85	198	131	3;2;1;2;1	6.9	19.0	25.0
6.A	71	44	2.57	254	181	1;2;1;2;1	13.3	39.0	50.4
7.B	73	40	4.21	314	309	2;3;1;2;1	27.8	55.8	83.7
8.B	73	38	3.80	292	277	2;2;1;2;1	26.1	50.5	75.8
9.B	100	46	4.80	420	482	2;2;1;2;1	28.4	59.5	89.3
10.B	73	38	3.38	275	247	2;2;1;2;1	24.3	51.0	76.5
11.B	74	42	3.38	288	249	2;2;1;2;1	20.3	42.5	63.8
12.B	54	32	3.37	215	182	2;2;1;2;1	12.2	25.5	38.3
13.C	15	17	2.72	76	42	4;4;2;1;2	6.1	14.1	21.3
14.C	49	28	2.87	179	141	4;4;2;1;2	12.2	25.0	35.8
15.C	55	44	2.72	228	148	4;4;2;2;2	12.4	43.2	56.3
16.C	48	30	2.71	177	130	4;4;2;2;2	4.1	14.4	18.8
17.C	48	30	2.72	177	130	4;4;2;2;2	4.1	14.4	18.8
18.C	55	44	2.72	228	148	4;4;2;2;2	12.4	43.2	56.3
19.C	17	18	2.72	82	45	4;4;2;2;2	4.1	14.4	18.8
20.C	134	73	2.71	467	363	4;4;2;2;2	22.0	76.8	100.0
21.C	104	50	3.71	396	387	4;4;2;2;2	36.0	84.1	122.0
22.C	134	71	3.63	526	488	4;4;2;2;2	45.0	105.2	152.6
23.D	102	49	2.88	345	293	3;1;1;2;1	26.5	84.4	106.9
24.E	62	34	5.08	297	313	3;4;2;2;1	26.3	35.6	55.1
25.E	62	34	5.08	297	313	3;4;2;2;1	26.3	35.6	55.1
26.E	89	51	2.32	295	207	3;4;2;2;1	14.3	28.6	28.6
27.E	63	35	2.52	214	159	3;4;2;2;1	16.2	27.9	42.5
28.E	63	35	2.55	215	161	3;4;2;2;1	16.2	27.9	42.5
29.E	59	33	4.62	272	271	3;4;2;2;2	27.2	43.6	61.7
30.F	107	61	2.48	366	267	1;2;1;1;1	23.5	59.0	73.1
31.F	69	36	6.37	366	442	1;1;1;2;1	32.8	52.4	81.2
32.F	75	39	6.42	397	480	1;1;1;2;1	19.2	26.5	39.8
33.F	47	31	3.22	193	151	1;1;1;2;1	16.0	32.3	44.8
34.F	12	16	3.43	78	42	1;1;1;2;1	3.0	7.1	10.2
35.F	52	34	5.30	287	278	3;2;1;2;1	9.4	12.4	29.2
36.G	55	34	2.72	204	150	2;3;1;2;2	11.9	35.2	43.8
37.H	58	36	2.19	199	128	1;2;1;1;2	7.1	22.9	28.7

¹ISO 9972 definizioaren arabera, eraikuntza edo eraikinaren aztertutako gela kanpotik edo beste eraikinetik baztertzeko duen muga.

²Leihoak (W): 1 Originala; 2 Originala mantenuarekin; 3 Berriak (instalazio estandarrekin); 4 Berriak (kalitate handiko instalazioarekin)

Kontserbazio egoera (C): 1 Originala; 2 Ondo mantendua; 3 Ondo mantendua eta berritua; 4 Erabat berritua

Egitura (S): 1 Egurra eta metalezko elementuak; 2 Hormigoizko egitura

Kokapena (L): 1 Goiko solairua, atikoa etab; 2 Tarteko solairua

Instalazioak (F): 1 Hormetan ezkututa; 2 Agerian

Azterketaren kasuak modu askotan sailkatu daitezke. Adibidez, gaur egungo kontserbazio egoeraren arabera, bi talde nagusi daude. Alde batetik, D, H eta G eraikinak gainazaleko aldaketa arinak egin dituzte, baita A eraikinaren kasu batzuk ere. Bestalde, C eta E eraikinek birgaitze maila handia erakusten dute. Behatutako eraikinen birgaitzen arabera, baieztatu dezakegu etxebizitzaren gehiengo kasuek azken hamarkadan erreformatu egin direla, leihoak ordeztuz eta inguratzailearen egitura egoera hobetzen. Aldi berean, eraikin publikoak oso gutxitan berritzen badira ere, kasu batzuetan erreforma sakonak ikus daitezke estalkien eta egituren


ordezkapenekin. Hau da, eraikin publikoen birgaitze kasuak gutxi izan arren, gauzatzen direnean inbertsio publikoa handia denez, oro har, burututako ekintzak era integralean egiten dira. Beste aldetik, aztertutako kasuetatik, ezin izan da inolako birgaitze integral izan duen egoitza-eraikinik aztertu, beharbada jabe guztien arteko akordioetara iristeko zailtasun handiak baitira, ekintza integralak burutzeko.

Eraikuntza sistemei dagokienez, aipatu beharra dago oso antzekoak direla, C eta E eraikinak izan ezik, barneko egiturak berriki gauzaturako birgaitzetan ordezkatu baitzuten. Leiho sistemei dagokienez, kasu gehienek egurrezko markoak eta beira sinpleak dituzten leiho originalak iraunarazten dute. Hala ere, denborarekin batera bere jatorrizko baldintzak hondatu egin dira. Hau da, batez ere, egurraren zahartzea eta asentu-mugimenduek eragindako distortsio geometrikoa dela eta.

2.4.1.4. Metodo esperimentalaren deskribapena

Metodologia eta probak burutzeko eman diren urratsak 2.6. Irudiko diagraman laburbiltzen dira. Lau fase desberdin osatzen dute.

Lehenengo fasea arestiko atalean aipatu den kasuen aukeraketan oinarritzen da. Fase honetan ere eraikinen jabeekin lehen kontaktuak egin dira entseguen baimenak lortzeko.



2. 6. Irudia- Hermetikotasun azterketan zehar jarraitutako metodologiaren fluxu-diagrama.

Hurrengo fasea, hermetikotasun probak burutu ahal izateko behar den kudeaketa orokorra biltzen du. Urrats hauek funtsezkoak dira emaitzen fidagarritasunerako oso garrantzitsuak baitira. Lehenik eta behin, eraikinen kasu egokienak aukeratzeko hurrengo detaileak kontuan hartu ziren: ikerketaren xedea, eraikinaren tamaina, kontserbazio egoera eta proba egin ahal izateko erabilgarritasuna. Bigarrenik, irisgarritasunaren eta egutegiaren arabera, probak egiteko egunak jabeekin











programatu ziren. Eraikin publikoetan erabakigarria izan zen puntu hau, eguneroko erabilera ezin baita eten eta probak jaiegunetan egin ahal izateko koordinatu ziren.


Hirugarren etapa BDTarekin eta bere prestaketarekin lotutako gai guztiekin datza. Testak Minneapolis Blower Door 4 Modeloarekin, 2.7.Irudian erakusten den bezala, eta ISO 9972an definitutako 1. Metodo prozedura jarraituz gauzatu ziren [32]. Fase hau konplexuenaz jotzen da, beharrezkoa den ekipamendu kopuru handiarengatik eta kontuan hartu behar diren urrats guztiengatik.

Araudiaren arabera, hermetikotasun proba presio-positiboan edo presio-negatiboan egin daiteke, 2. 8. Irudia. Azterketan, bi presio aukerak presio-balio desberdinetan burutu ziren aire-fluxuen eta presio-diferentzia arteko fidagarritasuna lortzeko. Kasu bakoitzaren hermetikotasun maila bere ezaugarri geometrikoen bidez eta gainpresio eta depresio entseguetan lortutako emaitzen bitartez erdiesten da.

Saiakuntzaren prozesuan, kasu bakoitzaren hermetikotasun arabera, haizagailuak kanpoko eta barruko arteko presio diferentzia bat lortzeko aire-emari kopuru zehatz bat sortu behar du. Aire-emari horren arabera, haizagailua uztai jakin batekin prestatu behar da neurketa egokiak lortzeko. Haizagailuak momentu bakoitzean sortzen ari duen aire-emari kopurua jakiteko presio sentsore baten bidez eta bihurketa-taula edo grafiko baten bidez burutzen da, 2.9 eta 2.10 Irudiak.




2. 7. Irudia- Kasu-azterketetan eginidako hermetikotasun entseguak (kasu bakoitzaren erreferentzia zenbakiarekin).



2. 8. Irudia- Blower Door Testaren emaitza grafikoa.



2. 9. Irudia- Minneapolis Model 4 haizagailuaren uztaiak (A-E) eta presio sentsorea aire-emaria kalkulatzeko.



2. 10. Irudia- Minneapolis Model 4 haizagailuaren kalibrazio prozesuan lortutako presioaren eta aire-emariaren arteko bihurketa-grafikoa erabilitako uztaiaeren arabera (kalibrazio fitxaren datuetatik datuekin garatuta).

Bihurketa taula edo grafiko hau aurretiko fabrikatzaileak egindako kalibrazio baten bidez lortzen da. Honek kurben faktoreak eman behar ditu neurtutako presioak aire-emarian bihurtu ahal izateko hurrengo espresioaren bitartez:

$$\dot{V}_r = C_c \cdot (\Delta p_v)^{n_c}$$

$$\dot{V}_m = f(\dot{V}_r) = \dot{V}_r \cdot \sqrt{\frac{1.204}{\rho_a}}$$

non:

\dot{V}_r = neurtutako aire-emari tasa, m³/h
 C_c = kalibrazioko aire-iragazpen koefizientea, m³/(h·Paⁿ)
 Δp_v = haizagailuaren presioa, Pa
 n_c = kalibrazioko aire-emari esponentea, (-)
 \dot{V}_m = aire-emari tasa, m³/h
 ρ_a = haizagailua zeharkatzen duen airearen dentsitatea, kg/m³

Beste aldetik, fabrikatzaileak haizagailuarentzat emandako kalibrazio koefizienteak erabilitako uztaien arabera honako hauek izan ziren:

Uztaia	C_c m ³ /(h·Pa ⁿ)	n_c (-)
Deskarga librea	745.3	0.4848
A	273.2	0.4952
B	81.68	0.4969
C	19.30	0.5157
D	12.31	0.5032
E	4.76	0.5166

Prozesu guzti DG-700 manometro diferentzialarekin eta TECTITE Express softwarearekin erregistratzen da. Ondoren, aire-emari tasaren zuzenketa egin behar da inguratzailetik zeharkatzen duen aire tasa depresio edo gainpresio kasuetarako hurrengo espresioen bidez:

$$\dot{V}_{env d} = \dot{V}_{m d} \cdot \left(\frac{\rho_i}{\rho_e}\right)$$

$$\dot{V}_{env g} = \dot{V}_{m g} \cdot \left(\frac{\rho_e}{\rho_i}\right)$$

non:

$\dot{V}_{env d/g}$ = inguratzailea zeharkatzen duen aire-emari tasa depresio edo gainpresio kasuan, m³/h
 $\dot{V}_{m d/g}$ = kalibrazioko aire-iragazpen koefizientea, m³/(h·Paⁿ)
 ρ_e = kanpoko airearen dentsitatea, kg/m³
 ρ_i = barruko airearen dentsitatea, kg/m³



Aire-emaria presio diferentzia pasu bakoitzean lortu ondoren, V_{env} balioen eta karratu minimoen bidezko doiketa teknika baten bidez C_{env} eta n baloreak lortzeko hurrengo espresioa erabili behar da:

$$\dot{V}_{env\ d/g} = C_{env\ d/g} \cdot (\Delta p)^n$$

non:

$C_{env\ d/g}$ = aire-emari koefizientea depresio edo gainpresio kasuan, $m^3/(h \cdot Pa^n)$

Δp = eragindako presio aldea, Pa

n = aire-emari esponentea depresio edo gainpresio kasuan, (-)

Orain arte aipatutako parametroak saiakuntza burutu zen momenturako kalkulatu daude. Beraz, espresioa baldintza normalentzako ($20 \pm 1^\circ C$ eta $1.013 \cdot 10^5$ Pa) egokitu behar da. Helburu hori lortzeko C_{env} parametroa C_L bihurtu daiteke airearen dentsitatea saiakuntzaren baldintzetan eta baldintza normaletan kontuan hartuta:

$$C_{L\ d} = C_{env\ d} \cdot \left(\frac{\rho_e}{\rho_o}\right)^{1-n}$$

non:

$C_{L\ d/g}$ = aire-emari koefizientea depresio edo gainpresio kasuan, $m^3/(h \cdot Pa^n)$

$$C_{L\ g} = C_{env\ g} \cdot \left(\frac{\rho_i}{\rho_o}\right)^{1-n}$$

ρ_o = airearen dentsitatea baldintza normaletan, kg/m^3

Horrela, hermetikotasun saiakera deskribatzen duen azkeneko espresioa hurrengoa da:

$$\dot{V}_L = C_L \cdot (\Delta p)^n$$

non:

V_L = iragazitako airearen tasa depresio edo gainpresio kasuan, m^3/h

C_L = aire-iragazpen koefizientea depresio edo gainpresio kasuan, $m^3/(h \cdot Pa^n)$

Δp = eragindako presio aldea, Pa

n = aire-emari esponentea depresio edo gainpresio kasuan, (-)

Behin iragazitako aire tasaren espresioa lortuta eta aztertutako kasuaren ezaugarri geometrikoak jakinda, hermetikotasun-adierazleak kalkulatu daitezke, 2.6.Taula. Adierazle baten edo beste baten erabilera aplikazio-eremuaren arabera da, aire aldaketa-tasa n_{50} normalean gehien erabiltzen dena izanez.

2.. 6. Taula- Hermetikotasun-adierazleak.

Hermetikotasun-adierazlea	Ekuazioa	Unitateak	Aplikazio-eremu
Iragazitako airearen tasa	$V_{\Delta p} = C_L \cdot \Delta p^n$	m ³ /h	
Aire aldaketa-tasa	$n_{\Delta p} = \frac{Q_{\Delta p}}{V}$	h ⁻¹	Passivhaus, Hego Europa, Hego Amerika, Txina
Ihes-tasa espezifikoa	$w_{\Delta p} = \frac{Q_{\Delta p}}{A_F}$	m ³ /h m ²	Suedia, Danimarka
Aire iragazkortasuna	$q_{\Delta p} = \frac{Q_{\Delta p}}{A_E}$	m ³ /h m ²	Iparaldeko Europa, Irlanda, Erresuma Batua, Frantzia, Kanada
Aire ihesen baliokide-azalera (ELA-EqLA)	$A_L = Q_{\Delta p} \frac{\sqrt{\rho/2\Delta p}}{C_p^*}$	m ²	LBL eta AIM infiltrazio eredurentzat.

*Non $C_p=1$ ELA eredurako 4 Pa-etan eta $C_p=0.61$ EqLA eredurako 10Pa-etan.

Azken fasean, kasu bakoitzeko emaitzak aztertu ziren eraikin bakoitzeko aire-filtrazioen portaeraren ezaugarriak zehazteko. Horrez gain, hainbat datu-korrelazio ebaluatu ziren eraikin historikoen hermetikotasun joerak identifikatzeko, hala nola hermetismoaren balioa eta kasu bakoitzaren ezaugarri geometrikoak.

2.4.1.5. Emaitzak eta eztabaida


Aztertutako 37 kasuen emaitza nagusiak 2.7.Taulan laburbiltzen dira, baita baldintza klimatikoak eta hermetikotasun-adierazleak ere. Emaitzen sailkapena eraikin bakoitzaren arabera 2.11.Irudian aurkezten dira. Analisisien zati nagusia n_{50} eta q_{50} adierazleetan oinarritzen da, eraikuntzako sektorean adierazle hauen erabilera nabarmena direla eta.

Emaitzen deskribapen orokorrak estankotasun balioen sakabanaketa handia eta maximoen eta gutxien balioen arteko aldea erakusten du. Emaitza desberdinak izan arren, n_{50} balioen bi herenak 3 h⁻¹etik 20 h⁻¹ bitartekoak dira, %67,6 hain zuzen ere. Analisi orokor honek beste ikerketetan aurkitutako emaitzekin alderatuta desberdintasun garrantzitsua adierazten du [21-29]. Ikerketa hauetakotik batek ez du hermetikotasun maila hain txikia aurkeztu, eraikin historikoak zehazki ebaluatzen dituzten ikerketek izan ezik [11,12]. Eraikin historikoetan egindako ikerketen emaitzak alde batera utzita, kasu bakarra dago [26], zeinaren batez besteko hermetikotasun emaitza ikerketa honetan lortutako balioa gainditzen duen. Beraz, emaitzen analisi orokor batetik ondorioztatu dezakegu ebaluatutako eraikitako ondarearen kasuen hermetikotasuna txikiagoa dela eraikin berrien aldean.




2.7. Taula- Kasu-azterketen airearekiko hermetikotasun saiakuntzen emaitzak.

Erref.	Barruko temperatura [°C]	Kanpoko Temperature [°C]	Aire-emari koefizientea [m ³ /h Pa ⁿ]	Aire-emari esponentea [-]	V ₅₀ [m ³ /h]	n ₅₀ [h ⁻¹]	w ₅₀ [m ³ /hm ²]	q ₅₀ [m ³ /hm ²]
1.A	17.5	17	80,9	0,611	881	5.69	14.57	3.97
2.A	18.2	16.5	77,6	0,666	1049	8.31	23.84	5.50
3.A	18.6	20.6	202,6	0,555	1761	12.78	36.18	8.78
4.A	13.8	13	140,1	0,607	1500	7.68	21.95	5.91
5.A	13	13	69,3	0,614	765	5.85	16.68	3.87
6.A	14.2	13.7	318,0	0,585	3125	17.24	44.29	12.28
7.B	25.5	25.3	297,5	0,554	2596	8.40	35.36	8.27
8.B	24.8	25.8	395,2	0,622	4507	16.30	61.93	15.45
9.B	24	24.1	186,5	0,589	1868	3.87	18.59	4.45
10.B	24.4	23.2	211,9	0,581	2063	8.36	28.26	7.51
11.B	25.2	24.9	132,9	0,606	1420	5.71	19.28	4.93
12.B	24.8	24.3	105,1	0,602	1105	6.08	20.47	5.13
13.C	24.7	23.1	153,7	0,591	1550	37.12	100.98	20.46
14.C	27.6	25.3	263,0	0,633	3076	21.79	62.55	17.17
15.C	25.6	24.5	18,8	0,655	243	1.64	4.45	1.07
16.C	24.6	23.5	10,9	0,625	125	0.96	2.61	0.71
17.C	25.6	24.3	7,8	0,624	89	0.68	1.86	0.50
18.C	26.8	27.6	17,5	0,652	224	1.51	4.10	0.98
19.C	28.1	29.1	26,8	0,600	279	6.19	16.84	3.39
20.C	26.5	29.5	50,5	0,608	543	1.50	4.05	1.16
21.C	27.1	33.2	63,7	0,597	659	1.70	6.31	1.66
22.C	27.5	31.3	60,9	0,628	699	1.43	5.20	1.33
23.D	27.3	26	533,8	0,581	5184	17.69	50.94	15.04
24.E	23.3	26	242,4	0,561	2174	6.95	35.30	7.32
25.E	25.1	22	228,2	0,561	2049	6.55	33.27	6.90
26.E	26.5	21.5	105,5	0,662	1407	6.81	15.80	4.77
27.E	24.4	22.8	162,6	0,564	1472	9.25	23.31	6.87
28.E	28.8	30.3	136,9	0,588	1366	8.48	21.63	6.35
29.E	24.5	21	33,8	0,649	427	1.57	7.27	1.57
30.F	25.4	19	794,8	0,564	7190	26.95	66.93	19.63
31.F	23	24.7	128,6	0,666	1734	3.93	25.02	4.74
32.F	24.2	27.5	481,3	0,613	5253	10.95	70.31	13.24
33.F	26.9	29.2	247,9	0,578	2378	15.77	50.77	12.32
34.F	25.8	26.3	36,7	0,610	399	9.52	32.65	5.14
35.F	25.5	21	64,2	0,560	571	2.06	10.90	1.99
36.G	22.6	22.4	278,1	0,586	2744	18.26	49.67	13.44
37.H	23.4	22.9	97,9	0,616	1089	8.51	18.66	5.46




2. 11. Irudia- Aztertutako kasuen aire hermetikotasun entsegu emaitzen distribuzioa aire truke-tasa eta airearekiko iragazkortasunaren bidez 50 Pa-etan.

Kasu guztien batez besteko airearen berritze-tasa emaitza $n_{50}=9.03 \text{ h}^{-1}$ da. Hermetikotasun balioen maiztasun analisia, 2.12.Irudian, n_{50} balio ohikoenak $0-2 \text{ h}^{-1}$ tartean direla erakusten du. Hala ere, maiztasun erlatibo honek ez du zehatz-mehatz azterketa osoa irudikatzen, izan ere, C eraikinaren emaitzek maiztasun honetan eragina du hutsaltzen duelako hein batean lortutako baloreak. Hau da, eraikin honetan garatutako kasu kopurua handia izan zen, lortutako hermetikotasun kalitate handia konfirmatzeko, beraz, emaitza gehiago edukitzearren eraikin honek pisu gehiago lortzen du emaitza orokorrean. $6-8 \text{ h}^{-1}$ eta $8-10 \text{ h}^{-1}$ tartekak zehaztasun handiagoz deskribatzen dute aztertutako tipologia, neurketa horiek eraikin ezberdinak irudikatzen baitituzte. Emaitzak hiru talde nagusitan sailkatu daitezke: %30 inguru kasuak $0-4 \text{ h}^{-1}$ arteko emaitzak erakusten dute, %50 kasuei dagokionez $4-16 \text{ h}^{-1}$ artean eta gainerako %20 $16-38 \text{ h}^{-1}$ inguruan.



2. 12. Irudia- 50 Pa-etan aire iragazkortasunaren eta aire truke tasaren analisi estatistikoa maiztasun erlatibo eta metatuan oinarrituta.


2.13.Irudian kaxa eta bibotezko diagrama batekin eraikin bakoitzaren emaitzak erakusten dira. Lagin kopuru handia duten kasuek, A, B, C, E eta F eraikinek, batez besteko balioak $6.60-11.53 \text{ h}^{-1}$ artekoak dira. Honek erakusten du kasu anitz azertu diren eraikinen hermetikotasun batezbestekoak ikerketan lortutako 9.03 h^{-1} batezbestekoaren %30aren bariazioaren barnean daudela. Kaxa eta bibotezko estatistikoko diagrama oso erabilgarria da arestian aipatutako muturreko balioak ikusteko. Kaxen biboteak ez dira balio horietara iristen, eta eraikin bakoitzeko kuartilarteko (IQR) baloreekin alde esanguratsua islatzen dute. Muturreko balio hauek eraikin bakoitzaren portaera orokorrarekin bat ez etorriagatik, eraikitako ondarean aurki daitekeen ohiko emaitzaz ohartarazten dute.



2. 13. Irudia- Aztertutako kasuen estankotasun analisia haxa eta bibotezko diagrama erabiliz eraikinaren arabera sailkatuta.


Ondoren, lortutako emaitzen bitartez eraikitako ondarearen aire estankotasunarekiko kasu bakoitzeko ezaugarri geometrikoekin erlazioa bilatuko da. Kasu-azterketen ezaugarrien eta lortutako hermetikotasun adierazleen arteko korrelazioa hasiera batean kasu-multzo oso bat bezala ebaluatu zen eta, ondoren, antzekotasun-portaeraren arabera ordenatu ziren taldeetan aztertzeko. Kasuak lehen antolatu diren bezala aztertuko dira, hau da, hermetikotasun baxukoak (% 20), tarteko hermetikotasunekoak (% 50) eta hermetikotasun handikoak (% 30).

Lehenengo konparazioan, airearen fluxua aztertutako kasuen bolumenarekin lotzen da. Azterketa orokorraren emaitzek ez dute joera nabarmenik erakusten. Hala eta guztiz ere, emaitzak bereizita beren estalduraren arabera ebaluatzen badira, talde bakoitzak airearen fluxuaren eta kasu bakoitzaren bolumenaren arteko korrelazio egokia erakusten du, 2.14.Irudian ikus daitekeen bezala. Hiru talde hauek portaera desberdinak eskaintzen dituzte, ingurutzailaiek airearen fluxuari eskaintzen dioten erresistentzia desberdinak direla eta. R^2 determinazio-koefizienteak optimoak ez izan arren, bi parametroen arteko lotura estua erakusten da, batez ere ertain eta baxuko hermetikotasun kasuetan.




2. 14. Irudia- Aire fluxuaren eta aztertutako kasuen bolumen arteko korrelazioa identifikatutako estankotasun mailen arabera.

Bi talde hauen doitze egokiago baten bitartez, badirudi kasuen ezaugarri geometrikoak duten efektua hermetikotasun txikiko eta ertaineko kasuetan hermetikotasun handikoetan baino inpaktu gehiago dutela. Horregatik, bigarren korrelazio bat burutu zen aire fluxuaren eta ingurutzailaren azaleraren artean. Egiaztatu zen, 2.15. Irudian jasotako talde bakoitzaren emaitzak kontuan hartuta, ingurutzailaren azaleraren eta aire fluxuaren arteko lotura sendoa dagoela. Hermetikotasun baxuko kasuek ertaineko hermetikotasun kasuak baino erlazio gehiago erakusten dute ingurutzailaren azalerarekin, R²ren balio handiagoa dela eta. Hala eta guztiz ere, hermetikotasun handiko kasuek ez dute zerikusirik ingurutzailaren azalerarekin.



2. 15. Irudia- Aire fluxuaren eta aztertutako kasuen ingurutzailaren azaleraren arteko korrelazioa identifikatutako estankotasun mailen arabera.

Gainera, korrelazio berriak detektatzeko kasuak 2.5.Taulako beste ezaugarri geometrikoekin aztertu ziren, hala nola leihoen azalerekin, perimetroekin eta perimetro erabilgarriekin. Ezaugarri gehienek ez zuten korrelaziorik eskaintzen. Hala eta guztiz ere, hermetikotasun handiko taldea korrelazio oso esanguratsua erakutsi zuen airearen fluxuaren eta leihoen azaleraren artean, 2.16.Irudian ikus daitekeen moduan. Azken irudi honek aurreko hermetikotasun handiko kasuen inguruko aurreko iritziak berresten ditu. Hau da, kasu hauek ez dutela geometria orokorrarekin lotura askorik, baizik eta eraikuntzako ezaugarriekin zerikusi estuagoa dute, leihoen azalarekin bezala.



2. 16. Irudia- Aire fluxuaren eta aztertutako kasuen leiho azaleraren arteko korrelazioa identifikatutako estankotasun mailen arabera.

Entseguak burututakoan, aire-ihesak eragiten zituzten ohiko arazoak identifikatu ziren. Eraikin historikoetan espero zen bezala, aztertutako kasuek ez zuten inolako hermetikotasun diseinurik ezta eraikin modernoetan aurki daitezkeen material berezirik, hala nola mintz hermetikoak, zinta aurrekonprimituak edo apar bereziak. Beraz, detektatu ziren aire-ihesak nagusiak ohikoak izan ziren eta ondoren aipatzen dira:

- Leihoak, bereziki horma eta markoen arteko junturetan eta pieza mugikorretan, esate baterako, burdineri elementuak.
- Ingurutzaileretan sortutako irekiduretan, batez ere instalazioentzat egindako sarrera nagusiak (ur-hornidura, saneamendua, gasa eta aireztapena).
- Elementu elektrikoak (koadro elektrikoak, entxufeak, etengailuak eta argiztapen puntuak)
- Lurzoruaren asentuek hormetan sortutako arrailak edo egurrezko egituren mugimenduek sortutako hutsuneak.
- Zokaloak eta lurzoruaren egur-taulen arteko junturak.

Kasu nabarmenei dagokionez, hala nola hermetikotasun txikia duten kasuek, n_{50} balio maximo gehienak azkeneko solairuetan aurkitu ziren, hala nola, 30F, 13C eta 14C kasuak. Baliteke honen arrazoia kasu gehienetan estalkien aire-estankotasunarekiko diseinu faltari dela. Adibidez, 30F kasuaren espozioa beste kasuek baino handiagoa da, kanpoalderako irekiduraz beteta duen ganbara baten azpian kokatuta dagoelako, 2.17. Irudia. Sabaia, hain zuzen ere, ganbara eta aztertutako gela banatzen zuen "geruza hermetiko" bakarra zen. Horrez gain, argi puntuen eta aireztapen irekiduren juntadurak sabaiarekin airearen filtrazioa asko errazten zuten.





2. 17. Irudia- 30 F kasuaren gaineko ganbara eta sabaiaren zuloak.

Beste kasu batzuetan, 13C eta 14C bezalakoak, gelak jatorrizko eraikin originalaren gainean eraiki zen lebante berri batean kokatuta daude. Azken solairu honek, burdinazko egitura dauka eta barruko sabaia errematxatutako erretxina panelekin estalita dago eta kanpoko geruza zinkezko estaldurarekin osatuta dago, 2. 18. Irudia. Eraikuntza-sistema honek aire fluxuari erresistentzia txikia eskaintzen dio, batez ere eraikin berean beste itxitura batzuekin alderatuz. Hala ere, goiko solairu guztiek ez dute portaera bera. 1A, 2A, 3A eta 37H kasuek ez dute airearekiko erresistentzia hain ahula erakusten, n_{50} balioak 5 h^{-1} eta 13 h^{-1} bitartekoak dira.

Bestalde, kasu hermetikoenak C eraikinaren kasu batzuk eta 29E kasua dira. Arestian aipatu bezala, bi eraikin hauek birgaituta daude, egitura aldatuz eta leihoak beste berrieekin ordezkaturik. Aldaketa sakon hauek eraikinen hermetikotasun mailan erabateko garrantzia izatea lortu dute, batez ere beste eraikinekin konparatzen bada. Alabaina, inguratzailearen elementu baten aldaketa ez du nahitaez esan nahi hermetikotasun maila hobetzea lortuko duela. Azken ikerketa batek erakutsi du nola leiho zahar batzuen aldaketak leiho berri batzuegatik paradoxikoki hermetikotasun maila murriztea lortu zuela kalitate gutxiko instalakuntzagatik [33]. C eta E eraikinetan, egurrezko egitura hormigoizko berri baten aldaketari eta fatxaden berritzeari esker asko murriztu zen eraikinen jatorrizko aire-ihesak. Gainera, 35F, 9B



eta 31F kasuek ere hermetikotasun handia dute instalazioen presentzia eskasari eta eraikuntza sistema hermetiko originalari esker.



2. 18. Irudia- C eraikinaren estalkiaren ezaugarriak: A) Xehetasun-konstruktiboa B) Sabaiaren akabera C) Estalkiaren akabera D/E) Aire-ihesen detekzioa.

Ustekabekoa izan zen E eraikinaren kasu askotan hermetikotasun baxuko emaitzak lortzea eraikina erabat birgaituta kontuan izanda, C eraikina bezala. Arrazoiak 29Eren proban aurki daitezke, hau da, estankotasun handiagoa erakusten du, seguruenik hormen pitzaduren, korronte-harguneen eta kutxa elektrikoaren gabeziak direla eta. C eraikuntza eta 29E laginaren ezaugarriak berraztertzen baditugu, kasu hauek azaleko instalazio elektrikoak, kanalak eta hodiak, zituztela ikus daitezke. Honek hormetan

zehar irekiduren murrizketa lortzen du eta, juntaduren arretarekin batera, hermetikotasun maila handia lor daiteke. Hala eta guztiz ere, E eraikuntzaren gainerako kasuek portaera guztiz desberdina dute. Kasu hauetan, lotura handia detektatu zen kasuen hermetikotasun murrizketa eta hormetan zulaketen presentzia artean.

2.4.1.6. Ondorioak

Ikerketa honek eraikitako ondarearen aire estankotasunarekiko datu-base sortzearen hasierako helburua bete du. Guztira 37 azterketa kasu burutu ziren 8 eraikin ezberdinetan.

Probatutako kasuek anitz hermetikotasun mailak erakutsi zuten. n_{50} adierazlearen emaitzak $0,68 \text{ h}^{-1}$ balio minimotik $37,12 \text{ h}^{-1}$ balio maximora, eta q_{50} ren azdierazlearen kasuan $0,50 \text{ m}^3/\text{h m}^2$ minimitoik $20,46 \text{ m}^3/\text{h m}^2$ maximora. Hiru hermetikotasun maila identifikatu ziren maiztasun analisiaren arabera: hermetikotasun altuko kasuak, hau da 4 h^{-1} balioaren azpitik lortu zutenak, %30en kasuak izan ziren, beste aldetik, hermetikotasun ertaineko kasuak %50a dira eta 4 h^{-1} eta 16 h^{-1} balioen arteko emaitzak erakutsi zuten, azkenik hermetikotasun baxuko kasuak 16 h^{-1} eta 38 h^{-1} ko arteko balioak erakutsi zuten eta kasu guztien %20a izan ziren.

Aztertutako laginen batez besteko hermetikotasuna $n_{50}=9.03 \text{ h}^{-1}$ eta $q_{50} = 7.01 \text{ m}^3/\text{h m}^2$ izan zen. Hala ere, emaitza hauetan eragin garrantzitsua izan dute aipatutako maximo eta minimo balioen dispersioa. Eraikinen mailan, batez besteko balioak ere antzekoak dira. 8 kasuetako 5 eraikinen batezbesteko hermetikotasuna kasu guztien batezbesteko balioaren inguruko emaitzak erakutsi dute, n_{50} 6,60 eta $11,53 \text{ h}^{-1}$ arteko emaitzekin eta q_{50} 4.84 eta $9.51 \text{ m}^3/\text{hm}^2$ artekoak. Batez besteko adierazgarria lortzeko 5 eraikin hauetan azterketa-kasu ugari entseatu ziren. Hori dela eta, ikerketa honetan eraikin historikoetan lortutako hermetikotasun emaitzak beste ikerketetan argitaratutako gaur egungo eraikinen hermetikotasun balioekin alde handia dagoela erakusten dute.

Aztertutako eraikin askok beste ikerketetan eraikitako ondarean lortutako emaitzekin alderatuta nabariko desberdintasunak erakusten dute. Honen arrazoia eraikin morfologiaren desberdintasunengatik izan liteke, beste ikerketetan eraikuntza txikiagoak aztertu ziren bitartean, ikerketa honetan garatutako azterketak eraikin handien geletan arreta jarri zen.

Azterketaren hermetikotasun gutxien duten kasuak goiko solairuetan edo estalkipean aurkitzen dira. Alabaina, adierazpen hau ez da beti egia, zeren eta, aztertu ahal izan den bezala, asko eragiten duten beste hainbat faktore daude. Gainera,



infiltrazio-tasa altuena erakutsitako kasua, paradoxikoki, aztertutako eraikin hermetikoenean dago.

Ikusi den bezala, goiko solairu kasu gehienek airezko ihesak garrantzitsuak dituzte, eta emaitza honen arrazoia sabaietan erabiltzen diren soluzio konstruktiboengatik da. Hau da, sabaietan hermetikotasuna lortzea, juntura konstruktibo ugari direla eta, zailagoa da, batez ere Erdiko solairuen harlanduzko hormekin konparatuta. Oro har, aire-ihesei aurkako erresistentzia handiagoa lortzen dutenek birgaitutako eraikinak dira. Eraikin batek, junturetatik, sabaietatik eta zoruetatik infiltrazioen murrizketa lortu du hormigoi armatu egitura berri baten bidez jatorrizko egurrezko egitura ordezkatzuz.

Hainbat korrelazio detektatu dira aire-fluxua eta gelen ezaugarri nagusien artean, ez kasuen multzo osoarekin, baizik eta identifikatutako hiru hermetikotasun mailen arabera. Hermetikotasun txikiko kasuek ingurutzaileraren azalerarekin erlazionatuta daude, hermetikotasun ertaineko kasuak barne-bolumenarekin lotuagoa daude eta hermetikotasun handiko kasuak leihoen azalerarekin lotura dute batez ere.

Ondorio gisa bezala, ikerketak eraikitako ondarearen hermetikotasun mailaren egoera ikustaraztea ahalbidetu egin du. Nahiz eta kasu gehienek hermetikotasun maila oso baxua eskaini arren, eraikin tipologia honen birgaitzek hermetikotasuna hobetu dezaketela erakutsi dute. Era honetan, aire-ihesen kontrolaren eta diseinu egokien bitartez, eraikitako ondarearen eraginkortasun energetikoa nabarmenki hobetzea posible bihurtzea lortu daiteke.

2.4.2. Opaku osagaiaren karakterizazioa

2.4.2.1. Sarrera

Eraikinen ingurutzailer termikoen karakterizazioa garrantzi handiko gaia bihurtu da eraikinen portaera termikoa aztertu ahal izateko. Arreta honen arrazoia ingurutzailer termikoak bero galeretan duen pisuagatik da. Lehenik eta behin kontuan izan behar da hauek bi osagaiez osatuta daudela, alde opakua eta alde erdigardena. Hau da, alde batetik hormak, zoruak eta estalkia eta bestetik leihoak.

Leihoak, elementu konposatu bat izan arren, instalazio prozesuan elementu bakarra bezala kontuan hartu daiteke. Hau da, birgaitze energetikoen kasuan, leiho aldaketa batean besterik datza. Bere instalazioak sortutako zubi higrtermikoen eragina baztertuz, elementu honek ez du eraginik gainerako ingurutzaileran, horma baten gainean isolamendua gehitzearen kasuan ez bezala. Era honetan, bere ondorioa eraikin osoaren azterketa termikoan erraz burutu daiteke fabrikatzaileek esakintzen duten ezaugarri termikoei esker.

Elementu opakuen azterketari dagokionez, oro har, eraikuntzako sektorean ISO 6946ak [34] aurkezten duen prozedura oinarri bezala hartzen da eta ondorioz materialen eroankortasun termikoaren datua edukitzea ezinbestekoa bihurtzen da. Horretarako taulatutako balioak [35] edo saiakuntzen bitartez [36] lortutako emaitzak erabil daitezke. Kasu gehiengoetan, batez ere proiektugileen kasuan, lehengo metodoa erabiltzen da eta bigarren metodoa fabrikatzaileek erabiltzen dute beraien materialen ezaugarri teknikoak eskaintzeko.

Eraiki egingo den eraikin bat aztertzerakoan, normalean ez dago zailtasunik datu hauek lortzeko erabiltzen diren materialen fitxa teknikoetan ezaugarriak eskuragarri daudelako. Hala ere, lehendik dauden eraikinen eta batez ere eraikitako ondarearen kasuan karakterizazio hau zaildu daiteke. Alde batetik eraikin mota hauek duela urte asko eraikita izatearren ezaugarri konstruktiboen informazio gabezia garrantzitsua izan daiteke, hala nola, erabilitako materialak, eraikitzeko teknikak edo hormen lodiera. Beste aldetik erabilitako material gehienak naturalak dira eta oro har, eraikinen inguruan eskura errazeko materialak erabiltzea arrunta zen. Beraz, leku desberdinen eraikinen eraikitzeko teknikak berdinak izan arren, kasu bakoitzeko erabilitako leku materialen desberdintasuna dela eta, materialen ezaugarri berdinak erabiltzea eragozten du. Hori dela eta, material hauen ezaugarri teknikoak eskuratzea ez da ohikoena, beraz bere zehaztapena eraikin mota hauen esku-hartzeen gako bihurtzen da.

Azterketa-eremuan zentratuz, eraikin mota honen inguratzaileen osaera orokorra hurrengo da:

- Horma nagusiak: lodiera aldakorreko hormak solairuaren altueraren arabera, 40 eta 70 cm artekoak izaten ohi dira, 2. 19. Irudia. Osaketa mistokoak, kanpoaldeko geruza Igeldoko hareharrizko harlanduak osatzen dute eta barruko geruza Markinako kareharrizko eta Igeldoko hareharrizko harlangaitz-mistoaz osatuta dago. Bi geruzak elkartuta daude hareharrizko harlanduekin; horrela hauek, giltzak bezala, trabatzeko funtzioa betetzen dute, 2. 20. Irudia. Azkenik, barrualdeko akabera 2-3 cm-ko igeltsu luzituarekin izaten ohi da, hala ere batzuetan harlangaitzeko harriak ikusgai uzten dira.
- Uharte-patioen horma: kaletik horma ez ikusgai izateagatik, horma hauek ez dute horma nobleen itxura noblea. Beraz, kasu hauetan kanpoko akabera margotutako emokadurarekin bukatzen da. Lodiera dagokionez, horma nagusia bezalakoa izaten da eta baita ere altueraren arabera.
- Argi-patioen hormak: aurreko bi horma ez bezala, hauek ez dute sostengu-funtzioa, beraz, ez dute karga handiak jasateko beharra eta, ondorioz, bere

konposizioa nabarmen aldatzen da beste kasuekin alderatuta. Adreilu huts bikotzako luzekako aparailua izaten da, kanpoko emokadurarekin eta barruko luzituarekin bukatuta. Bere lodiera 15 cm ingurukoa izaten da.


- Estalkia: bere egitura egurrezkoa izaten da birgaitu ez diren eraikinetan. Normalean zeramikazko teilatua izaten dira baina zinkezko eta arbelezko estalkiak ere aurki daitezke. Beste kasu partikularrak jatorrizko arbelezko teiltuak tegola-orriekin aldatu direnak eta xafla asfaltikoak erabiltzen duten estalki lauak dira. Azken hauek batzuetan zeramikazko piezekin bukatuta, 2. 21. Irudia.



2. 19. Irudia- Donostia hiriko horma karakteristiko baten barrualdea eta kanpoaldea.



2. 20. Irudia- Hareharrizko eta kareharrizko horma baten barnealdeko xehetasun konstruktiboa eta kanpoko eta barruko geruzak trabatzeko zeharkatzen duen hareharrizko harlandua.




2. 21. Irudia- Azterketa-eremuko estalki adibideak (A: zeramikazko estalki inklinatua teilekin, zeramikazko piezaz estalki lauean eta xafla asfaltikoa, B: arbelezko estalkia zinkeko bukaerekin)

Ikusi ahal izan daiteke bezala, inguratzailetan erabiltzen diren material mota kopurua handia da. Hala ere, hareharriaren eta kareharriaren erabilera nabarmentzen da. Eraikuntzako Kode Teknikoko (EKT) materialen datu basean lehenengo bilaketak egiterakoan kareharri mota ugari eskugarri daudela ikus daiteke, hala ere, hareharriaren kasuan ez da horrela bakarrik erreferentzia-balio bat dagoelako, 2.8.Taula. Literatura azterketa sakonago baten bitartez, 2.22. Irudia, hareharrien propietate termikoak harri motaren arabera oso desberdinak izan daitezkeela argitu daiteke, kareharriarekin gertatzen den bezala.

2.. 8. Taula- Eraikuntzako Kode Teknikoaren elementu konstruktiboen katalogoen harrien ezaugarriak.

Rocas y suelos naturales				
Material	HE			
	ρ kg / m ³	$\lambda^{(1)}$ W / m·K	C_p J / kg·K	μ
Rocas Igneas				
Basalto	2700 ≤ ρ ≤ 3000	3,50	1000	10000
Granito	2500 ≤ ρ ≤ 2700	2,80	1000	10000
Piedra pómez natural	ρ ≤ 400	0,12	1000	6
Roca natural porosa (por ejem. Lava)	ρ ≤ 1600	0,55	1000	15
Traquita, andesita	2000 ≤ ρ ≤ 2700	1,10	1000	15
Rocas o suelos sedimentarios				
Arcilla o limo	1200 ≤ ρ ≤ 1800	1,50	1670-2500	50
Arena y grava	1700 ≤ ρ ≤ 2200	2,00	910-1180	50
Arenisca	2200 ≤ ρ ≤ 2600	3,00		
Asperón	1900 ≤ ρ ≤ 2500	1,80	1000	40
	1300 ≤ ρ ≤ 1900	0,90	1000	20
Caliza, muy dura	2200 ≤ ρ ≤ 2590	2,30	1000	200
Caliza, dura	2000 ≤ ρ ≤ 2190	1,70	1000	150
Caliza, dureza media	1800 ≤ ρ ≤ 1990	1,40	1000	40
Caliza, blanda	1600 ≤ ρ ≤ 1790	1,10	1000	25
Caliza, muy blanda	ρ ≤ 1590	0,85	1000	20
Silex	2600 ≤ ρ ≤ 2800	2,60	1000	10000
Rocas metamórficas				
Gneis, Pórfido	2300 ≤ ρ ≤ 2900	3,50	1000	10000
Esquisto, Pizarra	2000 ≤ ρ ≤ 2800	2,20	1000	800
Mármol	2600 ≤ ρ ≤ 2800	3,50	1000	10000
Tierra vegetal	ρ ≤ 2050	0,52	1840	-

⁽¹⁾ La conductividad térmica incluye el efecto producido por las posibles juntas.



2. 22. Irudia- Fraunhofer IBPren WUFI softwarearen datu-basearen hareharrien eta kareharrien eroankortasun termikoa eta dentsitatea.

Beraz, hormek aztertutako-eremuan ingurutzailer termiko bezala duten garrantziagatik eta konposatzen dituzten harrien ezaugarri termikoei buruzko informazioa faltagatik, eraikin mota hauetan ebaluazio termikoak burutzeko zailtasunak ageri dira.

2.4.2.2. *Helmena eta helburuak*

Atal honen helburu nagusia aztertutako eremuaren hormen karakterizazio termikoa garatzea da. Alde batetik, aztertutako hormak osatzen duten materialen ezaugarri termikoen informazio falta aurkitu egin da. Beste aldetik harrien jatorriaren arabera ezaugarri termikoak erabat desberdin izan daitezke frogatu egin da. Beraz, atal honek eremuko materialen azterketaren bitartez, ingurutzailer termikoen portaera, horma nagusia zehazki, ezagutzea ahalbidetu izango du.

Hortaz, atal honek hurrengo helburuak ezartzen ditu:

2.4.2.1. Helburua Ikerketa eremuko hormak osatzen dituzten harri material nagusien portaera termikoa aztertzea.

2.4.2.2. Helburua Lortutako emaitza esperimentalekin transmisio termiko baliokide bat garatu buru habeek eta leihoek sortutako bi eta hiru dimentsioko zubi termikoen efektua kontuan hartu ahal izateko.

2.4.2.3. Helburua Eraikitako ondarearen hormen bero-transmisio eredu parametrikoki bat garatzea, ezaugarri geometriko eta termikoen arabera.

2.4.2.4. Helburua Barneko isolamendu termikoko esku-hartze bideragarrien bidez hormetan ematen diren galera termikoak murrizteko potentziala zehaztea.

2.4.2.3. Azterketaren metodoa

Atal honek garatutako azterketa esperimentalen eta simulazioan oinarritutako azterketerako erabili diren metodoen deskribapenarekin jarraituko du.

Lehenik eta behin eroankortasun termikoko saiakuntzen deskribapena burutuko da. Horretarako, erabili den metodo bat UNE-EN ISO 8990 [37] oinarritutzen da. Saiakuntza hau, gordetako kutxa beroa deiturikoa, 2.23. Irudiaren bitartez deskribatzen da. Funtzionamenduaren printzipioa aztertu beharreko hormaren bi aldeetan tenperatura desberdintasun egonkorra lortzean oinarritzen da. Hau da, erregimen egonkorra lortzen da eta aztertutako materialaren arabera, bero fluxu zehatz bat zeharkatuko du lagina. Lortutako tenperatura desberdintasunaren, zeharkatutako bero fluxuaren eta laginaren lodieraren arabera, materialaren erresistentzia termikoa eta ondorioz materialaren eroankortasun termikoa hurrengo espresioen bitartez lortu daiteke:

non:

$$R_c = \frac{T_{si} - T_{se}}{\Phi/A} = \frac{\Delta T}{\Phi/A}$$

$$\lambda = \frac{e}{R_c}$$

R_c = laginaren erresistentzia termikoa, $m^2 K/W$

T_{si} = barrualdeko azalerako tenperatura, K

T_{se} = kanpoaldeko azalerako tenperatura, K

ϕ = fluxu termikoa, W.

A = neurketa-azalera da, bero-fluxuaren perpendikularra, m^2 .


e = laginaren lodiera, m

λ = eroankortasun termikoa, W/m K

Saiakuntza burutzeko kutxa hotza 0° -ko tenperatura ezartzen da eta kutxa beroan eta neurketarako gordetako kutxan 20° -koa. Sortutako bero fluxua neurtzeko, kutxa beroan gordetako beste kutxa bat dago. Honek kutxa beroaren tenperatura berdina du, beraz kutxa honek sortutako beroa lagina zeharkatzen duen beroa da.


Hormaren alde bakoitzaren tenperaturak T motako (kobre-constantan) termopare zundekin neurtzen dira. Guztira 64 zunda erabiltzen dira: 16 alde beroaren aire tenperaturarako, 16 alde beroaren azal tenperaturarako, 16 alde hotzaren azalerako tenperaturarako eta 16 alde hotzaren aire tenperaturarako. Zunda hauen kokapena bi taldeetan zatitzen dira, alde batetik gordetako kutxaren baldintzak neurtzeko eta bestetik kutxatik kanpoko baldintzak neurtzeko. Hau da, 16 zunda multzo bakoitza 8+8 zundetan banatzen dira, 2.24. Irudia. Honen helburua gordetako kutxa beroaren

eta eraztunaren arteko temperatura desberdintasunik eta horrela bi dimentsioko bero transmisio fenomenoak gertatu ez daitezzen ziurtatzea da. Gainera, kutxak hormaren bi aldeetan hezetasun eta temperatura zunda konbinatuak eta aire abiadura zundak ditu datu gehigarriak lortzeko.



- ▲ Temperatura zunda
- ▲ Hezetasun eta temperatura zunda(2): Egonkortasuna $\pm 0,1$ °C
- ◆ Aire abiadura zunda (2): 0 - 4 m/s
- Hormaren termoparea (16)
- Aireko termoparea (16)

2. 23. Irudia- Gordetako kutxa beroa saiakuntzaren eskema.



2. 24. Irudia- 16 temperatura zundeen banaketa gordetako kutxa beroaren neurketa azaleraren barrualdean eta kanpoaldean.


Gordetako kutxa beroan burutu ziren saiakuntzen prozedura 2.25.irudian ikus daiteke. Lehenik eta behin aztertzeko harrien bilketa prozesua Donostiako Udal Materialen biltegian egin zen (1), Ingurumen Sailaren Energia Eraginkortasun Atalaren bidez lortutako baimenaren bidez. Ondoren, materiala Gasteizko Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laborategira (EKKL) garraiatu zen eta han hormen laginak eraiki ziren (2). Hormak eraiki direnean, 23°C-ko eta % 50eko baldintza kontrolatuan mantentzen dira ganbera klimatiko baten bitartez laginen hezetasunaren edukia

egonkortzeko eta eraikuntza hezetasuna desagertu dadin (3). Oreka pisua lortzen den unean, laginak saiakuntza ekipamenduan sartzen dira proba egiteko (4). Ekipamenduaren barnean, laginaren bi aldeetan, tenperatura-zundak eta bero-fluximetroak instalatzen dira fluxuaren egonkortasuna egiaztatzeko (5). Azkenik, proba burutu eta gero, sentsoreekin erregistratutako datuak biltzen dira hormaren erresistentzia balioa eta bere eroankortasun termikoa lortzeko.




2. 25. Irudia- Gordetako kutxa beroan burutu den prozedura hormen saiakuntzak garatzeko (1- Materialen garraioa Donostiako biltegitik Gasteizko Laborategira, 2- Hormen eraikitzea, 3- Hormen lehortzea, 4- Saiakuntzarako ekipamenduaren irekitzea, 5- Zundak instalakuntza, 6/7- Hormen lodiera, 8- Kareharrizko horma).

Bestalde, gordetako kutxa beroaren metodoarekin lortutako emaitzak egiaztatzeko eta proba-kostu baxuko metodo experimental bat garatzeko, ekipamendu experimental propio bat garatu da, 2.25. Irudia. Eragiketa-printzipioa gordetako kutxa beroaren berdina da, bi tenperatura baldintza ezartzen dira laginaren bi aldeetan. Hala ere, kasu honetan, beroa kalibratutako bero-fluximetro baten bidez neurtzen da.



2. 26. Irudia- Materialen eroankortasun termikoa zehazteko garatutako ekipamenduaren diseinua.


Kontrol kutxaren xehetasunak 2.27.Irudian kontsultatu daitezke. Oro har, kutxa bi funtzioak ditu, alde batetik kutxen baldintza termikoak PID regulazio baten bitartez (A) eta beste aldetik zundekin lortutako temperatura eta bero fluxuaren balioak erregistratu Kode Irekiko garatutako sistemarekin (E).





2. 27. Irudia- Kontrol panelaren funtzionamenduaren diagrama

Guztira 16 temperaturako sensore erabili dira eta balio hauek biltzeko CD74HC4067 multiplexadorea (F) erabili behar izan da erabilitako mikrokontrolagailuaren sarrera analogikoak mugatuak direlako. Honek sarrera analogiko bakarrarekin 16 seinale

analogiko arte neurtzea ahalbidetzen du, 2.28. Irudia. Tenperatura sentsoreei dagokionez, MF5B-10K 1% NTC termistoreak erabili dira. Zunda mota hau erabiltzearen arrazoia bere lodiera txikia eta laginarekin kontaktu ona eskaintzen duen posibilitateari da, 2. 29. Irudia. Sentsoreen erresistentzia-balioa aldakorra da neurketa-tenperaturaren arabera, beraz, aldaketaren erantzun-kurba jakiteak tenperatura-balioa lortzea ahalbidetzen du. Horretarako, lehenik eta behin, doitasun handiko erreferentzia erresistentzia batekin (10kOhm + 0.1%) tentsio-zatitzaile bat eraiki behar da NTCren tentsio-jauzia neurtzeko eta hortik erresistentzia balioa lortzeko. Tentsio-zatiketa hau zunda bakoitzerako garatu egin behar da multiplexadoreak sentso bakoitzaren tentsio-jauzia neurtzea lor dezan.



2. 28. Irudia- CD74HC4067 multiplexadorerako eta NTC tenperatura zundeentzako garatutako PCB plaka eta tentsio-zatitzaile eskema.



2. 29. Irudia- Erabilitako NTC tenperatura zunda eta erantzun kurba tenperaturaren arabera.

NTCaren erresistentzia balorea neurtu ondoren Steinhart-Hart espresio sinplifikaturarekin, β parametroaren ekuazio bezala deiturikoa ere, tenperatura lortzen da:



$$T = \frac{\beta \cdot T_o}{\beta + \left(T_o \cdot \ln \left(\frac{R_T}{R_o} \right) \right)}$$

non:

T= neurtutako tenperatura, K.


T_o= zundaren erreferentzia tenperatura, K

R_T =neurtutako zundaren erresistentzia balorea, Ohm.


R_o = tentsio-zatitzaile erresistentziaren erreferentzia balorea, Ohm.

β = zundaren koefizientea.

Azkenik, erabilitako bero fluxu sentsorea Ahlborn Typ 118 modeloa da. Bere dimentsioak 120x120x1.5 mm dira fitxa teknikaren arabera neurtutako mV bakoitzako <15 W/m² dagokio %5 doitasunarekin. Zunda bakoitzak mV-W/m² erlazio zehatz bat eskaintzen du, beraz, kalibrazioa funtsezkoa da. Horretarako Gasteizko EKLLan bero fluxu neurgailu ekipamenduekin zunda kalibratu zen, 2.30.irudia. Lortutako emaitzak 2.31.irudian ikus daitezke lortutako batez besteko tenperaturaren arabera. Kalibrazio koefiziente lortu ondoren, posible da lagina zeharkatzen duen bero fluxua neurtzea zundak sortutako tentsio-diferentzia balioak erregistratuz.



2. 30. Irudia- NETZSCH HFM 436 bero fluxu neurgailu ekipamendua bero-fluxu sentsorearen kalibrazioarentzat.




2. 31. Irudia- Bero-fluxu sentsorearen kalibrazio emaitzak temperaturaren arabera.

Garatutako ekipamenduaren eraikin pozedura 2.32.Irudian ikus daiteke. Kutzaren egitura taula aglomeratuekin garatuta (1), kutxaren aurpegi bakoitza 60 mm-ko XPS isolamendu termikoarekin isolatu zen eta bi aldetan Peltier oinarritutako bero eta hotz sistemak instalatu ziren (2). Kontrol kutxan Peltier sistemak kontrolatzeko PID kontrolagailuak eta egoera solidoko erreleak (SSR) instalatu ziren eta, halaber, Kode Irekian oinarritutako datu eskuratzaille sistema (3-6). Garabi-beso bat erabiliz laginak ekipamenduan sartzen dira (7-8). Garatutako ekipamendu osoa (9) alde batetik bestera erraz mugitu daiteke behe aldean instalatuta dituen gurpil batzuen bidez. Garatutako PCBa multiplexadorearekin (10) kontrol kutxaren (11) ondoan dago. Kontrol kutxak PID kontroladoreen bidez kutxaren bi aldeetako temperaturak ezartzeko aukera ematen du eta sentsoreek (12) erregistratutako balioen jarraipena egitea ere.

Atal honen alde experimentalaren deskribapena alde batera utzita, simulazioaren bitartez burutu den azterketarekin jarraituko da. Garatutako saiakuntzekin aztertutako eremuaren harrien ezaugarri termikoak lortuko dira. Hala ere, atal honen sarreran deskribatu den bezala, hormak lodiera eta konposizio oso desberdina izan dezakete. Gainera, inguratzaile termikoen azterketa egin ahal izateko kontuan izan behar dira inguratzaileetan aurki daitezken elementu guztiak, hala nola, leihoak eta egurrezko habeak. Hauek hormetan gertatzen den bero galera areagotu egiten dute, beraz kontuan izatea garrantzi handikoa da.

Simulazio azterketaren bidez eraikitako ondarearen inguratazilearen elementu bereizgarrienaren karakterizazio termikoa lortzea du helburu, hau da horma nagusiak. Emaitzek eraikin mota hauetan aurki daitezkeen edozein kasuistika definitzeko gaitasuna izan behar dute. Beraz, garatu behar den simulazio eredia adierazgarria izan behar da.




2. 32. Irudia- Eroankortasun termikoa neurtzeko ekipamenduaren eraikuntza prozesua.

Kasu sorta zabala biltzeko beharra dela eta, ez da komeni ezaugarri termiko eta geometria zehatz batean azterketa bideratzea emaitzen helmena asko murriztu baitezake. Horren ondorioz ahalik eta eredu konfiguragarrien baten garapena kasu kopuru zabalarari aurre egiteko aukera emango du. Beraz, simulazio eredu geometria eta ezaugarri parametrikotan oinarritzen bada beharrezko emaitzak lortzea posible izango da.

Simulazio ereduaren eskakizunak kontuan hartuta, Comsol Multiphysics softwarea bero transferentzia ereduarekin erabiltzea egokitzat hartu da. Software honen erabiltzea, 3 dimentsioko eredu konplexuak garatzea ahalbidetzeaz gain, geometria berarekin eredu parametrikokoak garatzeko aukera ematen du. Beste azpimarratu behar den alderdi garrantzitsu bat softwarea eraikineko zubi termikoen UNE-EN ISO 10211 [38] arauaren arabera balidatuta dagoela [39].

Lehenik eta behin, eredu garatzeko azterketaren elementuaren zati adierazgarri bat kontuan hartu behar da. Beste aldetik, hautatutako geometria ahalik eta sinpleena izan behar da simulazio-denbora luzaroan luzatu ez dadin eta eredu oso astuna


saihestu ahal izateko. 2.33. Irudia horma nagusien 3 dimentsioko irudikapena erakusten du, hau da hormaren zati opakua eta zati erdi-gardena, hala nola balkoia eta barrualdeko egurrezko habe egiturak eta zorua. Simulazio-eremua, itzalpe gorriarekin markatua, simulazioaren elementu geometriko minimoa adierazten du, beraz azterketarako kontuan hartuko den eredia izango da.




2. 33. Irudia-Simulazio ereduaren zati hautaketa.

2. 34. Irudian xehetasunez ikus daiteke hormen, leihoen eta egurrezko habeen buruen junturak. Kontuan izan behar da ereduaren leihoaren geometria sinplifikatuta dagoela kalkulu-sarearen konplexutasuna handitu ez dadin. Horretarako, leihoa sinplifikatu egin da, garatutako leihoaren geometriaren eroankortasun termikoa baliokidea erabili da, hau da benetako marko eta beira osoan zeharkatuko lukeen beroa kontuan hartuko balitz bezala. Leiho baliokidearen propietate termikoak aukeratzeko oso zabaldua den modelo bat kontuan hartuko da. Alde batetik, erabilitako beirari dagokionez Beira Unitate Isolatzaile (BUI) bat erabiliko da, 16 mm-ko aire kamerarekin eta emisibitate baxuko xflarekin. 2. 35. Irudia ikusten den bezala, lamina baxu emisiboa duten BUIen transmitantzia termikoa asko hobetzea lortzen dute, gainera agerian uzten da kamerak 16 mm lodiera arte bero galerak murrizten dutela, balio hau baino gehiago duten kamerak ez dute ezaugarri termikoak hobetzen. Erabiliko den BUIen transmitantzia termikoa $U_g=1.4 \text{ W/m}^2\text{K}$ izango da. Beste aldetik, leihoaren markoaren materiala egurrezkoa izango da oro har ondarearen eraikinetan material zabalduena delako. Azken urteotan egurrezko leihoak teknikoki asko aurreratu dute egurrezko markoak aire kamerekin adibideetako bat izanik. Hala ere, kasu honetan, erabilera hedatu baten markoa

kontuan hartuko da eta horren transmisio termiko termikoen balioa, BUIen bezala, $U_f=1.4 \text{ W/m}^2\text{K}$ normalean kontuan hartu daiteke [40].



2. 34. Leiho eta hormaren arteko elkargunearen xehetasun konstruktiboa.



2. 35. Irudia-Beiren transmitantzia termikoa (U_g) aire kameraren lodieraren eta betegarriko gas motaren arabera [41].

UNE-EN ISO 10077-1 [42] arauak ezartzen duen bezala, leihoaren transmitantzia termiko osoa (U_w) hurrengo espresioaren bitartez kalkulatu daiteke:

$$U_w = \frac{\sum A_g U_g + \sum A_f U_f + \sum l_g \psi_g}{\sum A_g + \sum A_f}$$

non:

U_g = beiraren transmitantzia termikoa, $\text{W/m}^2\text{K}$

U_f = markoaren transmitantzia termikoa, $\text{W/m}^2\text{K}$

A_g = beiraren azalera, m^2

A_f = markoareazalera, m^2


ψ_g = Beira, hutsunea eta markoa eragindako transmitantzia termiko lineala duten efektu termiko konbinatuagatik, W/mK

l_g = transmitantzia termiko linealaren luzeera,
m


Ikus daitekeen bezala U_w geometriaren arabera da eta kalkulatu nahi den simulazio eredu parametrikoa izango denez, honek ere izan beharko luke. Hala ere, kontuan izan behar da leihoaren modelaketa errealitatearen sinplifikazioa dela. Gainera, kalkulua egiterakoan leiho bakarreko eredu egiten da, beraz honi esker jakin daiteke sortzen dituen bero galerak eta bero eredu guztian sortzen diren galerei leihoaren galerak kentzen zaizkio. Beraz, lortu nahi den helbururako ez da beharrezkoa kalkulo zehatza garatzea. Hori dela eta, beiraren eta markoaren transmitantzia termikoa berdinak direnez, $U_f = U_g = 1.4 \text{ W/m}^2\text{K}$, eta transmitantzia termiko linealaren efektua baztertuz azaldu den arrazoiagatik, simulazio eredurako kontuan hartu beharko den leihoaren transmitantzia termikoa $U_w = 1.4 \text{ W/m}^2\text{K}$ izango da. Azkenik, eroankortasun termiko baliokidea kalkulatzeko 24mm-ko lodiera kontuan izango da, hau da BUIaren lodiera. Beraz, azaleko erresistentzia termikoak $0.13 \text{ m}^2\text{K/W}$ (barrualdekoa) eta 0.04 (kanpoaldekoa) $\text{m}^2\text{K/W}$, leihoaren eroankortasun baliokidea $\lambda_{eq} = 0.0441 \text{ W/mK}$ da.

Beste aldetik, softwarearen kalkulu potentziala aprobetxatuz, Barne Isolamendu Termikoko Sistemen (BITS) bidez lortu daitekeen bero galeren murrizketa neurtzeko eredu gehigarri bat garatuko da. Honek garatutako ereduari, 2. 36. Irudian ikus daitekeen bezala, isolamendu termikoa gehitzen dio barneko hormaren azalean. Aipatzekoa da zubi termikoak murriztu ahal izateko azalera guztia estaltzen dela eta leihoaren ondoan dagoen egurrezko zorua isolamenduarekin ere ordeztu dela, bestela inguratzailearen puntu ahul batean bihurtuko litzateke. Kasu honetarako ere erabilitako materialen geometria eta ezaugarri termikoak parametrikokoak izatea munta handikoa da emaitzek emaitzak ahalik eta orokorgarria izan daitezen eta horrela material desberdinekin garatutako azterketak eredu honekin lortutako emaitzetan oinarritu ahal daitezen.

Azkenik simulazio ereduaren mailatuaren doitzea burutzeko geratzen da. Horretarako maila-moldagarri xehea ezartzen da fisikaren arabera. Ikus daitekeen bezala, 2.26. Irudia, barrualdeko igeltsu akaberan eta leihoaren inguruan maila egokitzen duen xehetasuna askoz handiagoa da. Modu honetan, mailaren elementu gutxieneko tamaina zehaztutako geometriaren gutxieneko tamainari doitu dadin lortzen da.



2. 36. Irudia- Proposatutako birgaitze energetikorako simulazio eredu parametrikoren xehetasuna Barne Isolamendu Termikoko Sistemarekin (BITS).




2. 37. Irudia-Simulazio ereduaren maila.

2.4.2.4. **Emaitzak eta eztabaida**


Hurrengo atala harrien saiakuntzen lortutako emaitzak aztertuko ditu eta garatutako ingurutzaila termikoaren bero transmisio ereduaren simulazioarekin bukatuko du. Lehenik eta behin hareharriko eta kareharriko gordetako kutxa bero saiakuntzetan lortutako emaitzak aztertuko dira. Ondoren garapen propio saiakuntzarekin lortutako emaitzekin jarraituko da.

2.38. eta 2.39.Irudiak lortutako tenperatura profilak erakusten dute. Ikusten den bezala alde beroaren kutxa 20°C ezarri ziren, berriz, kutxa hotzean 0°C. Ondorioz eta lagin bakoitzaren erresistentzia termikoaren arabera, azaleko tenperaturak aldatzen

dira, bero aldeko azalekoak jaisten dira eta hotz aldeko azalekoak igotzen dira (aire temperatura erreferentzia hartuta). Temperatura guztietan zehar lortutako egonkortasun termiko handia ikus daiteke. Ez dago aldakuntza nabarmenik, laginetan erregimen termiko iraunkorra lortzen da, beraz, datuen bilketan eragin dezakeen inertzia termikoaren efektua saihestu da ere.




2. 38. Irudia- Gordetako kutxa beroaren saiakuntzan lortutako temperatura profilak hareharrizko horman.




2. 39. Irudia- Gordetako kutxa beroaren saiakuntzan lortutako temperatura profilak kareharrizko horman.

Laginen bi aurpegietan lortutako temperaturen jausia eta gordetako bero kutxa sortutako fluxu termikoaren dentsitateak 2.40. eta 2.41.Irudietan irudikatzen dira. Emaitzak oso antzekoak dira, kareharrizko laginean lortutako temperatura jausia apur bat handiagoa izanez eta hareharrizko kasuan bero fluxua pixka bat handiagoa izanez.




2. 40. Irudia- Gordetako kutxa beroaren saiakuntzan lortutako temperatura jauzia eta bero fluxua hareharrizko horman.




2. 41. Irudia- Gordetako kutxa beroaren saiakuntzan lortutako temperatura jauzia eta bero fluxua kareharrizko horman.

Azkenik, laginen tenperatura jauziak eta zeharkatzen den bero fluxuak ezagututa, laginen erresistentzia termikoa lortu daiteke. Horretarako, gordetako bero kutxaren arauak adierazten duen bezala, saiakuntzaren emaitza lortzeko erresistentzia termikoaren kalkulaturako balioa gutxienez 3 ordutan ezin du %1 baino gehiago aldatu. 2.42. eta 2. 43.Irudiek erresistentzia termikoen emaitzak erakusten dute. Emaitzen beharrezko %1eko egonkortasuna 3 ordutan baino denbora luzeagoz izatea lortu da eta hareharriaren eta kareharriaren hormen kalkulaturako erresistentzia termikoak honako hauek izan dira, $R_{\text{hareharria}} = 0.06667 \text{ m}^2\text{K/W}$ eta $R_{\text{kareharria}} = 0.07396 \text{ m}^2\text{K/W}$.



2. 42. Irudia- Gordetako kutxa beroaren saiakuntzan lortutako erresistentzia termikoa hareharrizko horman.




2. 43. Irudia- Gordetako kutxa beroaren saiakuntzan lortutako erresistentzia termikoa kareharrizko horman.


Ondoren, garatutako saiakuntza metodo propioarekin lortutako emaitzekin jarraituko da. Sistema honen helburua gordetako kutxa beroan lortutako emaitzak egiaztatzea eta materialak termikoki karakterizatzeko beharrezkoak diren baldintza teknikoak (laginen kopurua, saiakuntza denbora, laginen eraikuntza...) murrizteko metodologia bat garatzea zen. Horretarako lagin baten saiakuntza besterik beharrezkoa da, beraz kasu honetan hareharrizko lagina erabiltzea hautatu zen.

Arestiko kasuetan bezala, lortutako tenperatura profilak, bero fluxua eta kalkulaturako erresistentzia termikoa 2.44., 2.45. eta 2.46.Iruidietan erakusten dira. Aipatzekoa da kasu honetan bero fluxua neurtzeko metodoak, hau da bero fluxu zundak, sentikortasun handia duela, beraz edozein aldakuntza arina detektatu daiteke 2.45.Irudiak irudikatzen duen neurtutako erdialdeko erregistroekin gertatzen denaren antzera. Hala ere, aldakuntza txiki honek ez du nabarmeneko eraginik emaitzetan, 2.46.Irudia. Garinera, gehitzakoa da kasu honetan, saiakuntza


ISO 9869an oinarritzen denez, emaitzen aldakuntzaren balioen mantendu behar den muga gordetako kutxa beroaren saiakuntzaren muga baino handiagoa da. Arauak ezartzen duen bezala, erresistentzia termikoaren balioaren egonkortasuna 24 orduz %5ekoa izatea beharrezkoa da. 2.46. Irudian ikus daitekeen bezala muga hori ez da bakarrik betetzen, gordetako kutxa berorako beharrezkoa den 3 orduko %1eko egonkortasuna ere betetzen da. Beraz, garapen propio saiakuntzarekin lortutako emaitza hareharrizko laginaren kasuan $R_{\text{hareharria}} = 0.07102 \text{ m}^2\text{K/W}$.



2. 44. Irudia- Saiakuntzan lortutako tenperaturen profilak



2. 45. Irudia- Saiakuntzan lortutako batez besteko tenperatura jauzia eta bero fluxua.



2. 46. Irudia- Erresistentzia termikoa saiakuntzan zehar.

ISO 9869 arauaren arabera, saiakuntza metodo honekin lortutako emaitzen ziurgabetasun hurrengo faktoreen arabera da:

- Bero fluxuaren kalibrazioaren zehaztasuna. Ohiko errorea, ondo kalibratuta, %5ekoa da.
- Laginaren azaleraren eta sentsoreen arteko kontaktua. Bariazio hau %5 ingurukoa izan ohi da eta bero-fluxu zunda kopuru erabiltzen badira bariazio hau murriztu daiteke.
- Bero-fluxuen zundaren presentziaren ondorioz sortutako temperatura-profilaren aldaketan akatsak. Hondar-errorea %3koa da.
- Temperaturen eta bero fluxuen sortutako aldakuntzak zehaztasunaren balioan efektua dute. Errore hauek murriztu daitezke saiakuntzaren denbora epea luzaroan egiten ba da. Hala ere, efektu honen ondorioz sortutako errore handiena % 10ekoa da.

Beraz, saiakuntza metodo honen ziurgabetasuna $e = \sqrt{5^2 + 5^2 + 3^2 + 10^2} = 13\%$ da.

Emaitza orokorrak aztertuz, Aipatzekoa da eta espero zen bezala, gordetako kutxa beroak egonkortasun handiagoa eskaintzen du saiakuntzaren baldintza termikoetan garatutako saiakuntza propioarekin alderatuta. Emaitzen desbiderapen estandarra (σ) oso txikia da neurtutako parametro guztietan, eta horren ondorioz emaitza finalaren ziurgabetasun ere txikiagoa da, %5ekoa izanez. Beste aldetik, garatutako saiakuntza metodoarekin lortutako baldintza termiko ere egonkortasuna izan arren, lortutako baloreak pixka bat altuagoak dira. Horren ondorioz, kasu honetan emaitza finalaren ziurgabetasuna %13a da.

2.9.Taula, lortutako materialen eroankortasun termikoa ikus daiteke. Alde batetik, gordetako kutxa beroko emaitzei dagokionez eta arauak eskaintzen dituenekin alderatuta, 2.8.Taula, hareharriaren eroankortasunaren aldea nabaria da. Arauak



eskaintzen duen balioa $\lambda = 3 \text{ W/mK}$ eta gordetako kutxa beroaren saiakuntzaren balio $\lambda = 1.50 \text{ W/mK}$, beraz bata eta bestearen aldea %50 da. Garapen propioko saiakuntzarekin lortutako emaitza finala $\lambda = 1.41 \text{ W/mK}$ da, beraz saiakuntzaren ziurgabetasuna kontuan izanda ($\pm 0.162 \text{ W/mK}$) gordetako kutxa beroarekin lortutako emaitzarekin bat dator. Azkenik, kareharriko emaitza $\lambda = 1.62 \text{ W/mK}$ izan da, beraz arauaren "kareharri gogorra"-ren eroankortasun termiko $\lambda = 1.70 \text{ W/mK}$ balioaren antezkoa da.

Aipatzekoa da eta espero zen bezala, gordetako kutxa beroak egonkortasun handiagoa eskaintzen du saiakuntzaren baldintza termikoetan garatutako saiakuntza propioarekin alderatuta. Emaitzen desbiderapen estandarra (σ) oso txikia da neurtutako parametro guztietan, eta horren ondorioz emaitza finalaren ziurgabetasun ere txikiagoa da, %5ekoa izanez. Beste aldetik, garatutako saiakuntza metodoarekin lortutako baldintza termiko ere egonkortasuna izan arren, lortutako baloreak pixka bat altuagoak dira. Horren ondorioz, kasu honetan emaitza finalaren ziurgabetasuna %13a da.

2.9. Taula- Hareharrizko eta kareharrizko eroankortasun termikoen emaitzan saiakuntza metodoaren arabera.

Datos	GORDETAKO KUTXA BEROA				GARAPEN PROPIOKO SAIKUNTZA			
	KAREHARRIA		HAREHARRIA		KAREHARRIA		HAREHARRIA	
	Balioa	σ	Balioa	σ	Balioa	σ	Balioa	σ
Alde hotzaren temperaturak								
θ_{ce} (airea) °C	0.13	± 0.08	0.06	± 0.07	16.20	± 0.29		
$\theta_{se,sur}$ (horma) °C	4.43	± 0.06	3.96	± 0.03	25.57	± 0.21		
Alde beroaren temperaturak								
θ_{ci} (airea) °C	19.46	± 0.04	19.70	± 0.03	41.73	± 0.20		
$\theta_{si,sur}$ (horma) °C	12.74	± 0.06	12.34	± 0.03	31.78	± 0.20		
ΔT_m (azaleko tenperatura jauzia) °C	8.51	± 0.01	8.39	± 0.01	6.17	± 0.07		
q_{sp} (laginaren fluxu termikoaren dentsitatea) W/m^2	115.09	± 0.96	125.79	± 1.58	86.85	± 0.30		
R_m (neurtuta) $(\text{m}^2\text{K})/\text{W}$	0.074	± 0.001	0.067	± 0.001	0.071	± 0.001		
ΔR_m (neurketaren ziurgabetasuna) $(\text{m}^2\text{K})/\text{W}$		± 0.004		± 0.003		± 0.009		
e (laginaren lodiera) m	0.12		0.10		0.10			
λ W/mK	1.62	0.083	1.50	± 0.071	1.41	± 0.162		

Emaitza esperimentalak lortu ondoren simulazio azterketarekin jarraitzen da. Lehenik eta behin lortutako materialen eroankortasun termikoak baliatuz lehengo azterketa ereduaren lodieraren arabera (kanpoaldeko harlandua eta barruko harlangaitza) izango da. Horretarako 2.10.Taulan erakusten diren parametroen ezaugarriekin burutuko da simulazioa.


Simulazio eredu honetan, guztira 16 kasu kalkulatu dira, 2.48.Irudia. Aurreikusten den bezala, transmisio termiko altuena horma lodiera txikiagoekin lortzen da eta galera termiko txikiak lodiagoak diren kasuetan gertatzen dira. Balio minimo eta maximoen arteko desberdintasuna, $U=1.98 \text{ W/m}^2\text{K}$ eta $U=2.48 \text{ W/m}^2\text{K}$, ez da oso nabarmeneko berez hormaren materialak ez dutelako erresistentzia termiko handirik. Beraz, horma hauek gaitasun isolatzaile gaitasun falta dute.

2.10. Taula-Simulazio parametrikoaren eredurako kontuan izan diren parametroen ezaugarriak lortutako harrien eroankortasun termikoen emaitzen arabera aztertu ahal izateko.

Parametro	Balio-tartea	Urrats - balioa	Kasu kopurua	Kasu guztien kopurua
Kanpoaldeko harladuzko hormaren lodiera (m)	0.2-0.35	0.05	4	16
Barrualdeko harlangaitzeko hormaren lodiera (m)	0.2-0.35	0.05	4	

Emaitza hauen bitartez, aztertutako eremuaren edozein lodierako hormak aztertu nahian, grafiko honekin transmisio termiko balioak eskuratzea ahalbidetzen da. Hala ere, zuzenean iruditik zaila da balio zehatz bat lortzea, beraz lortutako emaitzen doikuntza tekniken bidez modu zehatzago batean hormak kuantifikatu ahal izateko metodo bat eskaintzen da.

Karratu txiki bidezko doikuntza-metodoaren bitartez, lortutako emaitzak funtzio batekin doitu daitezke. Parametro kopuru gutxi duten funtzioak erabiltzeko beharra kontuan hartuta, Lorentzian funtzioa zehaztasunez doitzen da lortutako emaitzekin.




$$z = z_0 + \frac{A}{\left[1 + \left(\frac{x - x_c}{w_1}\right)^2\right] \left[1 + \left(\frac{y - y_c}{w_2}\right)^2\right]}$$


2. 47. Irudia- Karratu txiki bidezko doikuntzarako Lorentzian funtzioa.

2.48. Irudian ikusten den bezala, doiketa funtzioaren parametroen balioa erakusten da, hala nola doikuntzaren R² balioa. Aipatu den bezala funtzio honen bidez, lortutako emaitzen doikuntza oso egokia lortzen da, R²=0.99496 balioa lortuz.


Emaitza grafikoei dagokionez eta 0.70 metro lodierako kasua adibide bezala kontuan hartuta, zubi termikoen duten efektua inguratzailearen bero galeretan 2. 49. Irudian ikus daitezke. Irudian honetan, garatutako ebaketa bertikala eta horizontalekin, bereiz daitezke egur habe buruetan (A) eta leiho markoan (B) gertatzen den bero fluxuaren igoera. 2.50. Irudiak garbiago erakusten du fluxu termikoak hartzen duen ibilbidea, hau da zona hauetan bi eta hiru dimentsioko fluxua gertatzen da eta horren ondorioz galera termikoak areagotzen dira.



2. 48. Irudia- Hormaren transmisio-termiko baliokidea kanpoko eta barruko hormaren lodieraren arabera (Hareharriaren eta kareharriaren eroankortasun termikoak $\lambda=1.50$ eta $\lambda=1.62$ W/mK izanda).




2. 49. Irudia- Fluxu termikoa (W/m^2) zubi termikoetan 0.70 metro lodiko hormaren kasuan (A: egurrezko habeen buruak B: leihoaren eta hormaren arteko elkargunea).




2. 50. Irudia- Bero-fluxuaren ibilbidea simulazio ereduaren zubi termikoetan (A: Leihoaren kargahabea, B:, Leihoaren markoaren perimetroan eta horman gertatzen den dimentsio bakarreko fluxu termikoa C: Leihoaren markoaren perimetroan)

Zubi termiko hauen efektuaren emaitza 2.51.irudian ikus daiteke inguratzaile termikoaren azaleraren transmitantzia termikoen desberdintasunen bitartez. Kasu honetan ere, leihoaren inguruan gertatzen den bero fluxuaren areagotzea transmitantzia termikoaren balio altuagoan bihurtzen da, hau da zubi termikoaren efektua kontuan hartzen da. Beste aldetik, egurrezko habeen eragina ez du hainbeste eraginik. Gertaera termiko honen kuantifikazioa, arestian kalkulaturako transmitantzia termiko baliokidearekin lortzen da, hau da zubi termikoetatik eta hormatik zeharkatzen den beroa kontuan hartzen duen parametroa.



2. 51. Irudia-Inguratzaile termikoaren transmitantzia termikoa (W/m^2K) puntu bakoitzatik zeharkatzen den fluxu termikoaren arabera.

Azkenik, transmisio termiko baliokidea dimentsio bakarreko transmisio termikoarekin alderatzen bada, ikus daiteke zubi termikoek sortzen duten parametroaren handitzea %14.72tik %29.85era dela, 2.52.Irudia.



2. 52. Irudia- Transimio termiko ehuneko handitzea dimentsio bakarreko transmisio termikoarekin alderatuta.


Aurreko simulazioaren printzipioa jarraituz, hormen loditasun eta materialen eroankortasun termikoen arabera ereduak garatu dira ere. Hau da, aurreko eredu parametrikoa saiakuntzetatik lortutako eroankortasun termikoetara mugatuta zegoen. Beraz, hurrengo simulazio parametrikoekin ingurutzailer mota honen karakterizazio termikoaren helmena hedatzen da.

Lehenik eta behin, 2.11.Taulan ikus daitekeenez, simulatutako kasuen bolumena nabarmen handitu da parametro kopurua ere handitu duelako, guztira 672 simulatutako kasuak izanez. Alde batetik, parametroen tartekak emaitzak adierazgarriak izan daitezzen erabaki da. Beste aldetik, urrats balioen aukeraketa, aldakuntzak leialtasunez adierazi ahal izateko eta aldi berean simulatutako kasuen kopurua asko ez handitzeko egin da. Prozedura hau ez jarraitzekotan, simulazioak behar duen kalkulu denbora eta sortutako datuen bolumena areagotu egingo litzateke.

2.11. Taula-Simulazio parametrikoren eredurako kontuan izan diren parametroen ezaugarriak hormen lodieraren arabera aztertu ahal izateko.

Parametro	Balio-tartea	Urrats - balioa	Kasu kopurua	Kasu guztien kopurua
Hareaharriaren eroankortasun termikoa (W/mK)	1.4-2	0.1	7	672
Kareharriaren eroankortasun termikoa (W/mK)	1.6-2.6	0.2	6	
Barruko hormaren lodiera (m)	0.2-0.35	0.05	4	
Kanpoko hormaren lodiera (m)	0.2-0.35	0.05	4	

2.53. Irudiak simulazio parametrikoen emaitza sorta bat erakusten da. Hau da, bakarrik kanpoaldeko harlanduzko horma lodiera eta barrualdeko harlangaitz horma lodiera berdinak dituzten kasuak erakusten dira. Kasu hauetan ere, emaitzak doitzen duten funtzioaren parametroak gehitzen dira. Emaitza hauei dagokionez, emaitza talde bakoitzarako balio minimo eta maximoen arteko desberdintasuna oso nabarmenekoa ez izan arren, A irudiaren emaitza maximoaren eta D irudiaren emaitza minimoaren arteko desberdintasuna esanguratsuagoa da. Emaitza hauek, simulazio kanpaina parametrikoren balio maximoa eta minimoa dira eta %57 diferentzia dago beraien artean. Talde bakoitzeko desberdintasuna dagokionez hurrengo balioak hartzen dute: A taldean %24, B taldean %27, C taldean %28 eta D taldean %30. Aipatu bezala, talde bakoitzaren desberdintasunak ez dira hain nabarmenekoak.



2. 53. Irudia-Hormaren transmisio-termiko baliokidea hareharriaren eta kareharriaren eroankortasun termikoaren eta horma lodieraren arabera (A: 0.4m B: 0.5m, C: 0.6m, D: 0.7m).

Simulazioen azken fasea Barne Isolamendu Termiko Sistemek (BITS) bero-galerak murrizteko duten eraginaren azterketan oinarritzen da. Kasu honetarako lodiera meheena duen horma aztertuko da kasu kaltegarriena kontuan hartu ahal izateko.


Erabilitako parametroak, 2.12.Taula, eraikuntzako material isolatzaileetan ohikoak izaten diren eroankortasun termiko desberdinak kontuan hartzeko aukera ematen dute hormaren kalkulu termikoak burutzeko. BITSetan 40 edo 60 milimetro lodierako isolamenduak erabiltzeko ohikoenak, eraikinaren azalera erabilgarri gutxiago galtzen baitute, izan arren, lodiera gehiagoko aukerak ere kontuan hartuko dira kasu berezien erantzun termikoa ere ezagutzeko.

Guztira 48 simulazio kasu burutu dira. Emaitzak eta doitze planoaren parametroak 2. 54. Irudian aurkezten dira. Nabari da BITSrekin lortzen den bero galeren murrizketa. Zehazki, jatorrizko emaitzekin alderatuta, (A) 2. 53. Irudiaren harearrirako $\lambda=1.50$ W/mK eta kareharrirako $\lambda=1.62$ W/mK balioak dituen erreferentzia, hau da $U=2.48$ W/m²K-ko kasua, birgaitza energetikoaren bitartez horman lortu daitekeen bero galera murrizketa %48 tik %92 bitartekoa da.

2.12.Taula- Simulazio parametrikoaren eredurako kontuan izan diren parametroen ezaugarriak hormen birgaitza energetikoen efektua aztertu ahal izateko.

Parametro	Balio-tartea	Urrats - balioa	Kasu kopurua	Kasu guztien kopurua
Isolamendu termikoaren eroankortasun termikoa (W/mK)	0.03-0.04	0.02	6	48
Isolamendu termikoaren lodiera (m)	0.02-0.16	0.02	8	

Hala ere, birgaitze energetiko orokor bat kontuan hartzen bada, hau da aipatutako 40-60 mm-ko lodierakoa, lortu daitezkeen transmitantzia termiko baliokidearen balioak 0.91 eta 0.59 W/m²K bitartekoak dira. Balore portzentualetan, erreferentzia kasuarekin alderatuta %63 eta %76 arteko murrizketa izango litzateke.



2. 54. Irudia- Proposatutako hormen barruko birgaitze energetiko sistemaren transmisio-termiko baliokidea isolamendu termikoaren eroankortasun termikoaren eta loditasunaren arabera (Hareharriaren eta kareharriaren eroankortasun termikoak $\lambda=1.5$ eta $\lambda=1.62$ W/mK eta jatorrizko horma guztiaren lodiera 0.4 m izanda).

2.4.2.5. Ondorioak

Lortutako emaitzek Eraikuntza Kode Teknikoaren (EKT) datu-baseak eskaintako hareharriaren eroankortasun termikoaren balioa altuegia dela erakutsi dute lan honetako ikerketa arloan erabiltzeko. Lortutako eroankortasun termikoa datu-baseak eskaintzen duena baina %50 txikiagoa da. Bestalde, kareharriaren kasuan, datu-baseak dentsitatearen arabera datu posibleen sorta handiagoa eskaintzen du. Kasu honetan, kareharrizko azterketen emaitzek antzekotasuna erakusten dute datu-basearen "caliza dura" deituriko harriarekin.

Saiakuntzen prozedurari dagokionez, bi metodoek azterketako harrizko objektuen propietate termikoak zehazteko aukera eman dute. Alde batetik, gordetako kutxa beroak aukera ematen du tenperatura oso egonkorra lortzeko laginaren bi aldeetan, honek fluxu termikoaren egonkortasuna eragiten du, eta beraz, kalkulaturako erresistentzia termikoan $\pm 5\%$ eko ziurgabetasuna dago. Aldi berean, eroankortasun termikoa zehazteko garatutako ekipoa emaitza koherenteak eskaini ditu kutxa beroaren probek erakutsi duten bezala. Kasu honetan, kutxaren alde hotzean egonkortasun termikoa lortzeko konplexutasun handiagoak daudenez eta bero-fluxua sentsore kalibratuaren bidez lortzen denez, emaitzek $\pm 13\%$ ko ziurgabetasuna erakusten dute. Horrek esan nahi du bi metodoen bidez lortutako hareharriaren eroankortasun termikoaren balioen arteko aldakuntza %6koa dela. Metodo honek abantaila bat erakusten du, izan ere, ez da beharrezkoa dimentsio handiko horma bat eraikitzea. Honek dirua eta denbora aurrezten du. Gainera, ekipamendua ikerketa honetan guztiz garatu denez, posible da jatorrizko diseinuan aldaketak egitea. Kasu honetan, Peltier zeluletan oinarritutako hozte sistemaren ordez kanpo zirkulaziorako aukera duen bainu termikoko ekipoa erabiltzea planteatzen da. Modu honetan, beroa transmititzen duen fluidoak kamara hotzaren barrutik pasa daiteke. Diseinu honen bitartez posible izango litzateke jatorrizko sistemaren arazoa saihestea. Hau da, truke azalera handituz eta tenperatura bulkada hain txikiak saihestuz, trukagailuan izotz blokeak sortzea saihestuko litzateke, eta ondorioz, ganberako hotz sistemaren funtzionamendu hobea lortuko litzateke.

Transmisio termikoaren eredu baliokideari esker posible izan da alde batetik egurrezko habeek eta beste aldetik leihoaren eta hormaren arteko topaketek sortutako zubi termikoak kontuan izatea eta horrela eragindako fluxu termikoaren gorakada detektatzea eta kuantifikatzea. Proposatutako dimentsio bakarreko parametroa erabiltzean posible izan da mota honetako topaketa espezifikoaren bi dimentsio eta hiru dimentsioko efektuak eranstea. Alderdi hau oso garrantzitsua da, izan ere, orokorrean eraikuntzen simulazio dinamikorako tresnek ez dute aukera ematen zubi termiko tridimentsionalak eranstea. Hauek ebaluatutako eraikinen



ezaugarri dira. Frogatu den bezala, zubi termikoen fluxu termiko osagarriaren efektuagatik hormen bero galera %14-%29 handitzen da.

Horma historikoen bero transmisioaren eredu parametrikokoak eta emaitzen azterketak posible egin dute katalogo bat garatzea doitze funtzioak erabiliz. Modu honetan, posible da hormen bero transmisioa zehaztea ezaugarri geometriko eta termikoen arabera. Garapen honek aukera eman du mota honetako eraikinen ohiko ezaugarrien arabera transmisio termiko balioekidearen aldakuntza minimoarekiko %57rainokoa dela zehazteko. Bestalde, materialen propietate termiko desberdinen efektua %24 eta %30 artean dago transmisio termiko gutxien eta horma lodiera berdina duen kasuarekin alderatuta. Gainera, simulazio parametrikoei lortu dute erakustea nola BITSen bidez oinarritutako esku-hartzeekin lortu daitekeen transmisio termikoaren murrizketa 40 eta 60 milimetro arteko isolamendu termikoaren ohiko lodierarekin %63 eta %76 bitartekoa izan daitekeela isolatu gabeko hormarekin alderatuta.

Atal honen ondorio bezala, zehaztutako materialen propietate termikoak datu-baseetan agertzen diren balioekiko oso desberdinak izan daitezke. Materialen jatorri naturalak konposizio askotarikoa izatea eragin dezake. Beraz, kasu honetan harrizko materialak erabiltzean nahiz eta mota berdineko harriak erabili bere ezaugarriak oso desberdinak izan daitezke erauzketa jatorria desberdina denean. Honek eragin zuzena du eraikinen karga termikoen kalkuluan eta energia hobetzeko proposamenak portaera errealekiko oso desberdinak izan daitezke. Horregatik, zalantzarik gabe, osagai opakuen karakterizazio termikoa oso garrantzitsua da hormetan harrizko materialak erabiltzen dituzten eraikin historikoen kasuan.

2.5. Ondorio orokorrak

Kapitulu honek eraikitako ondarearen ingurutzailer termikoen karakterizazioa zuen helburu gisa etorkizunean burutuko diren birgaitze energetikokoak gaur egun eraikin mota hauei buruzko informazio gabezia eskuragarri bihurtu dadin. Horretarako ikerketaren helmena Donostiako XIX. mendean diseinatutako Cortazar Zabalgunearen analisisian bideratu da.

Ingurutzailer termikoetan aire estankotasuna eta materialetatik gertatzen den bero transmisioa galera termikoen arduradun garrantzitsuenak direnez, bi parametro hauek kapitulu honetako azterketa objektu bihurtu dira. Helburu honekin saiakuntzak kapitulu honen zati nabarmena dira Blower Door Test eta eroankortasun termiko analisisien bitartez. Ingurutzailer buruzko ondorioak simulazio termikoekin lortutako emaitzekin zabaldu dira. Garatutako azterketa parametrikokoak kasu-azterketa bolumen handia aztertzei aukera eta emaitza ugari lortzea eskaini dute.

Bestalde, lortutako emaitzen eta karratu txikiaren bidezko doikuntza-metodoaren konbinazioa, eraikin mota honen portaera zehazteko ereduak garatzea ahalbidetu du, bai estankotasunarekiko galerak eta inguratzaileetan sortzen diren galera termikoak.

Beraz, emaitzen analisi orokorra aztertu ondoren, kapitulu honekin lortu diren ondorio zehatzak honako hauek dira:

- Aztertutako kasuen arabera, eraikitako ondarean aurkitu daitekeen aire estankotasunarekiko emaitza sorta zabala da. n_{50} adierazlea erreferentzia hartuz, lortutako emaitzak $0.68h^{-1}$ eta $37.12 h^{-1}$ balioen artekoan izan ziren eta bere baliokidea q_{50} erreferentzia hartutaz $0.50 m^3/hm^2$ eta $20.46 m^3/hm^2$ izan ziren.
- Lortutako airearekiko batez besteko estankotasun balioa $n_{50}=9.03h^{-1}$ edo $q_{50}=7.01 m^3/hm^2$ izan zen. Eraikitako ondarean burutuko beste ikerketekin alderatuta, ikerketa honetan lortutako emaitzak erakusten dute aztertutako eremuko kasuak ez dutela hermetikotasun maila hain baxua.
- Aire estankotasunarekiko emaitzen banaketa hiru taldetan egiten bada, %30eko laginak $n_{50}=4h^{-1}$ lortu zuten, %50ak $9.03h^{-1}$ eta $16 h^{-1}$ arteko emaitza eskaini zuten eta azkenik, hermetikotasun gutxiko kasuak %20a izan ziren $16 h^{-1}$ eta $38h^{-1}$ arteko balioak erakusten.
- Aire estankotasun emaitzak, oro har, laginen hermetikotasun falta erakutsi arren interes handia dute, izan ere eraikitako ondarean hermetikotasun altuko kasuak ere aurkitu daitezkeelako. Beraz, parametro honek eraikinen galera termikoan efektu handia duenez, bere murrizketarekin eraikin mota honen energia eraginkortasuna erabat areagotu daiteke.
- Burututako eroankortasun termiko saiakuntzen arabera, aztertutako eremuko hareharriaren balioa arauak eskaintzen duen balioa baino %50 txikiagoa da. Horrek erakusten du eraikinen birgaitze kasuetan eraikuntzako materialen ezaugarri termikoen zehaztea duen garrantzia eraikin mota hauen azterketa termiko egokiak burutu ahal izateko.
- Garapen propioko saiakuntza metodoarekin lortutako eroankortasun termikoaren aldea gordetako kutxa beroarekin lortutako emaitzekin %6a izan da. Beraz garatutako metodoa ezarritako helburuak betetzen ditu, hau da, materialaren beharrezko material kopurua eta saiakuntzaren iraupena murriztea.



- Ingurutzaille termikoen 3 dimentsioko simulazio termikoen bitartez eraikiriko ondare hormetan gertatzen diren bero galerak zubi termikoen ondorioz %14 eta %29 bitarteko galerak areagotu dezakete.
- Proposatutako transmisio termiko baliokidea ingurutzaille termikoetan zubi termikoak kontuan ahal izateko metodo egokia izatea lortu du.
- Ingurutzaille termikoen simulazio parametrikoen bitartez Barruko Isolamendu Termiko Sistemen 40-60 milimetro lodierako oinarritutako birgaitze energetikoekin jatorrizko horman sortzen ziren bero galeren %63 eta %76 bitarteko murrizketa lortzea ahalbidetzen dutela erakutsi da.

III. Kapituluia

Capítulo III

Inguratzaile termikoa esku-
hartze xede gisa

La envolvente térmica como
objeto de intervención



Laburpena:

Hirugarren kapitulua birgaitze energetiko proposamenen ebaluazio higrotermiko dinamikoari buruzkoa da. Aztertutako eraikin tipologiaren inguratazaile termikoen kanpoko babesa Barneko Isolamendu Termikoko Sistemetan oinarritutako birgaitze energetikoak burutzea dakar. Hori dela eta, BITS ezberdinen eragina lehendik dauden hormetan aztertzen da. Esku-hartze mota hauek, aldi berean, egur gapirioen osotasunaren arriskua dakar, puntu honen baldintza higrotermikoak aldatzen direlako. Horregatik, kapitulua egur usteltze ereduen aplikazioaren bitartez xehetasun horren azterketarekin amaituko du ondare historikoen birgaitze energetikoak bermatu ahal izateko.

Resumen:

El tercer capítulo versa sobre la evaluación higrotérmica dinámica de diferentes propuestas de rehabilitación energética. La protección exterior existente en las envolventes de la tipología edificatoria evaluada conlleva a tomar medidas de rehabilitación energética mediante Sistemas de Aislamiento Térmico por el Interior. Por ello se evalúa el efecto de diferentes SATI sobre los muros existentes. Este tipo de intervenciones implica a su vez a un posible riesgo de integridad de los solivos de madera existentes al verse modificadas las condiciones higrotérmicas de este punto. Debido a ello el capítulo concluirá con el análisis de este detalle a través de la aplicación de modelos de pudrición de madera con objeto de garantizar las rehabilitaciones energéticas sobre el patrimonio edificado.

3.1. Sarrera

Eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzeko era hedatuena inguratzaile termikoen bidezko bero galeren murriztapena da. Eraikin modernoetan inguratzaile termikoa birgaitzeko ekintzak kanpotik egiten dira Kanpoko Isolamendu Termikoko Sistemen bidez (KITS). Hauek hormaren geruza osoa babestea ahalbidetzen dute, ondorioz eraikinen portaera orokorra hobetzen delarik. Alde batetik, hormaren kanpoko akabera berriek xurgatutako euri-ura murrizten dute, hormaren hezetasunaren edukia murriztuz eta bestalde, isolamendu berriari esker lortutako bero-fluxuen jaitsieraren ondorioz, hormaren tenperatura beroagoa izatea lortzen da.

Haatik, ondare-eraikinetan kanpoko itxura arkitektonikoa mantentzeko erabiltzen diren soluzioak Barne Isolamendu Termikoko Sistemak (BITS) baitirenez, esku-hartze horien funtsezko gaia hezetasunarekin loturiko arriskuaren ebaluazioa da. Izan ere, kasu batzuetan hezetasunak kondentsazioak, lizun haziera [1,2] eta muturreko kasuetan, materialen desintegrazio arriskua [3,4] eragin dezake. Ebaluazio mota hauek simulazio numeriko eta higratermikoen bidez egiten dira, bero, aire eta hezetasun transferentziako eredu konbinatuetan oinarrituta [5,6].



Azterketa hauek eraikineko osagaien hezetasun portaera aurreikusteko aukera ematen dute, era honetan, ikerketa esperimental neketsu eta luzeak saihestuz. Eraikuntzako sektorean, Glaser metodoaren erabilera ohikoena da ingurutzaileraren bilakaera higrotermikoa ebaluatzeko [7-9]. Alabaina, eredu honetan oinarritzen diren estrategiek sisteman eragin nabarmena duten alderdi batzuk alde batera uzten dituzte. Metodo hauek kontuan hartzen dute ur lurrinaren kondentsazioa gertatzen dela ur lurrinaren presioa presio asetura iristen denean, hala nola, beira edo metaletan gertatzen den bezala. Haatik, ez du kontuan hartzen material porotsuen gaitasun higroskopikoa hezetasuna adsorbatzeko edo desorbatzeko. Bestalde, ur lurrinaren difusioa hezetasunaren transmisio mekanismo bakarra da. Zentzu horretan, zenbakizko ereduak [10-13] garrantzitsuak bihurtu dira eraikineko ingurutzailer termikoen azterketetan. Izan ere, zenbakizko ereduak Glaser metodoak kontuan hartzen ez dituen aldagai anitzak kontuan hartzen dituzte eta aldagai hauek eraikin historikoetan garrantzi handia dute. Zenbakizko metodo hauek Bero, Aire eta Hezetasun (HAM) software bidez garatzen dira, eta ebaluazio higrotermikoak egiteko metodo egokiena bilakatu dira, gaur egun tresna ugari eskuragarri daudelarik [14]. Horrez gain, gai honetako hainbat arau eta eskuliburuak laguntza eta orientazio gisa balio dute eraikinen ingurutzailerentzako ebaluazio irizpideak ezartzeko [15-18].

Arlo honetan aurrez egindako ikerketak [19-28], oro har, honako kasu hauetan oinarritzen dira: neguko klima larriak, prezipitazio ertaineko edo altuko klimak eta adreiluzko hormak dituzten eraikinak. Alabaina, orain arte badaude ikertu ez diren beste egoera mota batzuk. Kasu hauen neguko klima ez da hain larria, eta horren ondorioz auresuposatzen da hezetasun-arrisku gutxiago dutela. Baina bere berezitasunak direla eta, arrisku berdina daukate horma eta haien osagaien portaera higrotermikoari dagokionez. Alde batetik, euri-tasa handia pairatzen dute, eta bestetik, horma-konposizioan xurgapen koefiziente handiko harlanduak aurkezten dituzte. Bi faktore hauek bi arriski handi ekartzen dituzte beraiekin: hormaren hezetasun eduki handia eta prozesu patologikoak (hezetasuna, lizun haziera eta/edo egituraren degradazioa) arrisku handia dute berarekin. Paradigma hau oso sakonki ebaluatu gabe egonagatik, eraikitako ondarean erraz aurki daitezkeen ingurutzailerentzako adibide bat da. Beraz, birgaitze energetikoko diseinu berriak arazo hauek sahiesten saiatu behar dira.

3.2. Helmena eta helburuak

Kapitulu honen helburu nagusia eraikitako ondarearen energia eraginkortasuna hobetzea da Barne Isolamendu Termiko Sistema (BITS) konstruktiboaren diseinu eta ebaluaketaren sakon baten bitartez. Kasu egokienak hauteman ahal izateko ikerketa simulazio higrotermiko kanpaina bat burutuko da. Sektorean ohikoak diren

materialen analisis oinarrituko da eta, aldi berean, beraien portaera higratermikoak bereiztuko dira. Horrez gain, proposatutako sistemek deskonposizioaren aurkako irtenbide segurua izatearen betebeharra dute. Hori dela eta, egiturazko funtsezko elementu baten ebaluaketa proposatzen da, egurrezko buru-habeak.

Hortaz, kapitulu honek hurrengo helburuak ezartzen ditu:

- 3.1. Helburua** Ezaugarri higratermikoaren arabera BITS sistemetarako erabiltzen diren material nagusiak aztertu eta esku-hartze proposamen sorta bat hautatu.
- 3.2. Helburua** Proposatutako BITS soluzioen azterketa higratermiko dinamikoa burutu eraikuntzako material eta osagaietarako bero eta hezetasun aldibereko ereduak erabiliz.
- 3.3. Helburua** Proposatutako BITS soluzioen egurrezko habe-buruaren azterketa usteltze arrisku ereduaren bitartez.
- 3.4. Helburua** Hezetasunekin loturiko prozesu patologikoen garapena saihesten duten BITS soluzio zerrenda bat sortu.


3.3. Metodologia

3.3.1. Kapituluaren egitura

Kapitulu honen sarrera eta helburuak aurkeztu ondoren, ikerketa osoan zehar burututako metodologia azalduko da. Lehenik eta behin, ikerketa-gaiaren sarrera sakonagoa egingo da literatura zientifikoaren azterketa zehatzagoa eginez. Ondoren, garatutako azterketaren detaileak aurkeztuko dira, hala nola, ebaluatzeko zenbakizko ereduak, ereduaren ezaugarri konstruktiboak, erabilitako materialak edo muga-baldintzen ezaugarriak. Azkenik, emaitzekin eta ondorioekin bukatuko da kapitulua.

Azterketak isolamendu material ezberdinen portaera kontuan hartu behar du, barneko zein kanpoko babes-materialekin edo materialik gabe. Horretarako, aldeztu aurretik erabilgarri izan daitezkeen materialen azterketa bat egin behar da.

Ikerketa hiru atalez osatuta dago. Lehenengoa simulazio-prozesuek osatuko dute, ebaluatutako hormen profil higratermikoak lortzeko. Emaitza hauek lortu ondoren hauen azterketa egingo da eta egokiak eta ez egokiak diren BITSak detektatuko dira. Hurrengo urratsen proposak diren kasuen profil erregistroen post-prozesatua egingo da.



3. 1. Irudia- Kapitulu egituraren deskribapen grafikoa

Simulazio higo-termikoak egin eta aztertu ondoren, funtzionamendu egokia betetzen dituzten BITS soluzioak detektatzea posible izango da prozesamenduaren bidez. Azkenik, azterketaren ondorioak aurkeztuko dira, etorkizuneko energia eraginkortasun esku-hartzeetarako jarraibideak zerrendatzea ahalbidetuko dutenak.

3.3.2. Barne Isolamendu Termikoko Sistemen (BITS) materialen sarrera

Gaur egun, hainbat material eta eraikuntza sistemak erabil daitezke eraikinen energia eraginkortasuna hobetzeko. Hala eta guztiz ere, arestian aipatu den bezala, eraikitako-ondarea bere esku-hartzeetan berezitasun batzuk aurkezten dituzte. Beraz, BITS-ekin lotutako zenbait gidek [30-34] esku-hartze mota hauetarako gakoak hornitzen dituzte.

Barneko isolamendua eraikitako-ondarearen energia eraginkortasuna hobetzeko erantzun posible bat bihurtu da.


Gaur egun eraikinetan erabil daitezkeen isolamendu mota anitz daude. Mota baten edo besteren hautaketa kasu bakoitzean nagusi diren irizpideen arabera egiten da (termikoa, akustikoa, su erreakzioa, iraunkortasuna...). Xedea ingurutzailaren portaera higo-termikoa bermatzea bada, kasu honetan bezala, materialen propietate higo-termikoak kontuan hartu behar dira, eta, irizpide horren arabera [33], isolamendua honako taldeetan sailkatu daitezke: ur-lurrin iragazkorak direnak, ur lurrinaren difusioari nolabaiteko erresistentzia dutenak eta azkenik iragazkorak izateaz gain, ur kapilarreko xurgapenerako gaitasuna eskaintzen dutenak, isolamendu kapilar aktibo (IKA) gisa ere ezagutzen direnak.

Isolamenduen propietate higo-termiko desberdinak aurkezten dituztenez, BITS-etan hartu beharreko neurriak isolamendu termiko motaren arabera izango dira. Iragazkortasun handiko isolamenduetan, kanpoalderantz garraiatzen den ur-

lurrunaren fluxua handiagoa da eta, ondorioz, hezetasun pilaketaren arriskua ere handiagoa da. Alderantziko efektua du isolamendu iragazgaitzen erabilerak, izan ere, barrera bat sortzen da eta lurrun fluxua ezin da barrutik kanpora atera. Hala eta guztiz ere, barrualderantz hedatzen den lehortze prozesuan, barrera horrek emaitza bera sortzen du. Beraz, barneko hezetasun fokua badago (hodi baten haustura edo euri uraren filtrazioen bat), prozesu patologikoa gerta daiteke.

Azken bi isolamendu mota hauek proposatzen badira diseinua sakonki ebaluatu behar da. Horrela ez izatekotan sistema arriskuaren eraginpean jarri daiteke kondentsazioak ager daitezkeelako eta isolamendu geruzaren hezetasun pilaketa areagotu daitezkeelako [32,35].

Arazo honi irtenbideren bat aurkitzeko, Isolamendu Kapilar Aktiboak deiturikoak (IKA) sarritan erabiltzen dira hezetasun likidoa barneko umel geruzatik etxe barruko azalerara garraiatzeko gaitasuna dutelako. Lehortze prozesu hau isolamenduen urxurgapen altuko koefizientearen bidez lortzen da, A_w [36,37]. Ikertzaile askok [20,38,39] isolamendu mota hau ebaluatu zuten ikuspegi desberdinekin eta denak emaitza hobekak erakutsi zituzten ohizko isolamenduekin alderatuta. Halarik ere, Vereckeen et al. [40] iruzkintzen duten bezala, oso garrantzitsua da IKA desberdinen funtzionamendua bereiztea. Honen arrazoia da, gaur egun, eroankortasun likido txikia eta A_w txikia duten isolamendu sorta zabala dagoela, beraz, hezetasuna lehortzeko gaitasuna ere txikiagoa dute, hala ere IKA deritze. Horregatik, propietate higrotermikoak behar bezala ziurtatzea funtsezkoa bihurtzen da.



3. 2. Irudia-Isolamendu Kapilar Aktiboaren (IKA) funtzionamendu higrotermikoa.

Isolamendu termikoak ez dira BITSetan garrantzi duten material bakarrak. Egile askok ondorioztatu dute [19,20] barnealdeko isolamenduaren erabilerak hormako uraren edukia areagotzen duela. Hortaz, euriak horman sortzen duen umeltasunaren areagotzea saihesteko, kanpoko geruzan ur-uxagarrien erabilera ezinbestekoa bihurtzen da. Material mota hauetan, A_w balioaz gain, lurrun-difusioaren koefizienteak [41,42], δ_p , garrantzi handia du barnealdeko lurruna kanporatzeko eta




kondentsazio interstizialak saihesteko [43]. Guizzardi et al. [21] gaia azertu zuten kanpoko entokatu desberdinen (karea, kare-porlan morteroa, porlan-kare morteroa eta porlana) eta hiru isolamenduren ebaluazioaren bidez. Lortu zuten ondorioa, ebaluatutako materialetatik konbinazio onena porlaneko entokatua, bere A_w baxuko balioari esker, kaltzio silikato isolamenduarekin izan zen, bere erreakzio kapilar aktiboaren portaera dela eta.

Hala eta guztiz ere, sarritan ezin dira fatxadaren kanpoaldeko azaletan mota haueko ur-uxagarri entokatuak erabili, fatxadaren ondare-balioa aldatzen baitute, harrizko edo adreiluzko hormen kasuan adibidez. Silikonan oinarritutako tratamenduak aproposak izan litezke eraikin historikoen fatxadentzat izan ere, silikonaren gardentasunak aspektu estetikoa mantentzen du. Produktu hauekin lortzen diren A_w baxua eta δ_p altuko propietateak euria fatxadetatik aldaratzea lortzen dute, kontaktu angelu estatikoa θ [44] handituz eta, aldi berean, horma lehorte prozesua baimenduz. Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea produktu hauek barneko isolamenduarekin batera aplikatzen direnean, azken hauek geroago instalatu behar direla, horrela, hormak hasieran duen gehiegizko hezetasuna azkarrago lehor dadin [22].




3.3. Irudia-Ur uxagarri produktu baten erabilera eta bere efektua egurrezko lagin batean.

Beste material gehigarri batzuk lurrun-difusioaren barrerak (LDB) [45] dira, lurrunaren difusioa zailtzen duten barrutik kanporantz eta horrela saihesten da hotz geruzaren kondentsazioa. Alabaina, horrek aldiberean barrurantz hedatzen den lehorte prozesua saihesten du, beraz, kanpoko hezetasun-iturri bat badago (euri tasa handia, ur hodi hautsiak...) hezetasun arazoa egongo da. Arazo hau konpontzeko, lurrun atzeratzaile adimentsuak (LAA) garatu ziren. Udan barnealderantz hezetasun difusioa baimentzen dute bere lurrun iragazkortasun aldakorraren bidez, δ_p , 3. 4. eta 3. 5. Irudiak. Ostera, material horien funtzionamendu egokia neurri handi batean langile lana kalitatearen eskuan dago, mintzaren jarraitasuna eta hermetikotasuna bermatzeko.



3. 4. Irudia- Lurrin atzeratzaile adimenduen funtzionamendua.

s_d value (g-mean value) with different moisture influences



3. 5. Irudia- Lurrin atzeratzaile adimenduen lurrin iragazkortasun aldagarria.

Barruko isolamendua eta, bereziki, egurrezko egiturak dituzten eraikinetan interesa pizten duen kezka nagusietako bat zurezko habeak dira. Izan ere, puntu hauen baldintza higrotermikoak nabarmen alda daitezke hasierako isolamendu gabeko baldintzekin konparatuta, hezetasuna areagotuz, temperatura eta lehorte potentziala murriztuz eta, ondorioz, deskonposizio arriskua areagotuz, 3. 6. Irudia.

Azken lerro hauen xedea modu orokorrean horretan erabil daitezkeen BITS soluzioak irudikatzea izan da. Hainbat soluzio azaldu dira eta isolamenduen, mintzen eta babes-produktuen arteko konfigurazio desberdinei esker BITSen diseinui erantzuna ematea posible dela erakutsi da. Hori dela eta, hurrengo ataletan soluzioen ebaluazio sakona egiten jarraituko da, haien arteko desberdintasunak zehaztuko dira eta teknikoki bideragarriak ez direnak baztertuko dira.



3. 6. Irudia-Egurrezko habe buruaren usteltzea, Easo 22 kaleko adibidea.

3.3.3. Simulazio eredua

3.3.3.1. Zenbakizko eredua

Simulazio higratermikoak garatzeko, Fraunhofer IBPren WUFI Pro v.6.2 eta WUFI 2D v.4.1 softwarrak erabiliko dira. Bi software hauek oso erabiliak dira analisi higratermikoak egiteko eta gainera EN 15026 [15] estandarraren zehaztapenak betetzen dituzte. Aztertuko den bezala, lehenengoak simulazio orokorren multzoa gauzatuko du, honela lehenengo ondorioak lortuko direlarik. Bigarren softwarra egurrezko habeen muturreko ebaluazio zehatza egiteko erabiliko da, lortutako lehen ondorioetan oinarritutako kasuen arabera. Bi dimentsioko softwarrarekin kasu guztiak ez ebaluatzeko arrazoiak honakoak dira: (1) lehen programarekin kasu desberdinen portaera orokorra detektatu ahal izango da eta (2) 2D-k sortutako datuen bolumena simulazio handiko denbora dakar. WUFIk erabiltzen dituen aldi bereko bero eta hezetetasunaren garraio ekuazioak honako hauek dira:


$$\frac{\partial H}{\partial T} \frac{\partial T}{\partial t} = \nabla (\lambda \nabla T) + h_v \nabla (\delta_p \nabla (\phi p_{sat})) \quad (1)$$

$$\frac{\partial w}{\partial \phi} \frac{\partial \phi}{\partial t} = \nabla (D_\phi \nabla \phi + \delta_p \nabla (\phi p_{sat})) \quad (2)$$

$$D_\phi = D_w \frac{\partial w}{\partial \phi} \quad (3)$$

non $\partial H/\partial T$ eraikuntzako heze materialen bero biltegitze-ahalmena da (J/kg), $\partial w/\partial \phi$ hezetetasun biltegitze-ahalmena (kg/m³%), w hezetetasun edukia (kg/m³), λ eroankortasun termikoa (W/mK), D_ϕ likido gidatzeko koefizientea (kg/ms), D_w garraio koefiziente kapilarra (m²/s), δ_p ur-lurrunaren iragazkortasuna (kg/ms Pa), h_v ur lurruntze-entalpia (J/kg), p_{sat} ur-lurrunaren saturazioa presioa (Pa), T temperatura (K) and ϕ hezetetasun erlatiboa (%).

Azkenik, datuen ondorengo tratamendua egingo da egurraren usteltze eredua aplikatuz. Gaur egun, bi dira ohi erabiltzen diren ebaluazio ereduak. Lehenengo ereduak WTA 6-8-an [29] oinarrituta, egur poroan airea eguneroko batezbesteko hezetasun erlatiboa (egurraren 10 mm-ko puntu kritikoenaren batez bestekoa) ezin du gainditu %95-0°C eta %86-30° arteko muga, 3. 7. Irudia. Salbuespenak onartzen dira epe laburrerako muga txikiko urraketa kasuetan.



3. 7. Irudia- WTA 6-8-an oinarritutako egur usteltze ereduak.

Hala ere, eredu honek ez ditu salbuespen hauek zehazten eta ez du portaera dinamikoa ebaluatzen ezta horren eragina egurren. Egurraren arrisku ebaluazio zehatza egiteko, Viitanenek [3,4] garatutako Decay Modeloa erabili daiteke. Eredua onddoen aktibazio prozesuaren ($\alpha = 1$) garapen osoan oinarritzen da eta honek deskonposizio prozesuaren hasiera eragiten du masa galera-tasaren (ML) bitartez:

$$\alpha(t) = \int_0^t d\alpha = \sum_0^t (\Delta\alpha) \quad (4)$$

Onddoen aktibazioa baldintza jakin batzuetan bakarrik gertatzen da. Temperatura 0°C baino altuagoa eta hezetasun erlatiboa %95 baino handiagoa izan behar da prozedura has dadin. Baldintza hauek betetzen ez badira, α parametroa gutxitzen da, ondorioz lehorte prozesua hasten da eta masa galera gelditzen da. Hala ere, hau galera berreskurazekin bat da. $\alpha = 0$ bihurtzeko behar duen denbora bi urte suposatzen da (17520 ordu):

$$\Delta\alpha = \frac{\Delta t}{t_{crit}(RH, T)} \text{ noiz } T > 0^\circ\text{C} \text{ eta } RH > \%95 \text{ direnean} \quad (5)$$

$$\Delta\alpha = -\frac{\Delta t}{17520} \text{ beste kasutan}$$

$$t_{crit}(RH, T) = \left[\frac{2.3T + 0.035RH - 0.024T \cdot RH}{-42.9 + 0.14T + 0.45RH} \right] \cdot 30 \cdot 24 \text{ [ordu]} \quad (6)$$

Onddoen aktibazioak egur masa galera eragiten du tenperatura eta hezetasun erlatiboaren arabera:

$$ML(t') = \int_{t \text{ at } \alpha=1}^{t'} \frac{ML(RH, T)}{dt} dt = \sum_{t \text{ at } \alpha=1}^{t'} \left(\frac{ML(RH, T)}{dt} \cdot \Delta t \right) \quad (7)$$

non:

$$ML(RH, T) = -5.96 \cdot 10^{-2} + 1.96 \cdot 10^{-4}T + 6.25 \cdot 10^{-4}RH \left[\frac{\%}{\text{ordu}} \right] \quad (8)$$


Eraikuntzako material eta osagaietan hezetasun-garraio gaiaren oinarriak sakondu nahi izanez gero 8.1. Eranskina gehitu da. Hezetasunaren garraiatzeko eta biltegitzeko mekanismoak eta propietateak azaltzen dira, eraikuntzako elementuetan eragiten dituzten muga-baldintzak ere aurkezten dira.

3.3.3.2. Eredua konstruktiboa

Simulatu beharreko eredua eraikin historikoen tipologia guztirako elementu hedatuena izan beharko luke. Eraikin mota hauen ezaugarriak harlanduzko horma lodi eta barruko egurrezko egituren erabilera da.

Hormaren ebaluazioa funtsezkoa da inguratzaile termikoa osatzen duelako eta egurrezko egitura lotzen duelako; horren ondorioz, ebaluazioaren xehetasun bezala hautatuko da puntu hau.

Hiriko eraikinen ezaugarri konstruktiboek dagokienez, aurretiaz aipatu bezala, gehiengo handia hareharrizko harlangaitzez osatutako hormak dira, 40 eta 70 cm arteko lodierarekin. 3. 8. Irudian proposatutako BITS soluzioa erakusten da. Horman egurrezko karga habeen konexio tipikoa bere berme habearekin ere irudikatzen da.




3. 8. Irudia- Ebaluazio higrotermiko ereduaren deskribapen geometrikoa.

3.3.3.3. Materialak eta propietateak


Lehen azaldu den bezala, ereduak soluzio mota ezberdinekin egingo ditu simulazioak sistema horien portaera higrotermiko orokorra antzemateko. Isolamenduen aukeraketa egiteko kontuan hartuko da isolamenduen sailkapen orokorra portaera higrotermikoaren arabera [33]. Honek isolamenduak hiru motatan sailkatzen ditu: ur-lurrun iragazkorrak direnak, ur-lurrun iragazkortasun propietatea edukitzeaz gain xurgapen kapilar gaitasun handia eskaintzen dutenak, hau da, IKAak eta, azkenik, nolabaiteko iragazkortasun erresistentzia dutenak erabat iragazgaitzak izan gabe.

Gehienetan, BITSen esku-hartzeak lehen motako isolamenduekin egiten dira, mineral artilezko isolamenduen (MW) bidez eta, kasu batzuetan, barnealdean LDB bat erantsiz. Soluzio horiek kondentsatutako hezetasuna barnealdera hedatzen uzten ez dutenez, alternatiboki LAAen eta IKAen portaera aztertuko dira haien erantzun egokia zein den egiaztatzeko. Bestalde, lurrun iragazkortasun erresistentzia duen isolamenduaren ebaluazioa ere burutuko da oso erabilia den material baten bidez, poliestireno hedatua (EPS). Azkenik, fatxada babesteko kanpoko uxagarrien (H) aplikazioaren efektua kontuan hartuko da euriaren xurgapena murrizteko eta horrela hormaren hezetasunaren metaketa ere murrizteko.


Erabilitako softwareak materialen datu-base zabala duenez, bere erabilera egokitzat hartu da simulazioak burutzeko. Erabilitako materialen propietate higrotermikoak 3.9.-3.11.Irudietan azaltzen dira. Lehenengo ikuspuntu batetik eta bilatzen zen bezala, materialen erantzun desberdinak ikus daitezke. Hezetasun eduki grafikoa erakusten du material batzuen hezetasun handiko biltegitratze-ahalmena, hala nola, harearria, izeia, jatorrizko barruko igeltsua edo igeltsu berria, eta, alderantziz, biltegitratze zero edo txikia duten materialena, mintzak (LDB eta LAA) eta EPS. Hezetasun gaineko edukiaren aldakuntza handia dela eta, goiko aldean bigarren ardatza eta marra etenak gehitu dira ezaugarriak hobeto definitzeko. Lurrunaren difusioarekiko erresistentziari dagokionez, mintzen eta gainerako materialen arteko desberdintasun handia ikus daiteke. Aldi berean, LAAaren funtsezko ezaugarria behatu daiteke, bere difusio koefizientearen aldakuntza. Beste aldetik, likidoa garraitatzeko portaerari dagokionez, nabarmentzekoa da IKAren garraio jardueraren diferentzia gainerako materialekin alderatuta. EPSaren, isolamendu mineralaren eta mintzen ezgaitasuna likidoa garraitatzeko ere adieraztekoa da.



3. 9. Irudia- Erabilitako materialen hezetasun biltegitratze gaitasuna.



3. 10. Irudia-Erabilitako materialen lurrun-difusioarekiko erresistentzia faktorea.




3. 11. Irudia-Erabilitako materialen garraio likidoaren koefizientea.

3.3.3.4. Muga-baldintzak


Simulazioetarako kontuan hartu diren barne eta kanpoko baldintzak 3.12.Irudian aurki daitezke. Barruko baldintzak WTA 6-2 gidan oinarritzen dira 4.2 atalaren arabera

[17]. Eredu honetan, barruko tenperatura eta airearen hezetasuna kanpoko tenperaturaren funtzio dira, 3. 13. Irudia. Hurrengo azterketa diseinu faseko eredu batean oinarritzen dela kontuan izanda, hezetasunerako karga ertaineko kasua kontuan hartu da %5eko segurtasun koefiziente marjina gehituz. Beste aldetik, Meteoronormeko datu-basea euskarri izan da kanpoko klima-baldintzak ezartzeko [46].



3. 12. Irudia-Simulazio ereduatarako erabilitako barne eta kanpoko ingurune muga-baldintzak: A) Tenperatura eta hezetasun erlatiboa; B) Eguzki erradiazioa; C)Prezipitazioa; D) Fatxadetan haizeak eragindako euria eta eguzki erradiazioa.

Donostiako klimak tenperatura moderatua izan arren, urte osoan zehar hezetasun (grafikoa A) eta prezipitazio-tasa handiak ditu (grafikoa C). Funtsezkoa da fatxaden plano bertikalen benetako esposizioa aztertzea (grafikoa D), ebaluazioaren orientazioa horren arabera izango baita. Ikus daitekeenez, euriaren eraginik handiena mendebaldeko fatxadan da, eta horregatik, simulazioetan orientazio hau aztertzea hautatu da kasu kaltegarriena irudikatzen duelako.



3. 13. Irudia- Gela baten barruko temperatura eta hezetasun erlatiboa, kanpoko aire tenperaturaren arabera eta WTA 6-2an oinarrituta.


3.4. Emaitzak eta eztabaida

Atal honek eredu zehatza ebaluatuko du. Lehenik eta behin, alde aurretik eztabaidatutako aukerak aztertuko dira, esku-hartze bideragarrienak antzemateko eta portaera anomaloa detektatzeko Wufi Pro bidez. Ondoren, azterketa zehatzagoa egingo da egurrezko habearekin Wufi 2D eta aurreko analisietan proposatutako konponbideak erabiliz. Bestalde, gomendatzen ez diren konponbideekin ere egingo da azterketa, honela planteatu ahal luketeen arriskua erakusteko. Horretarako, egurraren deskonposizioaren eredu aplikatuko da eta bere bilakaera aztertuko da sistemaren egokitasuna zehazteko.


Hasi aurretik, isolamenduen ebaluazioaren lodierarekin loturiko gai garrantzitsu bat aipatu behar da. Lodi bereko materialak erabiltzea logika badu ere hauek, eroankortasun termiko desberdinak dituzte. Alde batetik, lortutako energia-hobekuntza aldeak izango liriateke eta, bestetik, hormaren tenperatura distribuzioa bere lodieran zehar ere ezberdinak izango liriateke. Azken gertaera horrekin batera, deskonposizio-eredua aplikatuz, kasu desberdinek tenperatura-diferentziekin ebaluatuko liriateke eta, beraz, ezin izango liriateke kasu konparatiboak izan. Gehiegizko lodiera batek barruko azalera baliagarriaren galera nabarmen bat ekar dezakeela kontuan hartuta, 40 mm-ko isolamendu tradizionalen erabilera egokia dela usten da, isolamendu minerala bezala. Horrela, 50 mm-koa izan beharko luke EPSrako eta 52 mm-koa IKArezentzat, eroankortasun termiko handiagoa dela eta.

3.4.1. Profil higrotermikoa


3.14.-3.16.Irudietan Wufi Prorekin egindako simulazio-kanpainaren emaitzak erakusten dira. Horien artean, joera batzuk bereizi daitezke.



3. 14. Irudia- 1D simulazioetan lortutako hezetasun erlatiboaren profilak isolamenduaren atzeko geruzan isolamendu mineralaren kasuan (MW).



3. 15. Irudia- 1D simulazioetan lortutako hezetasun erlatiboaren profilak isolamenduaren atzeko geruzan poliestireno hedatuaren kasuan (EPS).



3. 16. Irudia- 1D simulazioetan lortutako hezetasun erlatiboaren profilak isolamenduaren atzeko geruzan isolamendu kapilar aktiboaren kasuan (CAI).

Lehen ez kanpoko ez barruko babesik duten soluzioekin zerikusia du, hau da, ez dute ez ur-uxagarri (H) ez barruko mintzik (LDB edo LAA). Lehenik eta behin, ikus daiteke oreka higrotermikora azkar iristen dela hormaren esposizioa kanpoko eta barruko hezetasun iturriei handiago delako. Ikus daitekeen bezala, hiru BITS soluzioek jatorrizko horma baino hezetasun erlatibo handiagoa sortzen dute. Arrazoiak bikoitza da: alde batetik, euriak kanpoko hezetasun iturri bezala, horman erraz sartzen da eta, bestetik, jatorrizko hormaren lehorte-ahalmena murriztu egin da hormaren tenperatura murriztu egin delako barruko isolamendu aplikazioaren ondorioz. Isolamenduei dagokienez, ikus daiteke MW eta IKAREN kasuan, EPSrekin alderatuta, haranen eta gailur higrotermikoen profila nabarmenagoak direla ur-lurruneko iragazkortasunaren ondorioz. Ezaugarri horri esker, udako aldietan hotzetan pilotutako hezetasuna murriztu daiteke. Hala ere, WTA 6-5 [34] ezarritako zehaztapenen arabera eta sistema hauei dagokienez, ezin da bakar bat ere gomendatu, %95eko hezetasun erlatiboaren muga gainditzen baitute eta, beraz, ingurutzailerako gehiegizko hezetasun arriskua edukiko luke.

Antzeko portaera bat antzematen da, baina areagotuagoa, isolamendua barne mintz batekin erabiltzen den kasuetan. Mintz hauen erabilerak dagoeneko hormaren barruko hezetasun handiaren lehorte-ahalmenearen murrizketa ondorioztatu dezake eta, beraz, harrapatuta gera dadin.


Bestalde, ur-uxagarri bakarra erabiltzeak EPSaren kasua zeharo hobetzen du, nabarmenki IKAREN eta mineral artilezko isolamenduaren kasuan hobekuntza

hautemangarriak ikus daitezke. Emaiza hauek isolamenduen lurrin difusioaren portaerarekin bat doaz. Kanpoko hezetasun-iturria kasu guztietan efektua ez dezan lortu bada ere, barne-hezetasun iturria jarraitzen du eta isolamenduen lurrin-difusioarekiko erresistentzia aldea da ebaluazio-puntuak sortzen duen desberdintasunen arrazoa. Isolamenduaren lurrin-difusioaren erresistentzia gutxitzen den heinean, hezetasuna areagotzen da ebaluazio-puntuak. Kasu berezi honetan, irtenbide guztiak kontuan hartu ahal izango lirateke, 95% muga gainditzen ez dutelako. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da, isolamendu mineralaren kasuan, mugatik hurbil dagoenez arreta berezia jarri beharko litzaiokela, horregatik, saihestu behar den kontingentzia kasu bat da.

Azkenik, teknikoki simulazio emaitzarik onenak eskaintzen dituzten konponbideak geratzen dira, hau da, ur-uxagarria edukitzeaz gain, barnealdeko mintzak erabiltzen dituztenak. Kasu hauetan ikus daitekeen bezala, oreka erregimena 4 urteko iraupen luzeagoan lortzen da. Gertaera honen arrazoa, mintzen erabileran datza. Horma barneko hezetasun iturritik disoziatuta dago eta pixkanaka hasierako hezetasuna askatzen du. Garrantzi handia du LDB eta LAren arteko desberdintasuna nabarmentzea. Lehenengo mintz motek hezetasun maila txikiagoa eta laua eskaintzen dute hiru isolamendu kasuetan, hezetasun gutxiago sartzen uzten dutelako horma barruan. Hala eta guztiz ere, LAA kasuek hezetasun handiagoa dute eta profil nabarmenagoa dute, eta horrek urtaroen arteko aldakuntza garaiagoak erakusten ditu. Hau da, hezetasun erregistroen profilen gailurrak eta haranak nabarmenagoak dira eta LAAk, bere udako lurrin iragazkortasuna handiagoari esker, barrualderantz ahalbidetzen duen lehortze prozesuari esker gertatzen da. Kontuan izan behar da, EPS kasuan, gailurrak eta haranak ez direla hain nabarmenak, isolamenduak berak lurrin difusio barrera gehigarri bat bezala funtzionatzen duelako. Arestian aipatu bezala, LDBk teknikoki portaera onena frogatu duen arren, kontuan hartu behar da kontrolik gabeko hezetasun iturria sortzekotan (instalazio oker bat, kanpoko ur-uxagarriaren mantentze falta, hodien ur-ihesa...), une horretan hezetasuna pilotuko litzatekeela konponbide zaileko problema bat sortuz. Gainera, IKA isolamenduaren kasuan, kontuan hartu behar da mintz hauen erabilerak ez duela zentzurik, isolamenduak kondentsazio geruzan, bere funtzio kapilarrari esker, sortutako hezetasuna xurgatu ondoren, hezetasun hau barrualderantz zuzentzerakoan mintzarekin topatuko luke pasatu ezin gabe eta horrela beste larrialdi bat sortuko litzateke hezetasuna pilotuta geratuko litzatekeelako.

Egurrezko habearen puntu kritikoaren portaera espezifikoa erakusteko, kasu-azterketen aukeraketa bat egin da hurrengo atalean ebaluatzeko. Hautapen irizpideak portaera higrotermiko bereiztua duten kasuen ebaluazioan oinarritzen dira,

duen bero-fluxua da, isolamendu ezaren ondorioz, isolatutako eta ur-uxagarri gabeko hormekin alderatuta, hezetasun maila txikiagoa lortzearen arrazoia.



3. 18. Irudia-Egurrezko habearen 2D simulazio higrotermikoetatik eratorritako hezetasun erlatiboaren profilak.

Isolatutako eta ur-uxagarri gabeko kasuei dagokionez, erakutsi duten profil higrotermikoa jatorrizkoarena baino altuagoa da. Profilak %95eko muga denbora luzez gainditzen duenez onartezina da; beraz, hondatzeko arrisku handia dago. Gainera, azterketa honen bidez, garbi erakusten da IKAre kasua arriskutsua dela, egurrezko habearen hezetasuna profila 1D simulazioak eman duena baino hezetasun handiagoa duelako. Horren zergatia isolamendua dagoen lekuan (1D simulazioa) xurgatzeko propietatea eskaini daiteke eta horrela metatua geratutako hezetasuna murriztu; aitzitik, egurrezko habearen, isolamendua ez dagoenez, ez dago hezetasuna xurgatzeko ahalmena eta, beraz, metatuta geratzen da. Beste aldetik, MW+H kasuaren aurreko zalantzari dagokionez, emaitzak erakusten dute hezetasun-profila puntu honetan nabarmenki murriztu dela, portaera apartekoa eskaintzen duelarik gainerako kasuak bezala.


3.4.2. Egur usteltze arrisku azterketa

Azkeneko urratsa 2D simulazioaren emaitzak egur usteltze ereduaren inplementatzean datza. Nahiz eta aurreko simulazioekin zein kasu arazo potentziala sor dezaketen susmatu ahal arren, arriskua ezin da kuantifikatu profil higrotermikoak soilik erabiltzen direnean. Hortaz, Viitanenek garatutako egur-usteltze ereduaren erabili da azterketa gauzatu ahal izateko.

3.19. Irudiak usteltze ereduaren emaitzak erakusten ditu, hau da, onddoaren aktibazio fasea (α) eta onddoaren aktibazioak eragiten duen egurraren deskonposizio eboluzioa. Ikus daitekeenez, ur-uxagarri duten konponbideek ez dute inolako

usteldura prozesurik, ezta onddoen garapenik pairatzen, izan ere ez dute %95eko hezetasun erlatiboa gainditzen.

Hala eta guztiz ere, jatorrizko horman ikus daiteke %95eko muga une oso zehatzetan gainditzen dela, eta horren ondorioz, onddoaren garapen-fasean hasten da baina bakarrik $\alpha=0.15$ balio maximoa lortzen, beraz, ez dago egur deskonposizio arriskurik. Alabaina, hau ez da ur-uxagarrikerik ez duten kasu bera. Ikus daitekeen bezala urte batean onddoaren aktibazioa gertatzen dela eta, zuraren deskonposizioarekin jarraitzen du. Kasu horien simulazioen erregistro higrotermikoak antzekoak direnez berdin gertatzen da egurraren deskonposizio eboluzioarekin. Ikusi daitekeen desberdintasun bakarra IKAREN aurreratze abiadura txikiagoa dela MW+LDB eta EPS+LDB kasuekin alderatuta.



3. 19. Irudia- Egurraren desintegrazio prozesua eta onddoen aktibazioa egurrezko habean aztertutako puntuan Viitanen eredu aplikatuz.

Horrela, ur-uxagarrikerik ez duten eraikinen energia-birgaitzeko BITS esku-hartze guztiek arrisku ez onartezina dakarte. Ikusi ahal izan den bezala, jatorrizko hormak egitura osoaren funtzionamendu egokia lortzen du eragiten diren bero-ihesiek lehortze-prozesua sortzen dutelako, aldiz, BITS soluzioetan prozesu hau ez da gertatzen. Beraz, hormaren kanpo babesa funtsezkoa bihurtzen da eraikitako-ondarearen inguratzaile termikoko esku-hartzeetan.

3.5. Ondorioak

BITS aukerak ezin hobek bezala aurkezten dira eraikitako ondarearen eraintortasun energetikoa era pasiboan hobetu ahal izateko. Kapitulu honetan BITS soluzioen ebaluazio higrotermiko eta dinamikoak garatzeko metodologia aurkeztu egin da. Horretarako, aurrez esku-hartze mota hauetako material egokien aukeraketa egin da eta, ondoren, beraien ebaluazioa konbinazio desberdinak erabiliz. Proposatu diren

aukera konstruktiboen emaitzek profil higrotermikoei dagokionez ezberdintasun handiak erakutsi dituzte hautatu diren materialen propietate desberdinen ondorioz. Beraz, agerikoa da ebaluazio sakonak burutu egin behar direla esku-hartze mota hauetan sistemen funtzionamendu egokia bermatu ahal izateko eta horrela etorkizuneko ustekabeak saihesteko.

Ebaluatu diren kasu guztietan frogatu da euri-uxagarria ez erabiltzeak inguratzaille termikoarentzat arrisku onartezina dakarrela. Hormaren lehortze-ahalmen murrizketa, barneko isolamendua erabiltzarren eta euria horma barneratzen jarraitzarren, hezetasun-maila areagotzea eragiten du.

LDB mintzak eta euri-uxagarria erabilera oinarritzen diren sistemak erantzun higrotermiko bikaina erakutsi dute, hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da ur-ihesa gertatzekotan, isolamenduko atzeko geruzan arazo bat gerta litekeela. Hau da, sistema honek euri-uxagarri gabeko sistemarekin lortuko lirateke emaitzak berdinak erakutsiko lituzke. Hau guztira gehitu behar zaio LDBren funtzionamendu egokia mintz arteko zigildu kalitatearen menpe dagoela. Bestela, ur-lurruna LDBen artean jarioko luke eta hezetasun gehigarri bat sortuko litzateke. Kontuan izan behar da IKAaren kasuan emaitza ona lortu bada ere, sistema hau LDB edo LAArekin batera erabiltzea kontrakoa izan litekeela, barrera bat litzatekeelako eta ez luketelako isolamenduaren kapilar funtzionamendu egokia baimenduko.

Arazo hori dela kausa, LAA materialen erabilera aproposa da mintz sistemetan oinarritzen diren BITS proposatzen bada. Emaitzen arabera, hezetasun-profila pixka bat handiagoa bada ere LDB-ren kasuarekin konparatuta, LAAk ur-ihesa bat gertatzekotan, hezetasun areagotze hori ez da emango lurrunezko iragazkortasun propietate aldakorrari esker.

Egur usteltze-ereduaren aplikazioa habearen mutur ebaluazio zehatza burutzeko metodo eraginkorra dela erakutsi du. Jatorrizko horma ez du egurraren usteltze arriskua jasaten; BITS soluzioak ezarritako hormetan, berriz, baldintza higrotermikoak aldatzeak egiturazko arriskuak sor ditzake. Kasu honetan, euri-uxagarri gardenaren aplikazioa erabiliko den isolamendu mota baino garrantzitsuagoa da egurrezko habearen funtzionamendua bermatzeko.

Beraz, emaitzen analisi orokorra aztertu ondoren, kapitulu honekin lortu diren ondorioak honako hauek dira:

- Ikus daitekeen bezala, ur uxagarririk gabe hiru BITS soluzioek jatorrizko horma baino hezetasun erlatibo handiagoa sortzen dute. Beraz, produktuaren erabilera isolamendu mota baino garrantzi handiagoa du eta horren ondorioz bere aplikazioa derrigorrezkoa bihurtzen da birgaitze energetikoak burutzerakoan.




- Mintzen eta IKaren erabilera konbinatua kaltegarria da mintzek ez dutelako isolamenduak bere funtzionamendu kapilarra egin ondoren xurgatutako hezetasuna kanporatzea lagatzen mintzekin oztopo egiten duelako.
- EPS mintzekin erabilitako kasuak hoberenak badira ere, mintz gabeko kasuarekin alderatuta ez da lortzen nabarmen handiko hobekuntzarik.
- Mintzak MW isolamenduarekin ez diren kasuetan erantzun ona erakutsi badu ere, 1D emaitzen arabera gertu dago %95 mugara iristeko. Beraz, kontrolatu gabeko hezetasun iturri bat agertzekotan arrisku bat sor lezake. Horren ondorioz mintzen erabilera MW isolamenduarekin gomendagarria bihurtzen da.
- Egurrezko habe buruan isolamendu termikorik ez dagoenez, zeharkatzen duen bero fluxuaren ondorioz, hezetasun erlatiboa 1D kasuekin konparatuta baino txikiagoa da. Beraz 1D simulazioetan gomendagarritzat hartu diren kasuak seguruak dira habe buruan arriskua sor ez dadin.
- Ur-uxagarria ez erabiltzea saihestu egin behar da habeetan dakarren efektu suntsitzailegatik.

IV. Kapitulu

Capítulo IV

Birgaitze energetikoen
efektua eraikinen
berokuntza-eskarian

Efecto de la rehabilitación
energética en la demanda de
calefacción de los edificios



Laburpena:

Aurreko kapituluek eraikinen energiaren eskarian eragina nabaria duten parametro garrantzitsuenak detektatzeko eta kuantifikatzeko aukera eman dute. Kapitulu honetan eraikinetan posible diren hobekuntzen eragina aztertuko da erreferentzia-eraikin bat oinarri bezala hartuta eta energia simulazio kanpaina bat burutuz. Horretarako, optimizazio simulazio-eredua aplikatuko da, kostu-energiaren araberako oinarritutako soluzio optimoak detektatzeko.

Resumen:

Los capítulos anteriores han permitido detectar y cuantificar la posible dos de los parámetros más relevantes que afectan a la demanda de energética de los edificios. Este capítulo analiza el efecto de las posibles mejoras sobre los edificios en su conjunto tomando como base un edificio de referencia y realizando sobre el mismo una campaña de simulación energética. Para ello se aplicará el modelo de simulación de optimización que permitirá detectar aquellas soluciones óptimas en función de la relación coste-energía.

4.1. Sarrera

Eraikinen karakterizazio termikoa eta esku-hartze proposamenen azterketa zehatzak ezinbestekoak bihurtzen dira edozein birgaitze energetikotan. Hala ere, eraikinen azterketa energetiko orokorrak burutzen direnean hainbat faktore aldi berean kontuan hartu behar dira, hala nola, isolamendu termikoa, airearekiko estankotasuna, eraikinaren orientazioa edo inguruko eraikinek sortutako itzalak.

Efektu hau kontuan hartu ahal izateko, eraikinen simulazio energetikoa tresna ezin hobean bihurtzen da. Hauek, eraikinen hainbat ezaugarri kontsideratzea ahalbidetzen dute, beraz, era honetan eraikinen azterketa globala burutzea posible da.

Beste aldetik, kontuan izan behar da parametro bakoitzak ez duela eragin berdina eraikinen berokuntza-eskarian. Beraz, birgaitze energetikoetan esku-hartze mota bakoitza lehentasun desberdina izango du. Gainera, parametro bakoitzak lortzen duen energia kontsumoaren murrizketa efektua proportzionalki desberdin izan daiteke parametro bakoitzaren balioa aldatzen den heinean. Adibide bezala, isolamendu termikoaren lodiera 4 cm-tik 6 cm-ra lortzen duen berokuntza-eskariaren murrizketa proportzionalki altuagoa da 18cm-tik 20cm-ra handitzeak lortzen duen murrizketarekin konparatzen bada.



Honi gehitu behar zaio esku hartze bakoitzak kostu ekonomiko desberdina dakarrela. Hortaz, esku hartze bakoitza kostu bat badu eta proposamen bakoitza energi murrizketa desberdina lortzen duenez, proposatuko den birgaitze energetikoaren erabakia zailtzen da.

Hau da, inbertituko den diru kopuruaren arabera murrizketa energetiko bat lortuko da, baina izan liteke kostu zehatz baterako bi energi murrizketa desberdin lortu izatea. Beraz zentzuzko erabakia energia gehien murrizten duen kasua aukeratzea izango litzateke. Berdin gertatuko litzateke helburua alderantziz izango balitz. Ondorioz, kasu guztien emaitzak lortu ondoren eta bi helburu hauek kontuan izanda, inbertsioaren kostua eta energia murrizketa, posible izango litzateke kasu optimoak detektatzea eta horrela lehentasunezko helburuaren arabera birgaitze energetikorako proposatuko den esku-hartzea erabakitzea.

Beraz, birgaitze energetikoen azterketak sakonki burutu ahal izateko eraikinen simulazioa beharrezkoa bilakatzen da. Gainera, kontuan izan behar dira parametro guztien efektua eta horren ondorioz hautaketa optimoa egitea optimizazio azterketen bidez.

4.2. Helmena eta helburuak

Atal honen helburu nagusia ebaluatutako eraikin motan lortu daitekeen berotze-eskaeraren murrizketa potentziala zehaztea da birgaitze energetiko esku-hartze proposamen desberdinen bidez. Horretarako eraikinen simulazio energetikoen bitartez eta erreferentziako eraikin batean oinarrituta, simulazio kanpaina bat garatuko da esku-hartze aproposenak detektatu ahal izateko. Helburu hau kontuan hartuta, beharrezkoa da berokuntza-eskarian efektua duten parametro desberdinak ikertzea. Gainera, kontuan izan behar da berokuntza-eskaera helburu zehatz bat lortzeko hainbat konbinazio desberdin hautatu daitezkeela. Beraz, azterketarako optimizazioan oinarritutako simulazioa proposatzen da. Era honetan helburu bat baino gehiago kontuan hartzea posible da, hala nola, esku-hartzearen kostua, lortutako konforta edo karbono isuriak murriztea.

Hortaz, kapitulu honek hurrengo helburuak ezartzen ditu:

- 4.1. Helburua** Erreferentziako eraikin eredu bat garatzea II. kapituluan lortutako datuekin oinarrituta eta eraikinaren jatorrizko egoeraren berokuntza-eskaria aztertzea.
- 4.2. Helburua** Birgaitze energetiko proposamen bakoitzaren banakako efektua aztertzea simulazio ereduaren berokuntza-eskarian.

4.3. Helburua Birgaitze energetiko neurri desberdinen efektu konbinatua aztertzea simulazio ereduaren berokuntza eskarian.

4.4. Helburua Kostu-energia loturari dagokionez aztertutako ereduaren birgaitze energetiko esku-hartze optimoak detektatu.


4.3. Metodologia

4.3.1. Kapituluaren egitura

Kapitulu honetan garatutako pausoak 4. 1. Irudian aurkezten dira. Helburu nagusia lortu ahal izateko, lehenik eta behin erreferentziako eraikin bat erabaki behar da ondoren simulazio eredu bezala balio dadin.

Era honetan esku-hartze mota ezberdinen efektua aztertuko da lehenengo ondorioak detektatzeko. Horretarako isolamendu termikoen lodiera, leiho mota batzuk eta airearekiko estankotasun maila desberdinak kontuan hartuko dira simulazio termikorako.

Hurrengo pausoa esku-hartzeen konbinazioa izango da kasu bakoitzeko kostua kontuan hartuta. Anlisi honen bitartez, optimizazio bat burutzea posible izango da esku hartze gomendagarrienak detektatzeko energia-kostu loturari dagokionez.



4. 1. Irudia- Kapitulu egituraren deskribapen grafikoa

Azkenik, kapituluaren ondorioekin jarraituko da eta optimizazio simulazio eredutik lortutako emaitzak esku-hartze optimoak detektatzea ahalbidetuko dute.

4.3.2. Simulazio ereduaren definizioa

Azterketa eremuan hainbat eraikin mota ezaugarri desberdinekin aurki daitezke. Aurkitu daiteken eraikin eredu mota zabalagatik erreferentziako eraikin bat hautatu



behar da oinarri bezala erabiltzeko eta horrela jatorrizko portaera energetikoa aztertzeko eta bero eskaria murriztu daitekeen potentziala kalkulatzeko.

Gainera, eraikinen beste ezaugarri batzuk asko mugatzen dute emaitzekin lortu daitezkeen ondorioak. Hau da, eraikinaren orientazioa, inguruko eraikinek sortzen dituzten itzalak erreferentziako eraikinean, eraikinaren aztertutako solairua (solairu tipoa, estalki azpiko solairua, soto solairua) eta ezaugarri gehiago oso desberdinak izan daitezke eraikin batetik bestera. Beraz ezaugarri guzti hauek kontuan hartu behar dira burutu behar den azterketan.


Erakinen simulazio ereduak kalkulatu metodologiak ahalbidetzen dute ezaugarri guzti hauek kontuan hartu ahal izatea. Hala ere, eraikinaren geometria bat garatzea ezinbestekoa bihurtzen da azterketa burutu ahal izateko. Horregatik azterketa eremuaren eraikin tipologia zabalenera bat hautatu da simulazioak garatzeko, horma bitarteko eraikin mota, 4. 2. Irudia. Beraz, azterketaren helmena eraikin mota honekin lortutako emaitzetan murrizten da, hau da beste eraikin motak hala nola izkinako eraikinak edo banakako eraikinak bere ezaugarri geometrikoak desberdinak direla eta ezin dute ikerketa honetan lortutako ondorio zehatz berak erabili. Hala ere, garatutako ikerketa metodoa eta ondorio orokorrak erabilgarri bihurtzen dira.



4. 2. Irudia- Aztertutako eremuaren horma bitarteko eraikin mota.

Eraikin mota honek inguruko eraikinen hormen artean kokatuta dago. Horren ondorioz, termikoki dagokionez, bero galerak murrizten dira alboko eraikinak erabiltzen ari badira, hau da inguratzaille termikoa azalera gutxiago du kanpoalderantz. Oro har, eraikinen simulazioetan ezaugarri hau adierazteko

azterketa eraikinaren alboko aldeak adiabatikoak bezala konfiguratzen dira. 4.3. Irudian erreferentziako eraikina erakusten da bere etxadi barruan. Alboko granate koloreko blokeak adiabatikoak dira, lila koloreko blokeak itzala sortzen duten eraikinak eta azkenik berde koloreko blokeak lurra adierazteko erabiltzen dira. 4.4. Irudiak garatutako simulazio ereduaren horma nagusia eta uharte-patioaren horma erakusten du.



4. 3. Irudia- Simulazio ereduaren ingurumena.



4. 4. Irudia- Azterketa kasuaren horma nagusia eta uharte-patio horma.

4.3.2.1. Ezaugarri konstruktiboak

Simulazio ereduaren erabili diren inguratzaile termikoaren ezaugarriak 4.1.Taulan adierazten dira. Bertan erabilitako materialen eroankortasun termikoa eta lodiera zehazten dira, hala nola, elementuaren kalkulaturako transmitantzia termikoa. Kanpoko (R_k) eta barrualdeko (R_b) azalerako erresistentzia termikoak ere zehazten dira elementuaren inklinazioaren eta bero fluxuaren noranzko arabera.



Aipatzekoa da erreferentzia hormarako kontuan hartu den ezaugarri termikoak II. kapituluaren kalkulaturako horma izan dela. Hau da, zubi termikoak kontuan hartzen duen kasua eta lodiera baxuena duena. Era honetan kasu txarrena kontuan hartu ahal izan da. Bere lodiera 0.40 metrokoa da eta transmisio termiko balorea $U = 2.48 \text{ W/m}^2\text{K}$.

Beste aldetik eraikinaren ereduaren leiho geometria ugari daudenez, hautatu egin da leihoaren beira eta markoaren erabilitako eroankortasun termikoak eta lodiera besterik zehaztea. Erabilitako softwarea leihoaren geometriaren arabera kalkulatu du transmisio termikoa.

4.. 1. Taula- Jatorrizko ingurutzaileraren ezaugarri termikoak

Erreferentzia horma		
Materiala	$\lambda_{\text{baliokidea}}$ (W/mK)	Lodiera (m)
2 kapituluaren kalkulaturako horma kasua	1.716	0.40
$R_k = 0.040 \text{ m}^2\text{K/W}$ $R_b = 0.13 \text{ m}^2\text{K/W}$		
U (W/m²K)		2.48

Estalki inklinatua		
Materiala	λ (W/mK)	Lodiera (m)
Zeramikazko teila	1.3	0.02
Aireztatutako aire kamera	0.23	0.02
Egurrezko taula	0.19	0.025
Aireztatutako aire kamera	1.05	0.10
Egurrezko taula	0.19	0.015
Luzitua	0.57	0.015
$R_k = 0.040 \text{ m}^2\text{K/W}$ $R_b = 0.10 \text{ m}^2\text{K/W}$		
U (W/m²K)		1.74

Estalki laua		
Materiala	λ (W/mK)	Lodiera (m)
Zeramikazko baldosa	1	0.015
Porlanezko morteroa	0.55	0.02
Xafla iragazgaitza	0.23	0.005
Egurrezko taula	0.19	0.025
Aireztatutako aire kamera	1.05	0.10
Egurrezko taula	0.19	0.015
Luzitua	0.57	0.015
$R_k = 0.040 \text{ m}^2\text{K/W}$ $R_b = 0.10 \text{ m}^2\text{K/W}$		
U (W/m²K)		1.83

Zolata		
Materiala	λ (W/mK)	Lodiera (m)
Zeramikazko baldosa	1	0.015
Porlanezko morteroa	0.55	0.05
Hormigoia	1.72	0.10
$R_k = 0.040 \text{ m}^2\text{K/W}$ $R_b = 0.17 \text{ m}^2\text{K/W}$		
U (W/m²K)		2.67


Leihoak		
Materiala	λ (W/mK)	Lodiera (m)
Egurrezko markoa	0.19	0.06
Beira sinplea	0.9	0.006
	U (W/m²K)	Geometria bakoitzaren arabera

Ingurutzailerik termikoaren beste ezaugarri nagusia aire estankotasuna da. Bere eragina eraikinaren bero eskarian handia da, beraz kontuan hartu behar den beste parametro termikoa da. Kasu honetan ere II. kapituluaren garatutako Blower Door Testekin lortutako emaitzetan oinarrituko da erabiliko den balioa. Saiakuntzetan emaitza zabala lortu direnez, batez besteko emaitza erabiltzea egokitzat hartu da, hau da $n_{50}=9.03h^{-1}$. Kontuan hartu behar den beste ezaugarri bat saiakuntzaren emaitza erreferentziako 50 Pa presio diferentzia hartzen dela, beraz n_{50} balioa presio diferentzia baldintza naturalerako kalkulatu egin behar da. Horretarako, metodo hedatuena Kronvall eta Persilyek garatu zutena da eta "rule-of-thumb" bezala ezagutzen da. Honek baldintza naturalerako gertatzen diren infiltrazioak kalkulatzeko hurrengo metodoa proposatzen du $n_{nat}=n_{50}/20$. II. kapituluaren 2.2. Taulan aipatu den bezala, hainbat eredu erabiltzeko eskuragarri daude. Hala ere, proposatutako eredu era sinpleago batean kontuan hartzen dituen baldintza naturalerako gertatzen diren infiltrazioak, beraz horren ondorioz eraikinaren simulaziorako eredu egokia da.

4.3.2.2. Aireztapen eta berokuntza sistemak

Eraikinaren bero baldintza termikoak eta Barruko Airearen Kalitatea mantentzeko instalakuntzen erabilera beharra du. Lehenik eta behin, barruko baldintzak ezarri behar dira eta horretarako Eraikuntzako Kode Teknikoak ezartzen dituen baldintzak erabiliko dira simulazio ereduaren.

Alde batetik eraikinenean hiru erabilera profil desberdinak daude, 4.5. Irudia, bizitegi erabilera, ez bizitegi erabilera eta erabilerarik ez duena. 4.2. Taula. Ikusi daitekeen bezala, bizitegi erabilera profilaren barruko tenperaturak ezartzen dira egunaren eta hilabetearen arabera, hala nola barruko kargak eta aireztapena. Hala ere, baldintza eredu honek ez du fideltasunik osoz aztertuko den eraikin tipologiaren benetako baldintzak adierazten. Kasu hauetan, orokorrean, ez dute etengabeko aireztapen sistemarik kasu gehienetan aireztapen naturala erabiltzen dutelako barruko aire baldintzak lortzeko. Beraz, simulazio eredurako ez da erabiliko aireztapen sistema mekanikorik.



4. 5. Irudia- Simulazio ereduaren erreferentziako solairuak eta erabilera profil mota (Gorria: erabilera Gabe, Berdea: Ez bizitegi erabilera, Urdina: Bizitegi erabilera)

4.2.Taula- Bizitegi erabilera profila Eraikuntzako Kode Tekniko arauaren arabera.

BIZITEGI ERABILERA	(24 ordu)				
	1-7	8	9-15	16-23	24
Goiko ezarpen temperatura (°C)					
Urtarrietik maiatzera	-	-	-	-	-
Ekainetik irailera	27	-	-	25	28
Urritik abendura	-	-	-	-	-
Beheko ezarpen temperatura (°C)					
Urtarrietik maiatzera	17	20	20	20	17
Ekainetik irailera	-	-	-	-	-
Urritik abendura	17	20	20	20	17
Karga sentikorra (W/m²)					
Lan egunak	2.15	0.54	0.54	1.08	2.15
Larunbata eta jaiegunak	2.15	2.15	2.15	2.15	2.15
Karga latentea (W/m²)					
Lan egunak	1.36	0.34	0.34	0.68	1.36
Larunbata eta jaiegunak	1.36	1.36	1.36	1.36	1.36
Argiztapena (W/m²)					
Lan egunak, larunbata eta jaiegunak	0.44	1.32	1.32	1.32	2.2
Ekipameduak (W/m²)					
Lan egunak, larunbata eta jaiegunak	0.44	1.32	1.32	1.32	2.2
Udarako aireztapena					
Lan egunak, larunbata eta jaiegunak	4.00	4.00	*	*	*
Neguko aireztapena					
Lan egunak, larunbata eta jaiegunak	*	*	*	*	*

* Aireztapen tasa Eraikuntza Kode Teknikoaren DB HS arauaren arabera da.

Era berean, simulazio ereduaren behe solairua ez du bizitegi erabilera. Orokorrean dendak, tabernak edo bulegoak izaten dira, beraz erabilera jakin baten definizioaren faltagatik, erabilera orokor bat hautatu da. Erabilitako baldintzak 4.3.Taulan adierazten dira. Kasu honetan ere ez da aireztapen mekanikoen baldintzak kontuan hartu aireztapen naturala kontuan hartu delako. Azkenik eraikinaren ataria eta soto solairuak erabilera ez dutenez ez dira baldintza zehatz batzuk ezarri espazio hauetan.

Simulazio ereduaren helburua berokuntza eskaria murriztea denez, erabilitako instalakuntzak ez dago zehazteko beharrik azterketa eraikinen alde pasiboaren ebaluazioan oinarritzen baita.

4.3. Taula- Ez bizitegi erabilera profila Eraikuntzako Kode Tekniko arauaren arabera.

EZ BIZITEGI ERABILERA Karga ertaina	(12 ordu)		
	1-6 15-16 21-24	7-14	17-20
Goiko ezarpen tenperatura (°C)			
Lan egunak eta larunbata	-	25	25
Jai egunak	-	-	-
Beheko ezarpen tenperatura (°C)			
Lan egunak eta larunbata	-	20	20
Jai egunak	-	-	-
Karga sentikorra (W/m²)			
Lan egunak	0	6.00	6.00
Larunbata	0	6.00	0
Jaiegunak	0	0	0
Karga latentea (W/m²)			
Lan egunak	0	3.79	3.79
Larunbata	0	3.79	0
Jaiegunak	0	0	0
Argiztapena (W/m²)			
Lan egunak	0	100	100
Larunbata	0	100	0
Jaiegunak	0	0	0
Ekipameduak (W/m²)			
Lan egunak	0	4.50	4.50
Larunbata	0	4.50	0
Jaiegunak	0	0	0
Aireztapena (%)			
Lan egunak	0	100	100
Larunbata	0	100	0
Jaiegunak	0	0	0

4.4. Emaitzak eta eztabaida

4.4.1. Eraikinaren jatorrizko energia eraginkortasun egoeraren azterketa

Jatorrizko eraikinaren portaera energetikoa aztertu ahal izateko, eraikin osoaren simulazioa burutu da orientazioaren arabera. Emaitzak 4.4.Taulan erakusten dira. Oro har, orientazio guztietan berokuntza-eskarian ez dira desberdintasun nagusirik detektatzen. Balio hau eraikin osoaren batez bestekoa izan ondoren emaitzak oso antzekoak dira eta besterik 332°-ko eta 152°-ko artean eta 242°-ko eta 62°-ko artean harreman txikia ikus daitezke orientazio ardatz bera dutelako.

4.4.Taula- Jatorrizko eraikin ereduaren berokuntza-eskaria orientazioaren arabera.

Berokuntza-eskaria (kWh/m ² urtean)	Eraikinaren orientazioa			
	332°	242°	152°	62°
Eraikin osoa	55.78	58.09	55.84	56.46

4.4.2. Proposatutako esku-hartzeen banakako hobekuntza azterketa

Hurrengo atala kontuan hartu ditu birgaitze energetikoen bitartez hobetu daitezken parametroak eraikinaren bero eskaria murrizteko. Horretarako parametro



bakoitzaren efektua kalkulatu da portaera termiko orokorrean duen eragina detektatzeko eta lehendabiziko ondorioak lortu ahal izateko.

Simulazio kasu kopurua handia dela eta, azterketa eraikinaren erreferentziako etxebizitza batean oinarrituko da. Arestian kalkulatu den bezala, eraikin osoaren emaitzak aztertzen badira, orientazioaren aldaketak ez du eragin sakonik desberdintasunak bereizteko eraikin batez besteko emaitza aztertzen duelako. Beraz, ondorio zehatzagoak lortzeko esku-hartzeen bitartez lortzen diren emaitzak ikusi ahal izateko etxebizitzako emaitzak aztertzea ezinbestekoa bihurtzen da.


Horren ondorioz, eraikin osoaren erreferentziako etxebizitza bat hautatu da hurrengo azterketak burutzeko. Horretarako, 332º-ko orientazioko eraikin eredia adibide bezala hartuta, 4.5.Taulan eraikinaren unitate bakoitzaren berokuntza-eskaria ikus daiteke solairuaren arabera. Etxebizitzak lehen solairutik laugarrenera dira eta atikoak ere bizitegi erabilera dute. Beste aldetik, A motako unitateak, kale nagusira ematen dute eta bere hormak begiratoki bat dute. B motako unitateak uharte-patioko hormak dira eta balkoiak dute bakarrik.

4.5.Taula- 332º-ko orientazioko jatorrizko ereduaren unitateen berokuntza-eskaria.

<u>Berokuntza-eskaria (kWh/m² urtean)</u>	
Eraikin osoa	55.78
Sotoa	-
Ataria	-
Behe solairuko lokala	44.11
Lehen solairua A	59.18
Lehen solairua B	55.89
Bigarren solairua A	56.31
Bigarren solairua B	50.28
Hirugarren solairua A	56.60
Hirugarren solairua B	47.96
Laugarren solairua A	60.92
Laugarren solairua B	47.79
A Atikoa	75.31
B Atikoa	64.09

Emaitzetan nabari daitekeen bezala behe solairuko lokala, lehen solairua, laugarren solairua eta atikoak emaitza partikularrak dute unitate bakoitzak baldintza desberdinak dituelako. Hau da, atikoen esposizioa kanpoko baldintzetara handiagoa da, beraz bere eskaria ere altuagoa izango da. Horren ondorioz atikoaren eskariaren handitzeak eragina du ere laugarren solairuko unitateetan. Antezkoa eragina du beheko solairuak lehen solairuko unitateekin. Beraz, era honetan eta emaitzek erakusten duten bezala, bigarren eta hirugarren solairuko unitateak emaitza adierazgarriagoak dute. Horren ondorioz, hurrengo azterketak burutu ahal izateko hirugarren solairuko B unitatea hautatu da adibide bezala. 4. 6. Irudia- Erreferentziako etxebizitza unitatea. 4. 6. Irudian erreferentziako etxebizitzaren ereduaren ezaugarri

geometrikoak ikus daitezke, hala nola simulaziorako kontsideratu diren azalera adiabatikoak inguruko unitateen erabilera adierazteko.




4. 6. Irudia- Erreferentziako etxebizitza unitatea.

4.4.2.1. Isolamendu termikoaren efektua

Isolamendu termikoa esku-hartze mota zabalenerarikoa da erakinen berokuntza-eskaria murrizteko. Hala ere, aipatu den bezala aztertutako kasuaren eraikin tipologian esku-hartze mota hauek murriztuta daude ondare arauengatik.

Horma nagusietan, itxura arkitektonikoa mantentzeko helburuarekin, kanpoko esku-hartzean mugatuta daude. Beraz, kasu hauetan BITS sistemak bakarrik aplikatu daitezke. Beste aldetik, uharte-patioko hormak, arauगतिक babes gabeko hormak direnez, KITS sistemak proposatu daitezke, 4.7.Irudia.

Lehenik eta behin, isolamendu termikoaren efektua detektatu ahal izateko, erreferentziako etxebizitzaren kalkulu parametrikotik bat burutu da. Horretarako, lehen aipatu bezala etxebizitzaren orientazioaz gain, isolamendu termikoaren lodiera ere aldakorra bezala konfiguratu da.



4. 7. Irudia- Proposatutako Barruko (BITS) eta Kanpoko (KITS) Isolamendu Termikoko Sistemak




Kasu honetan, efektu orokorra adierazteko, erabilitako isolamendu termikoaren gutxieneko lodiera 4 zentimetrokoa izan da, eta maximoa 20 zentimetrokoa, kalkulurako urrats tarte 2 zentimetrokoa izanik. Beraz, jatorrizko egoera kontuan izanda, orientazio bakoitzerako 10 kasu kalkulatu dira eta horrela orientazio guztiak kontuan hartzen badira 40 kasu.

Simulazio ereduaren ez da bereizi barruko edo kanpoko isolamenduaren kokapena kalkuluentzako garrantzia isolamendu termikoaren lodieran eta ezaugarri termikoetan dagoelako. Beraz, irudi beratik lortu daitezke BITS edo KITSein lortutako emaitzak. Azterketa sakonago bat BITS erabileraren bitartez inertzia termikoan sortutako aldakuntza kontuan hartu beharko luke. Erabilitako isolamendu termikoaren eroankortasun termikoa $\lambda = 0.035 \text{ W/mK}$ izan da.

Lortutako emaitzak, 4.8. Irudia, erakusten dute nola isolamendu termikoaren lodiera handitu ahala etxebizitzaren berokuntza-eskaria murrizten dela. Aipatzekoa da nola 10-12 zentimetroko lodiera arte garrantzizko murrizketa lortzen dela. Hala ere, lodiera hauek baino handiagoak erabiltzen badira, berokuntza-eskaria ez du proportzionalki lehen bezalako murrizketa efekturik. Beraz, ondorioztatu daiteke 12 zentimetro lodiera arte isolamendu termikoko esku-hartzeak eraginkorrak direla, lodiera horretatik gora beste esku-hartze motak burutzea gomendagarriagoak izango lirateke.

Isolamendu termikoaren bitartez lortu daitekeen jatorrizko berokuntza-eskariaren murrizketa %37tik %53ra izan daiteke isolamendua lodieraren eta etxebizitzaren orientazioaren arabera.



4. 8. Irudia- Erreferentziako etxebizitzaren berokuntza-eskaria isolamendu termikoaren eta orientazioaren arabera.

4.4.2.2. **Leihoen ordezkapena**

Leihoen aldaketa orokorrean efektu doblea izaten dute eraikinaren energia kontsumoan. Alde batetik transmisio termikoaren eta emisibitatearen arabera bero galerak murriztu ditzakete. Beste aldetik, bere instalazioa eta leihoaren airearekiko iragazkortasuna egokia badira, eraikinaren airearekiko estankotasuna hobetu daiteke. Baina azkeneko portaera hau oso aldakorra izan daiteke eta horren ondorioz saiakuntzak egitea beharrezkoak dira ingurutzaitetik zeharkatzen duten aire ihesak neurtzeko. Beraz, printzipioz leihoen aldaketak duen efektua eraikinaren energia eskarian bakarrik transmisio termikoen arabera adierazi daiteke.

Leihoak eraikinaren berokuntza-eskarian duten efektua detektatu ahal izateko, jatorrizko leihoaz gain, leiho berriak aztertuko dira. Azterketa adierazgarri izateko, hautatutako leihoak, oro har merkatuak gehien erabiltzen direnak izango dira. Hau da, alde batetik Beira Unitate Isolatzaile (BUI) arrunta erabiliko da, 4mm-ko beirekin eta 16 mm-ko kamerarekin. Beste aldetik BUI berdina erabiliko da baina emisibitate baxukoa. Azkenik errendimendu altuko BUI aztertuko da, normalean etxe pasiboetan erabiltzen direnak, hiru beirazkoak, horietako bi emisibitatea baxukoak, eta aire kamera bikoitzekoa. Erabilitako BUI berrien eta jatorrizko beiraren ezaugarri termikoak 4.6.Taulan adierazten dira.


4.6.Taula- Simulazio eredurako BUI eta jatorrizko beiraren ezaugarri termikoak.

Beira mota	Dimentsioak (mm)	Transmisio termikoa, U_g (W/m ² K)	Eguzki faktorea g (-)
Jatorrizko beira	6	5.71	0.819
BUI sinplea	4/16/4	2.72	0.77
Emisibitate baxuko BUI	4/16/4	1.37	0.629
Emisibitate baxuko BUI eta hiru beirazkoa	4/16/4/16/4	0.80	0.53

Emaitzak 4.9.Irudian adierazten dira etxebizitzaren orientazioaren arabera. Oro har, leihoekin lortutako emaitzen profila oso antzekoa da isolamendu termikoekin lortu diren emaitzekin alderatuta. Hau da, transmisio termiko baxuagoko BUI erabiltzen den neurrian lortutako berokuntza-eskaria gehiago murrizten da. Baina murrizketa honen jaitsieraren portzentaia aurreko erabilitako BUI- arekin alderatuta txikiagoa da. Beraz, etxebizitza zenbat eta eraginkorragoa lortu nahian, proportzionalki orduan eta zailagoa izango da helburua lortzea.

Emaitzen azterketa zehatzagoa egiten bada adieraztekoa da beti transmisio termiko txikiago erabiltzen denean berokuntza-eskaria murriztea lortzen dela; alabaina, 152° orientazioa duen kasua beira hirukoitza erabiltzen denean ia ez dago hobekuntzarik. Kasu honetan, hego-ekialdeko orientazioa edukitzearen ondorioz, beira

hirukoitzarekin lortzen den bero galeren murrizketa eguzkitik lortzen den erradiazio energia murrizketarekin orekatzen da. BUI mota honen eguzki faktorea txikiagoa da, beraz energia lortzeko posibilitate txikiagoa du emisibitate baxuko beira bikoitza kasuarekin alderatzen bada. Bi kasu hauen desberdintasuna berokuntza-eskarian soilik %0.4 da.



4. 9. Irudia- Erreferentziako etxebizitzaren berokuntza-eskaria leiho motaren eta orientazioaren arabera. Etxebizitzaren leiho guztiak aldatuz.

Azterketa honen bidez eta alderdi energetikoa soilik kontuan hartuta, leihoen efektua nabarmenekoa da. Posible da jatorrizko berokuntza-eskaria %12tik %21era murriztea merkatuan ohikoak diren BUI erabilia. Beste aspektu garrantzitsua izan da ezaugarri teknikoko BUI sistemak hobekak erabili arren, lortutako berokuntza-eskariaren murrizketa oso nabarmena lortu ez izatea orientazioa dela eta.

4.4.2.3. Airearekiko estankotasunaren efektua

Aire estankotasunaren maila hobetzen denean, nahigabeko aire ihesak saihesten dira. Beraz, behar den energi kopurua aire berri hotza berriz berotzeko murrizten da. Horretarako, merkatuan hainbat produktuak daude eraikinen estankotasuna hobetzeko, hala nola, mintz bereziak, zintak, impregnazio likidoak, poliuretano aparra, zinta aurre-konprimituak etab, 4.10.Irudia.




4. 10. Irudia- Airearekiko estankotasuna hobetzeko produktu adibideak (Iturria: Pro Clima).

Produktuen erabileraren arabera eraikinen estankotasun maila jakitea ezinezkoa denez, ezin da simulazio eredu maila zehatz batzuk ezartzea. Horren ondorioz, erabaki da simulazio tarteak estankotasunaren arabera $9 \text{ h}^{-1} \geq n_{50} \geq 0 \text{ h}^{-1}$ eta 1 h^{-1} ko urratsak erabiliko dira.


Kasu honetan, lortutako emaitzak 4.11.Irudia, isolamendu termikoen emaitzekin alderatuta, guztiz linealak dira. Hau da, zenbat eta airearekiko estankotasun gehiago izan etxebizitzak orduan eta berokuntza-eskaria txikiago lortzen da. Beraz, airearekiko estankotasuna hobetu nahian ahalik eta emaitzarik hoberena lortzea helburu bihurtzen da.

Kontuan izan behar da, airearekiko estankotasuna etxebizitzaren aireztapen sistemarekin batera kontuan hartu behar dela. Hau horrela ez bada etxebizitzaren barruko baldintzak onartezinak izango lirateke aireztapen falta egongo litzatekeelako. Orokorrean, aireztapen sistema mekanikoa erabiltzen ez bada, airearekiko estankotasuna n_{50} maila batetik baino gutxiago lortzea ez da gomendagarria. Hau da, infiltrazioak ez lirateke izango nahikoak era natural batean etxearen aireztapen beharrak asetzeko. Horren ondorioz, hainbat herrialdek aspektu honen inguruan araudia garatu dute, 4.12.Irudia, eta muga hau $n_{50}=4.5 \text{ h}^{-1}$ eta $n_{50}=2 \text{ h}^{-1}$ balioen artean ezartzen dute. Balio tarte hauen ondorioz, ikerketa honetan $n_{50}=3 \text{ h}^{-1}$ muga balioa erreferentzia bezala kontuan hartuko da, hau da airearekiko estankotasun maila hobetu nahian, aireztapen sistema mekanikoen instalakuntza beharrezkoa bihurtuko litzateke.



4. 11. Irudia- Erreferentziako etxebizitzaren berokuntza-eskaria airearikiko estankotasuna eta orientazioaren arabera.

Emaitzei dagokionez, argi ikusi daiteke aire estankotasunaren eta berokuntza-eskariaren arteko erlazioa. Hau da, estankotasuna maila $n_{50}=1 h^{-1}$ murriztu ahala berokuntza-eskariaren 2.1-2.6 kWh/m² urtean arteko murrizketa lortzen da. Beraz, aireztapen sistematik ez instalatzearen $n_{50}=3 h^{-1}$ -ko muga kontuan izanda, airearekiko estankotasuna hobetzen bada jatorrizko berokuntza eskaria %24tik %31ko murrizketa lortu daiteke. Azkenik, aireztapen sistema instalatzekotan, lortu daitekeen murrizketa maximoa, hau da aire-ihesik gabe, %36tik %46ra da.



4. 12. Irudia- Herrialdeen aireztapen sistema moten araudia airearekiko estankotasunaren arabera [1].

4.4.3. Eraikitako ondarearen birgaitze energetikoen esku-hartzeko konbinatuen optimizazio ereduak

Hurrengo atala arestian proposatu diren esku-hartzeen azterketa konbinatua garatuko da proposamen bakoitzaren kostua kontuan izanda. Horrela birgaitze energetiko aproposak detektatu ahal izango dira kasu bakoitzean ezarritako helburuaren arabera.

Horretarako, alde batetik Cypek eskuragarri duen "Generador de precios" datu-basea kontuan hartuko da esku hartzeen kostua kuantifikatu ahal izateko. 8.3. Eranskinean kontsultatu daitezke erabilitako esku-hartzeen ezaugarri zehatzak eta 4.7.Taulan optimizazio eredurako erabili diren esku hartzeen kostuak. Isolamendu termikoen eta leihoen kasuan kostu guztia kalkulatzeko instalatutako metro karratuen arabera izan da. Hala ere, airearekiko estankotasuna kuantifikatzeko prozedura desberdina jarraitu da.

Alde batetik, jatorrizko estankotasuna kontuan hartuta $n_{50} = 9 \text{ h}^{-1}$, $n_{50} = 7 \text{ h}^{-1}$ baliora iristeko ez da gehitu kosturik esku-hartze sinple batekin zeharbidez erraz lortuko litzatekeelako. Hau da, adibide bezala, leiho berriak instalatzean airearekiko iragazkortasun txikiago dutenez (leiho berak duen iragazkortasun erresistentzia, ez leihoaren instalakuntzarekin lortzen den estankotasun hobekuntza) edo isolatzaile termikoa jartzen denean, hormen juntura berriak burutzen direnez, aire filtrazioak murriztea lortzen da.

Beste aldetik hurrengo estankotasun mailak kostu zehatz bat gehitu zaie lortutako hobekuntzaren arabera. $n_{50} = 5 \text{ h}^{-1}$ maila oso eraginkor ez izan arren, instalakuntza aldetik xehetasun minimoa behar du. Oro har, leihoaren perimetroan instalakuntzan airearekiko erresistentzia eskaintzen duen ohiko material bat erabiltzen bada (poliuretano aparra adibidez) estankotasun hori lortu daiteke. Maila hau $n_{50} = 3 \text{ h}^{-1}$ arte hobetzeko, material bereziak erabiliz lortu daiteke, hala nola zinta aurre konprimituak, leihoen perimetroa zigilatzeke zintak, instalakuntzen kableak pasatzeko elementu itsasgarriak etab. 8.3. Eranskinean erantsi diren materialen aurrekontuen arabera estimatu dira airearekiko estankotasuna hobetzeko kostuak. Azkenik, erabilitako azken maila $n_{50} = 1 \text{ h}^{-1}$ eraginkortasun altuko eraikinetan soilik lortu daiteke. Horretarako, material bereziak erabiliz gain azterketa bereziak burutu behar dira (Blower Door Test, termografia etab), beraz kostuaren handitzea proba hauek burutzeko beharrezatik da. Beste aldetik, II. kapituluaren lortutako ondorioen arabera, $n_{50} = 1 \text{ h}^{-1}$ inguruko emaitzak birgaitze orokorra egin diren eraikinetan, hau da barruko egitura ere aldatu dutenak, soilik detektatu dira. Hala ere, airearekiko estankotasun balio honekin lortu litezkeen emaitzak ere kontuan hartuko dira.



Aipatzekoa da kasu honetan helburua esku-hartze desberdinen arteko konparaketa dela. Beraz, kostuan ez dira kontuan hartu birgaitze energetikorakoen beste partida edo kostu osagarriak, hala nola, aldamiok, proiektuaren garapen kostua, obralizentzia etab.

Simulazio eredurako 3 esku hartze mota erabili dira, bakoitzak 6, 4 eta 5 posibilitate desberdinekin, beraz 120 simulazio eredu desberdin dira eta 4 orientazioetan simulazioak burutuko direla kontuan izanda, guztira 480 kasu kalkulatu dira.

4.7.Taula- Optimizazio eredurako proposatutako esku-hartzeen kostua.

Esku-hartze mota	Esku-hartzearen proposamen zehatza	Kostua
Ingurutzailer termikoaren isolamendua	Jatorrizko horma	0 €
	4 cm	62.06 €/m ²
	8 cm	71.70 €/m ²
	12 cm	82.60 €/m ²
	16 cm	97.93 €/m ²
Leihoak	20 cm	108.46 €/m ²
	Jatorrizko leihoak	0 €/m ²
	BUI 4/16/4	425.62 €/m ²
	BUI Low E 4/16/4	454.06 €/m ²
Airearekiko estankotasuna	BUI Low E 4/16/4/16/4	487.34 €/m ²
	Jatorrizko estankotasuna $n_{50}=9\text{ h}^{-1}$	0 €
	$n_{50}=7\text{ h}^{-1}$	0 €
	$n_{50}=5\text{ h}^{-1}$	200 €
	$n_{50}=3\text{ h}^{-1}$	400 €
	$n_{50}=1\text{ h}^{-1}$	750 €

Optimizazio simulazioen emaitzak etxebizitzaren orientazioaren arabera 4.13.Iruditik 4.16.Irudira erakusten dira.

Emaitzen deskribapen orokorra burutu ahal izateko 4.13.Irudia oinarri bezala erabiliko da eta 4.8., 4.9. eta 4.11.Irudietan lortutako emaitzen profilak kontuan ere hartuko dira.


Lehenik eta behin, emaitzak garbiago deskribatu ahal izateko $n_{50}=5\text{ h}^{-1}$, $n_{50}=3\text{ h}^{-1}$ eta $n_{50}=1\text{ h}^{-1}$ bere kostu gehigarriarekin eta kostu hau gabe irudikatu dira emaitzen profil orokorra errazagoa ikustea ahalbidetzen duelako. Horren ondorioz, ezkerreko aldean adierazi dira airearekiko estankotasun kostu gehigarria (200, 400 eta 750€) maila bakoitzerako. Beste aldetik, kontsideratu da badaudela kasu batzuk ezinezkoak direla gauzatu daitezten. Adibide bezala, ezinezkoa izango litzateke estankotasun maila altua lortzea burutzen den esku-hartzea bakarrik isolatzaile termikoaren instalakuntza kontuan hartzen badu eta jatorrizko leihoak mantentzen baditu. Hauek ez badira aldatzen, airearekiko estankotasun maila txikia mantentzea eramaten dute. Berdina gertatuko litzateke isolatzaile termikoa instalatzen ez den kasuetan. Beraz, kasu hauek marradun itzal batekin adierazi dira.

Emaitzak lau taldetan sailkatzen dira. Lehengoa ezkerreko aldean kokatuta dago marradun elipse batekin adierazita eta 5 kasu osatzen dute. Kasu hauek, arestian aipatu den bezala, jatorrizko kasuak izango litzateke, hau da esku-hartze motarik gabe. Bakarrik estankotasun mailaren arabera bereizi dira eta horren ondorioz berokuntza eskariaren desberdintasunak sortzen dira.

Bigarren taldea, aurreko taldearen eskuinean dago eta zirkulu marradun batekin markatuta dago. Kasu hauek isolamendu termikoa gehitu diren kasuak dira eta estankotasun mailaren arabera ere sailkatuta daude. 4.8. Irudian detektatu den bezala, garbi ikusten da profilak lerro zuzen batera hurbiltzeko duen joera 12 cm-ko isolamenduaren lodieratik aurrera.

Hirugarren taldea leihoak soilik ordezkatzeko diren esku-hartzeen kasuak jasotzen ditu. Bereizten den bezala, hiru zutabeaz osatuta dago, bakoitzak leiho mota batekin dagokio: BUI sinplea, emisibitate baxuko bikoitzeko beira eta beira hirukoitza.

Azkeneko taldea, eskuineko aldean kokatuta dagoena, leihoen ordezkapena eta isolatzaile termikoaren instalakuntza aldi berean burutzen diren kasuak jasotzen ditu. Hauek berokuntza-eskariaren murrizketa altuena lortzen dute eta aldi berean inbertsio altuena behar duten kasuak dira. Talde honetan zailagoa da bereiztea portaera eredu bat kasu kopuru asko kontzentratu direlako eremu berean. Hala ere eredu hau bigarren eta hirugarren taldeko forma jarraitzen du.



4. 13. Irudia- 62°-ko orientazioa duen erreferentziako etxebizitzaren optimizazio simulazioaren emaitzak.

Taldean sailkapena burutu ondoren, optimizazio simulazioaren emaitza guztien kasu optimoa erabakitzeko lehenik eta behin zein den helburu nagusia eta horren balioa ezartzea beharrezkoa da. Birgaitze energetikoen helburua energia murrizketa denez

berokuntza-eskaria helburu bezala markatuko da. Beste aldetik, adibide gisa Passivhaus estandarra EnerPHit ziurtagiriarekin [2] birgaitze energetikoentzat markatzen duen helburua ezarri daiteke, hau da azterketa kasuaren klima zonarentzat 20 kWh/m² urtean, 4.8.Taula.

4.8.Taula- Berokuntza-eskariaren helburua EnerPHit ziurtagiria betetzeko klima zonaren arabera [2].

Zona climática de acuerdo al PHPP	Calefacción	Refrigeración
	Demanda de calefacción máxima [kWh/(m ² a)]	Demanda de refrigeración + deshumidificación máxima [kWh/(m ² a)]
Polar	35	igual al requerimiento para Casa Pasiva
Frío	30	
Frío - templado	25	
Cálido - templado	20	
Cálido	15	
Caluroso	-	
Muy caluroso	-	

Ondoren, helburu nagusia ezarri eta gero kasu optimoa detektatzeko fasea da. 4.13. Irudiaren adibidean, 20 kWh/m² urtean helburu nagusia lerro marradun batekin markatu egin da. Lerro honen azpitik dauden kasuak guztiak beteko lukete ezarritako helburua, baina kostuaren bigarren helburua garbi zehazten du soilik kasu bat beteko lukeela ezarritako beharra, hau da, birgaitze energetiko optimoa izatea kostu-energia loturari dagokionez.

Kasu optimo honen ezaugarriak hurrengoak dira: 4 cm-ko isolamendu termikoa, BUI sinplea eta $n_{50} = 3 \text{ h}^{-1}$. Adibide honen beharrezko inbertsioa 5082.48 € izango litzateke eta berokuntza-eskaria 16.34 kWh/m² urtean izatea lortuko luke, hau da jatorrizko eskaria %73.7 murriztuko luke.


Aipatzekoa da murrizketa hau handiago izan litekeela, baino birgaitze energetikoa burutzeko zailtasuna ere areagotu litzateke. Hau da, alde batetik, estankotasun maila $n_{50} = 3 \text{ h}^{-1}$ balioa murriztu nahian, estankotasun saiakuntzak egiteaz gain, aireztapen naturalarekin bakarrik gomendatzen den muga gainditzen denez sistema mekanikoen instalakuntza beharra sortzen da. Beraz, esku-hartze mota hauen birgaitze energetikoa garestiago bihurtzen da. Honek azterketa sakonagoa beharko luke eta tesiaren helburua inguratzaile termikoen esku-hartzeak bakarrik helburu bezala duenez, sistema aktiboen ikerketa beste azterketa beharko luke. Hala ere, esku-hartze mota hauen estimazioa, etxe bakoitzeko 2000-3000 € inguruko gehikuntza izango litzateke, bero berreskurapeneko aireztapen mekaniko sistemaren instalakuntza dela eta. Beraz kasu hauek, irudian eskuinago kokatuko lirateke eta

kasu optimotik urrunduko lirateke. Alderdi energetiko-kostutik ikusita ez lirateke izango gomendagarriak, hauek alderdi energetiko-konfortatik ikusi beharko lirateke. Sistema hauekin BAKaren maila nabarmenki hobetzen da eta era iraunkor batera mantentzea lortzen da. Beraz kasu hauen ikerketa burutu ahal izateko, aztertutako helburu nagusia aldatu beharko luke.


Beste aldetik, isolatzaile termikoaren lodiera handituz, berokuntza-eskaria ere murriztea lortuko litzateke. Kontuan hartu beharko liratekeen aspektuak, alde batetik arestian aipatutako profilak lerro zuzen baten hartzen duen joera eta beraz 12 cm-tik berokuntza eskaria ez dela nabarmenki hobetzen. Eta beste aldetik, esku-hartzea horma nagusietan bada barrualdetik burutu beharko litzateke BITS batekin, beraz isolamendu termikoaren lodiera barneko erabilgarritasun azalaren galerara mugatzen da. Beraz aspektu honek etxearen jabearen araberakoa da.

Leihoen efektuari dagokionez, leihoen esku-hartzea bakarrik burutu diren kasuetan 4.9.Irudian lortutako profil bera bereiz daiteke. Hau da, berokuntza-eskariaren murrizketa errendimendu handiko BUI instalatzen diren neurrian.


Emaitzen deskribapen orokorra azertu ondoren, airearekiko estankotasunaren estimatutako kostua kontuan hartzen dituzten kasuak aztertzeko beharra dagoela jakinda eta burutzeko ezinezkoak diren kasuak baztertuta (marradun itzalaren barruan), ondoren orientazio bakoitzeko lortu diren kasu optimoak 4.9.Taulan aurkezten dira.



4. 14. Irudia- 152^o-ko orientazioa duen erreferentziako etxebizitzaren optimizazio simulazioaren emaitzak.



4. 15. Irudia- 242°-ko orientazioa duen erreferentziako etxebizitzaren optimizazio simulazioaren emaitzak.



4. 16. Irudia- 332°-ko orientazioa duen erreferentziako etxebizitzaren optimizazio simulazioaren emaitzak.

Lortutako kasu optimoei dagokionez, adierazi daiteke hegoalderantz orientatutako ez dauden kasuek esku-hartze bera eman dutela. Hauek 4 cm-ko isolamenduarekin, BUI isolatzaile arrunta eta $n_{50} = 3 \text{ h}^{-1}$ esku-hartzeen beharra eman dute. Beste aldetik, hurrengo bi kasuek, hegoalderantz orientazioa txikia dutenak, energia murrizteko efektu txikiago duten esku-hartzea eman dute. 152° kasua isolamendu gabekoa baina $n_{50} = 1 \text{ h}^{-1}$ eta 242°-ko kasua 4 cm-ko isolamendu termikoarekin eta $n_{50} = 5 \text{ h}^{-1}$. Ikusi daitekeen bezala, lortutako berokuntza-eskarien murrizketa orientazioaren arabera %58.40tik - %73.60raino da.

4.9.Taula- Optimizazio simulazioetan lortutako esku-hartze kasu optimoak.

Orientazioa (°)	Inbertsioaren kostua (€)	Berokuntza-eskaria (kWh/m ² urtean)	Jatorrizko berokuntza-eskariaren murrizketa (%)	Horma	Beira	Airearekiko estankotasuna n ₅₀ (h ⁻¹)
242	4882.48	17.50	67.85	4 cm-ko isolamenduarekin	BUI 4/16/4	5
332	5082.48	16.78	73.60	4 cm-ko isolamenduarekin	BUI 4/16/4	3
62	5082.48	16.34	73.71	4 cm-ko isolamenduarekin	BUI 4/16/4	3
152	4291.66	19.75	58.40	Jatorrizko horma	BUI 4/16/4 emisibitate baxukoa	1

Arestiko kasuak esku-hartze optimoak izan arren, bi aspektu zehatzak kasu hauek zailak bihurtzen dute burutzeko. Alde batetik, aipatu den bezala kasu bat airearekiko estankotasuna n₅₀= 1 h⁻¹ izan da, beraz aireztapen mekanikoaren beharra beharko luke. Horren ondorioz ikerketa honen helburua kontuan izanda kasu hau baztertuko litzateke. Eta beste aldetik, lan mota hauek bizitegi eraikinetan burutzen direnez, esku hartzeak ahalik eta antzekoak izan beharko lirateke. Beraz isolamendu termikorik ez duen kasua ere baztertuko litzateke.

Horren ondorioz, bi esku-hartzeen talde desberdin proposatzen dira. Alde batetik babesik gabeko hormentzako KITSen bitartez, 4.10.Taula, eta beste aldetik horma nagusietan esku hartzeak burutu ahal izateko BITSen bitartez, 4.11.Taula.

4.10. Taula- Optimizazio simulazioetatik proposatutako esku-hartzeak KITS sistemen bidez.

Orientazioa (°)	Inbertsioaren kostua (€)	Berokuntza-eskaria (kWh/m ² urtean)	Jatorrizko berokuntza-eskariaren murrizketa (%)	Horma	Beira	Airearekiko estankotasuna n ₅₀ (h ⁻¹)
242	6014.90	4.83	91.12	12 cm-ko isolamenduarekin	BUI 4/16/4/16/4	3
332	6014.90	6.40	89.93	12 cm-ko isolamenduarekin	BUI 4/16/4/16/4	3
62	6014.90	6.30	89.86	12 cm-ko isolamenduarekin	BUI 4/16/4/16/4	3
152	5755.31	2.13	95.51	12 cm-ko isolamenduarekin	BUI 4/16/4 emisibitate baxukoa	3

KITSen kasuan kontuan izan den irizpidea 4.. 8. Irudiaren bitartez lortutako ondorioan oinarritzen da. Kasu hauetan kanpoko isolamendua instalatuko denez, 12cm-ko isolamendua proposatzen da, lodiera hau baino gehiago erabiltzen bada ez delako lortzen hobekuntza nabarmenik. BITSen kasuan 4 cm-ko lodiera proposatzen da horrela ez delako barruko azalera erabilgarri asko galtzen eta gainera bat datorrelako kasu optimoetan lortutako emaitzekin.



4.11. Taula- Optimizazio simulazioetatik proposatutako esku-hartzeak BITS sistemen bidez.

Orientazioa (°)	Inbertsio kostua (€)	Berokuntza-eskaria (kWh/m ² urtean)	Jatorrizko berokuntza-eskariaren murrizketa (%)	Horma	Beira	Airearekiko estankotasuna n ₅₀ (h ⁻¹)
242	5563.90	9.09	83.30	4 cm-ko isolamenduarekin	BUI 4/16/4/16/4	3
332	5563.90	11.28	82.25	4 cm-ko isolamenduarekin	BUI 4/16/4/16/4	3
62	5563.90	11.09	82.16	4 cm-ko isolamenduarekin	BUI 4/16/4/16/4	3
152	5304.31	5.52	88.37	4 cm-ko isolamenduarekin	BUI 4/16/4 emisibitate baxukoa	3

Airearekiko estankotasunari dagokionez, n₅₀= 1 h⁻¹ hautatu da helburu bezala aireztapen sistema mekanikoen beharra ez edukitzeko eta aire-ihesek sortzen dituzten galera termikoak ahalik eta gehien murrizteko.

Azkenik, leihoen kasuan beira hirukoitzako BUI proposatu dira kasu guztientzat 152° orientaziorako kasurako izan ezik. Azken honetan, 4.9. Irudian erakusten den bezala ez da hobekuntza nabarmenik lortzen BUI mota hauekin, gainera orientazio haueko etxebizitzak berez berokuntza-eskaria txikiagoa lortzen dute emisibitate baxuko beira bikoitzarekin beste orientazio eta beira hirukoitzekin alderatuta.

Proposatutako kasuekin lortzen diren jatorrizko berokuntza-eskariaren murrizketa orientazioaren arabera, %89tik %95raino dira KITS kasuetan eta %82tik %88raino BITS kasuetan. Beraz, emaitzen arabera eta kontuan izanda kWh/m² urtean ezarritako berokuntza helburua posible da birgaitze energetikoen bitartez aztertutako eraikin tipologiaren energia eraginkortasuna erabat hobetzea. Hala ere, kontuan izan behar da burututako ikerketa erreferentzako etxebizitza baten emaitzetan oinarritzen dela. Beraz eraikin osoaren edo eraikinaren beste unitateen berokuntza-eskaria, hala nola atikoetan edo lehengo solairuko etxebizitzetan, areagotu daiteke kasu hauek kanpoko baldintza klimatikoak gehiago jasaten dutelako. Edonola ere, garatutako ikerketa era berean aplikatu liteke eraikin osorako beste kasuetan ere portaera energetikoa aztertu ahal izateko.

4.5. Ondorioak

Kapitulu honen helburua esku-hartze pasiboen bitartez lortu daiteken jatorrizko berokuntza-eskariaren murrizketa zehaztea da eraikitako ondarearen tipologian.

Horretarako, lehenik eta behin simulazio eredu bat oinarri bezala hartuta, esku hartze bakoitzaren efektua aztertu da. Analisi honen bidez inguratzaile termikoan eragina duten ezaugarri garrantzitsuenak detektatzea posible izan da. Isolamendua termikoa,

leihoen aldaketa edo airearekiko estankotasuna izan dira kontuan hartu diren parametroak simulazioan.

Ondoren, esku-hartze guztien efektu konbinatua aztertu da kasu bakoitzaren inbertsio kostua kontuan izanda; era honetan, guztira 420 simulazio eredu kalkulatu egin dira. Azterketa honek ahalbidetu egin du birgaitze optimoak detektatzea energia-inbertsio kostuaren loturari dagokionez.

Beraz, emaitzen analisi orokorra aztertu ondoren, kapitulu honekin lortu diren ondorio zehatzak honako hauek dira:

- Isolamendu termikoaren bitartez lortu daitekeen berokuntza-eskariaren murrizketa jatorrizko eskariaren %37tik-%53raino da isolamendu termikoaren lodieraren eta erreferentzia kasuaren orientazioaren arabera.
- Berokuntza-eskariaren murrizketa kurbak isolamendu termikoaren lodieraren arabera asintota horizontalaren joera du. Isolamendu termikoaren 10 eta 12 zentimetro baino gehiagoko lodieraren handitzeak ez du nabarmeneko emaitzarik.
- Airearekiko estankotasunaren hobekuntza 2.1-2.6 kWh/m² urtean arteko murrizketa lortzen du n₅₀ maila 1 h⁻¹ murrizten denean.
- Jatorrizko berokuntza-eskariaren %24-%31 bitarteko murrizketa lortu daiteke aireztapen natural sistema mantentzen bada. Beste aldetik, lortu daitekeen murrizketa maximoa %36tik %46era izan daiteke aireztapen sistemak erabiltzen badira Barruko Airearen Kalitatea mantendu ahal izateko.
- Leiho aldaketen bitartez, posible da jatorrizko berokuntza-eskaria %12-%21 arteko murrizketa lortzea.
- Erabilitako BUI mota orientazioaren arabera izan behar da. Hegoalderantz orientatutako etxebizitzetan ez da oso nabarmeneko emisibitate baxuko beira hirukoitza sistemekin lortzen den berokuntza-eskariaren murrizketa emisibitate baxuko beira bikoitzeko sistemekin alderatzen bada. Desberdintasun hau aztertutako kasuan %0.4 da.
- Aztertutako simulazio ereduaren arabera, birgaitze energetikoen kasu optimoen bitartez jatorrizko berokuntza-eskaria etxebizitzaren orientazioaren arabera %58tik-%73raino murriztu daiteke.



- **Proposatutako birgaitze energetikoen bitartez, lortutako berokuntza-eskariaren murrizketa etxebizitzaren orientazioaren arabera %89tik-%95raino da KITSak erabiltzen badira eta %82tik-%88raino BITSen kasuetan.**

V. Kapitulu

Capítulo V

Eraikinak monitorizatzeko tresnak

Herramientas para la monitorización de edificios



Laburpena:

Aldagaiak neurtzea, kontrolatzea eta erregistratzea fase espermental guztietan funtsezko zereginak dira. Kapitulu honetan eremu honetako mugak konpontzeko aukera eman duen ikerketa ildoetako bat aurkezten da. Kapitulu honek ikerketa-kasu zehatz batean egindako lana garatzen du, burututako monitorizazioa eta erabilitako ekipamenduaren aurreko garapena azalduz. Bestalde, kapitulu honetan lortutako emaitzen zati bat *"Environmental monitoring system based on an Open Source Platform and the Internet of Things for a building energy retrofit"* Automation in Construction nazioarteko aldizkariaren VSI: Smart Infrastructure-IoT edizio berezian argitaratutako artikuluan aurkeztu zen

Resumen:

La medición, control y registro de variables se convierte en una de las tareas fundamentales en toda fase experimental. Este capítulo presenta una de las líneas de investigación que ha permitido dar solución a las limitaciones existentes en este campo. El capítulo desarrolla el trabajo llevado en un caso concreto de estudio a través de su monitorización y el desarrollo previo del propio equipo utilizado. Por otro lado, parte de los resultados obtenidos en este capítulo fueron presentados en el artículo *"Environmental monitoring system based on an Open Source Platform and the Internet of Things for a building energy retrofit"* publicado en la edición especial VSI: Smart Infrastructure-IoT de la revista internacional *Automation in Construction* en el año 2018.

5.1. Sarrera

Gaur egun, hiriek erabateko aldaketa operatiboak jasaten ari dira. Hiri Adimentsuak deituriko modelo berri hauek biztanleen bizitza kalitatea hobetzen saiatzen dira inguruko datuak bilduz Informazio eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) erabilia [1]. Egoera berri honek aukera ematen die biztanleei hiriak osatzen dituzten elementu adimentsuekin modu eraginkorragoan elkarreragiteko, hala nola, azpiegiturak, eraikuntzak edota eraikinak (Smart Infrastructures, Constructions and Buildings SICB). Bere eragina dela eta, fenomeno honek interes handia piztu du akademia eta industria arloetan [2].

Gainera, Gauzen Interneta (GI) Hiri Adimentsu eta SICB-en helburuak lortzen laguntzen duen teknologia da [3]. Ibilgailuen trafikoaren [4] eta aparkalekuen kudeaketaren optimizazioa [5], ur-ihesen detekzio [6] eta kudeaketa [7] sistemen garatzea, eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzea [8] edo etxetresnak [9] dira teknologia honen aplikazioaren adibide batzuk eraikin eta hirietan.

Birgaitze energetikoaren arloan, begietsitako alderdi bat eraikinen monitorizazioa da. Monitorizazioa mota honetako esku-hartzeak optimizatzeko tresna gisa erabili daiteke. Izan ere, birgaitze prozesuaren ondorioz lortutako hobekuntzen konparazio kuantitatiboa ahalbidetzen du, arreta berezia jarriz parametro bereizgarrietan: energia kontsumoa, barruko erosotasuna, airearen kalitatea edo inguratzaile termikoaren ezaugarriak. Hala ere, batzuetan ezin dira aurrera eraman monitorizazio kanpaina hauek bere gehiegizko kostuagatik eta beharrezko baliabideek proiektu gehienen baliabideak gainditzeko [10].



Bestalde, indar handia hartzen ari den ikerketa lerroetako bat software eta hardware irekiko aplikazioekin loturik dago. Adar horietako bat Iturburu Irekiko Plataforma (IIP) ezagunak dira. Hauek norberak garatutako proiektuak burutzea ahalbidetzen dute ezagutza hori komunitatearekin partekatuz [11]. Gainera, teknologia hau erabiltzen ari den aplikazioetako bat ingurumen monitorizazioa da [12]. Honek eraikinen ingurumen-portaeraren ikerketa era errazago batean gauzatzea ahalbidetzen du, eta honek aldi berean erabakiak hartzeko prozesua errazten du.

Ikerketa Taldeak duen esperientzia eraikinen energiaren monitorizazioan [10,13,14] eta gaiari buruzko egin den literatura berrikuspenaren bidez [15-21] zenbait hutsune, arazo eta alternatiba berri detektatu dira. Monitorizazio kanpainetan aurki daitezkeen arazoen artean honako hauek daude: aldagai kopuru mugatuko monitorizatzeko gailuak, kostu altuko eskuratze-gailuak, datuen biltegitate gaitasun baxuko ekipoak, plataforma edo eskuratze-gailu desberdinak behar izatea neurketak egiteko edo denbora errealean datuak kontsultatzeko gai ez izatea. Arrazoi hauek ondorengo ikerketa garatzea motibatu dute, bere helburua monitorizazioaren sektorean aurki daitezkeen erronkei aurre egitea izan delarik. Horretarako eta Hiri Adimentsuen eremuan sistema berritzaile bat garatzeko, aipatutako tresna eta teknologia berrien konbinazioa funtsezkoa bihurtu da.

5.1.1. Eraikinen monitorizazioa

Eraikinen monitorizazioa tresna oso erabilgarria da arlo askotan. Etxeko mailan, etxeko energiaren monitorizazioak eta automatizazioak energia modu eraginkorrago eta zentzuago batean erabiltzera bultzatzen dute kontsumitzaileak. Izan ere, modu honetan bere etxetresna elektrikoaren ikuspegi orokor bat izango lukete [22]. Hala ere, azpimarratzekoa da monitorizazioa ikerketa helburu askotarako izan daitekeela baliotsua. Horren adibide ezaugarri termikoen ereduaren garapenean dugu [14], edota eraikinen energia kalibraketa eta baliozkotze prozesuetarako datu gisa [23].

Etxeko sektorean, monitorizazioaren helburuetako bat energia kontsumoa gutxitzea da erabiltzaileari energiaren inguruko informazioa eskainiz. Informazioa hau, Darbyren arabera [24], hiru printzipioetan oinarritzen da: energiaren erabileraren ezagutza, erabiltzailearen portaeraren aldaketa eta energia kontsumoan gertatu diren aldaketen interpretazioan. Egile beraren arabera, kasu gehienetan, energia kontsumoa ikusezina da erabiltzailearentzat. Horregatik, feedback mota desberdinak tresna gisa erabilia, hauen eragina kontsumitzaileen energia portaeran aztertu zuen. Ikerketa honekin erakutsi zuen "denbora errealeko irakurgaiak eskainiz" (feedback zuzena) %5-15-eko energia aurrezteko lortu zitekeela eta zeharkako informazioaren (fakturazioa) bitartez, aldiz, %0-10. Shaikenen ikerketak [25] adierazten duenez, "Oro

har, energia ezezaguneko jarduerak eraikinaren energia errendimenduari heren bat gehitu diezaiokete". Horrez gain, automatizazioa erabiliz posible da eraikinen %30-eko energia aurrezte.

Laburbilduz, argi geratu dira monitorizazioak eta automatizazioak aurkezten dituzten abantailak, baita ere interes handia sustatu duela bere inplementazioak eraikinen energia optimizazioaren arloan (eraikinetako teknikaria, ikertzaileak, energia kudeatzaileak...). Hala ere, oraindik burutu gabeko erronkek (gailuen bateragarritasuna, segurtasuna, kostua, sentsoreak garatzeko potentziala eta IKT-en azpiegitura falta) [26] zailtzen dute bere aplikazio eraginkorra eskala handian [27-29]. Hori dela eta, gaur egun, masa hedapen gaitasunak dituzten tresna irekiagoak beharrezkoak dira.

5.1.2. Gauzen Interneta

Gauzen Internetari (GI) hurrengo Industria Iraultzaren edota Interneten hurrengo bilakaeraren izena eman zaio. Enpresek, gobernuek eta kontsumitzaileek mundu fisikoarekin elkarreragiten duten moduan eragina izango du eta horretarako erabiliko diren tresnak Internet bidez konektaturiko sentsoreak, kamerak, mugikor adimentsuak eta beste GI gailu adimentsuak izango dira. Cisco-ren arabera [30], Gauzen Interneta (GI) internetera konektatutako "gauza edo objektuen" zenbakia pertsonen zenbakia baino handiago izan zenean gertatu zen. Enpresak adierazten duenez, momentu hori 2008 eta 2009 artean gertatu zen mugikor adimentsu eta tablet-en erabilerak igoera esponentziala izan zuenean.

GI ideia indar nagusia eguneroko bizitzan eta erabiltzaileen portaeran izango duen eragin datza [31]. GI paradigma teknologikoa da eta eguneroko gailuen konektibitatea areagotzeko helburua du. Hori dela eta, datozen urteotan horrelako teknologien hazkundera eta erabilera esponentzialki handituko da aplikazio eremu anitzetan. Aurreikusitako hazkundera hain handia da non gaur egun estimatutako 6400 milioi GI gailuk gora egingo dute 20800 [32]- 50000 [30] milioiraino 2020 urterako.

GI-ak gehikuntza bat aurkezten du makina-makina (M2M) komunikazioan eta konexiorik gabeko arloan, sentsore eta eragingailu integratuen erabilpenean. Tresna hauen bidez erabiltzaileak monitorizazio eta kontrol gailuak modu eraginkorrago batean erabili ahal izango ditu [33]. Paradigma berri honetan, gailu adimentsuek datuak bilduko dituzte, informazioa transmititu edo bata bestearekin konektatu, eta informazioa prozesatu *cloud-computing* eta antzeko teknologiak erabiliz. Azkenik, gizakiek ekintzak aurrera eramango dituzte, eta kasu batzuetan ere, makinak automatikoki. Paradigma aldaketa honek ingeniartzan erronka eta aukera ugariak sortzen ditu [34].



Monitorizazioaren sektoreak hartzen ari den garrantziagatik eta datozen urteetarako espero den GI-aren hazkundeagatik enpresa askok sektore honetan aurrera pausoak ematen ari dira etengabe [35]. Gainera, aplikazio desberdinetarako (gordetzeko, bistartzeko edo partekatze) erabili daitezkeen Interneteko zerbitzarien zerrenda [36-39] zabalitzen ari da, horrela monitorizazio metodologietan urrats gehiago ematea ahalbidetuz.

Laburbilduz, GI beharrezko tresna da lan eta ikerketa eremu askotarako. Aldi berean, GI-aren eta IIP-en arteko konbinaketak teknologia indartsu batean transformatzen du. Modu honetan, erabiltzaileak sistemak garatzeko eta denbora errealean ingurua ulertzeko eta honi buruzko erabakiak hartzeko gai izango dira. Alderdi hau, adierazi dugun bezala, funtsezko bihurtu da azkenaldian.

5.2. Helmena eta helburuak

Arestian aipatu den bezala, monitorizazio arloan zenbait arazo detektatzea posible izan da. Horren ondorioz, kapitulu honen helburu nagusia gaur egungo eraikinen monitorizazio kanpainetan agertu daitezkeen zailtasunak eraikinen monitorizatzeko metodologia berri baten bidez aurre egitea da. Beraz, era honetan ohikoak diren trabak saihestea lortu izango da, hala nola, gailuen erosketa kostu handiak, datuak biltegitratze gaitasun txikia, neurketa puntu kopuru mugatua edo biltegitratutako datuak denbora errealean kontsultatzeko posibilitatea ez izatea.


Hortaz, kapitulu honek hurrengo helburuak ezartzen ditu:

- 5.1. Helburua** Eraikinen askatasun osoz monitorizatzeko eta kontrolatzeko ahalbidetzen duen gailuen garapenerako metodologia burutu.
- 5.2. Helburua** Gutxienez monitorizazio ekipamendu komertzialek eskaintzen dituzten ezaugarri teknikoak betetzen dituen kostu baxuko monitorizazio gailu bat garatu.
- 5.3. Helburua** Azterketa kasu batean garatutako monitorizazio gailuaren funtzionamendu egokia kontrastatu.
- 5.4. Helburua** Garatutako gailuarekin lortutako emaitzak erreferentziako monitorizazio gailu batekin egiaztatu.

5.3. Metodologia

5.3.1. Kapituluaren egitura

Ikerlan honetan erabilitako metodologia eta egindako urratsak **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia..** Irudian agertzen den fluxu-diagraman laburbiltzen dira. Hiru etapa desberdinez osaturik dago.



5. 1. Irudia- Kapitulu egituraren deskribapen grafikoa

Hasierako fasean monitorizazioak bete beharreko helburuak eta erronkak zein diren argitzen dira. Urrats hau oso garrantzitsua da, izan ere, ikerketan zehar egingo den aurreragoko bidea zehaztuko du. Ondoren, beharrezkoa da teknologien berrikuspen bat egitea kalitatezko ikerketa sustatzeko eta lehendik dagoen ezagutzarekin osatu.

Hurrengo faseak monitorizazio fisikoa aurrera eramateko beharrezkoak diren fase guztiak biltzen ditu, proposaturiko ekipoaren diseinu eta muntaiatik, eraikineko ekipoaren bildumara arte. Fase honetan denbora errealean grabatutako parametroen eboluzioa eta bere funtzionamendu zuzena egiaztatzen da.

Azken urratsean, datuak gailutik atera ondoren, ekipoaren memoria fisikoan gordetako datuen adostasuna egiaztatzen da hodeian erregistratutakoekin alderatuta. Ondoren, emaitzak aztertzen dira ebaluatutako parametroen arteko loturak ezartzeko helburuarekin, patroien existentzia detektatuz eta erregistratutako balioak ebaluatuz.



Emaitzak aztertu eta gero, azterketaren ondorioak lortzen dira eta garapen osagarri edo hobetuak proposatzen dira etorkizuneko monitorizazioetarako, beraz, ikerketa burutuz.

5.3.2. Prototipoaren garapena

Gaur egun, neurketa-sistemen eta sentsoreen aniztasun handia dago merkatuan sofistikazio eta funtzionalitate maila desberdinekin. Aukera hoberenaren hautaketak faktore desberdinen eta monitorizazio beharrenden mende dagoen erroka da [26]. Kasu honetan garatu beharreko gailuak honako baldintzak bete beharko lituzke:


- Sistema ez-inbaditzailea izatea.
- Kostu baxuko garapen gailua izatea.
- Behar espezifikoak betetzeko askatasuna izatea ekipoaren garapenean.
- Haririk gabeko datuen transmisioa edukitzea.
- Datuak biltzeko segurtasuna edukitzea haririk gabeko konexioa edo energia hornidura galduz gero.
- Datuen biltegitate handia edukitzea.
- Erregistratutako datuak denbora errealean kontsultatzeko aukera izatea, bai *in situ* eta baita *online*.

Aurreikusitako beharrak kontuan hartuta, eskakizun hauek betetzen dituen gailua garatu zen. Funtsean, sistema bi funtzio dituen mikrokontrolagailu batez osaturik dago.

Alde batetik, protokolo desberdinen bitartez mikrokontrolagailuarekin komunikatuta dauden sentsore desberdinetatik datozen sarrerak kudeatuko ditu. Bigarren funtzioa bildutako informazioaren azterketa eta kontsulta ahalbidetzea izango da. Horretarako, hiru motatako irteera desberdin proposatu dira.

Lehenik eta behin, erabiltzaileari informazioa zuzenean emateko helburuarekin, OLED pantaila bat prestatu da *in situ* bildutako informazioaren kontsulta ahalbidetzeko, denbora errealean erregistratutako balioak erakutsiz. Bigarrenik, sentsoreen informazioa modu seguru batean biltegitate ahalbidetzen duen mikroSD txartela batekin hornitu da prototipoa. Metodo honek biltegitate handiko sistema aurkezten du abantaila bezala eta gainera, datuak oso eskuragarri dira erabiltzaile eta teknikarientzako oso erabilitako estandarra baita. Azkenik, datuak edonondik atzitzeko, GI plataformak erabili dira informazioa WiFi bidez transmitituz mikrokontrolagailutik Google Drive kalkulatu orri biltegitate sistemetara. Horretarako, urrats batzuk eman dira. Lehenengoak mikrokontrolagailuak eta sentsoreek grabatutako aldagaiak testu kateetan transformatzean dautza. Horretarako programazio-kodeak erabili dira eta prozesaketa errazten duen aldagaien arteko

banaketa egiteko “;” elementua erabili da. Ondoren, programazio-kodearen bidez, web eskaera bat sortzen GET baten bidez, aldez aurretik sortutako testu-kateez gain, informazioa transmititzeko beharrezkoak diren datuak gehitzen ditu (host, identifikazio kodea eta segurtasun kodea). Azkenik, testu-kateak kalkulu-orri batera iristen dira. Bertan, zenbakizko balioetara eraldatzen dira eta aldagaiak zutabeetan ordenatzen dira aurreko puntu eta komaz bereiztuz. Kalkulu-orriak erabiltzen dira libreki eta oso hedatua den plataformak direlako eta baimendutako erabiltzaileei erregistratutako informazioa biltzea, erakustea eta partekatzea ahalbidetzen die. 5.2.Irudian denbora errealean prototipoarekin Google plataformetan bildutako datuak aurkezten dira.



	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
1		DHT22 (°C, %), Switch Sensor (1/0), MH-Z19 (ppm)	SHT21 (°C, %)	BME 280 (°C, %, Pa) BMP180 (°C, hPa)						
2	July 1, 2016 at 08:00PM	25.00;60.10;0.676;0.0;	24.04;63.33;	21.55;64.65;101540.55;23.60;1015.41;						
3	July 1, 2016 at 08:10PM	24.80;61.30;0.667;0.0;	24.00;63.47;	21.63;64.65;101548.13;23.50;1015.53;						
4	July 1, 2016 at 08:20PM	24.80;61.20;0.666;0.0;	23.97;63.73;	21.58;65.09;101551.22;23.50;1015.55;						
5	July 1, 2016 at 08:30PM	24.70;61.60;0.656;0.0;	23.94;63.82;	21.66;64.90;101565.80;23.50;1015.72;						
6	July 1, 2016 at 08:40PM	24.70;61.90;0.653;0.0;	23.91;64.14;	21.69;65.52;101564.86;23.40;1015.74;						
7	July 1, 2016 at 08:50PM	24.70;61.90;0.652;0.0;	23.89;64.32;	21.36;66.49;101572.27;23.40;1015.82;						
8	July 1, 2016 at 09:00PM	24.70;62.30;0.649;0.0;	23.89;64.29;	21.17;67.42;101581.00;23.40;1015.81;						
9	July 1, 2016 at 09:10PM	24.70;62.70;0.634;0.0;	23.87;64.32;	20.78;72.90;101584.16;23.40;1015.87;						
10	July 1, 2016 at 09:20PM	24.60;62.70;0.623;0.0;	23.86;64.55;	20.97;71.33;101593.39;23.40;1015.94;						
11	July 1, 2016 at 09:30PM	24.60;62.50;0.623;0.0;	23.85;64.58;	20.93;70.37;101593.33;23.30;1015.93;						
12	July 1, 2016 at 09:40PM	24.60;62.80;0.617;0.0;	23.84;64.90;	20.77;71.07;101595.72;23.40;1015.97;						
13	July 1, 2016 at 09:50PM	24.60;63.00;0.607;0.0;	23.83;64.79;	20.73;70.57;101601.47;23.30;1015.99;						
14	July 1, 2016 at 10:00PM	24.60;63.30;0.602;0.0;	23.83;64.96;	20.69;70.23;101624.36;23.30;1016.21;						
15	July 1, 2016 at 10:10PM	24.60;63.30;0.599;0.0;	23.83;65.14;	20.75;69.79;101637.48;23.30;1016.38;						
16	July 1, 2016 at 10:20PM	24.60;63.40;0.593;0.0;	23.83;65.19;	20.78;69.97;101649.14;23.30;1016.49;						
17	July 1, 2016 at 10:30PM	24.60;63.20;0.592;0.0;	23.82;65.31;	20.73;71.18;101667.00;23.30;1016.69;						
18	July 1, 2016 at 10:40PM	24.60;63.50;0.621;0.0;	23.83;65.37;	20.75;72.09;101674.44;23.30;1016.77;						
19	July 1, 2016 at 10:50PM	24.60;63.60;0.668;0.0;	23.84;65.37;	20.77;71.77;101679.30;23.30;1016.79;						
20	July 1, 2016 at 11:00PM	24.60;64.10;0.705;0.0;	23.86;65.43;	20.86;70.03;101678.89;23.40;1016.87;						

5.2. Irudia- Google Spreadsheet erabilitako datu biltegi bazea garatutako monitorizazio gailuarentzat.

Sentsoreen hautaketa egiteko, datuak eskuratzeko zehaztasunaz gain, erabilitako komunikazio protokoloa eta beharrezko konexio kopurua hartu da kontutan. Hau da, oro har, sentsore unitate bakoitzak konexio bat behar du plaka elektronikoan, beraz, sentsore zenbakia mugatuta dago plaka sarrera erabilgarrien kopuruagatik. Hala ere, IIPen funtzionaltasun digitalari esker, “*Inter Integrated Circuit*” (I²C) komunikazio protokoloa duten sentsoreak erabiltzea izan da joera. Protokolo honek eskaintzen duen ezaugarrietako bat mikrokontrolagailuaren eta sentsorearen artean informazioa soilik bi konexio harien bitartez transmititzea da. Lehenengo pina *Serial Datarako* (SDA) erabiltzen da datu transmisioen arduradun gisa, eta bigarrena, *Serial Clock* (SCL) da eta datuak irakurtzeko denboraren arduraduna da. Horrela, protokolo honen bidez posible da serial bus beraren bitartez 128 gailu konektatuta edukitzea paraleloki. Izan ere, osagai bakoitzak 2⁷ biteko helbide bakarra du. Honi esker posible izan da sentsoreak mikrokontrolagailuarekin konektatzeko pinen kopurua murriztea, honela, multiplexatutako sistemak edo elkarrekin konektatutako mikrokontrolagailuak saihestea posible izan da.



Plaken hautaketari dagokionez, gaur egun, Raspberry [40] eta Arduinoetan [41] oinarritutakoak dira plataforma erabilienak. Lehenak gaitasun handiak dituzte plaka txiki bakarreko ordenagailuak direlako. Alabaina, aldi berean sistema eragile bat behar dute eragiketak egiteko eta ondorioz, proiektuen konplexutasuna areagotzen da. Bestalde, Arduino plataformekin proiektuak modu erraz batean garatzea posible da sarrerak eta irteerak erraztasunarekin kontrolatzea ahalbidetzen baitute. Are eta gehiago, fidagarritasun maila altua eskatzen duten aplikazioetan Raspberriekiko abantaila bat erakusten dute beren eragiketa mikrokontrolagailuak kontrolatzen baitu [42]. Proiektuaren ezaugarriak direla eta, soilik sarrera eta irteera datuen kontrola eskatzen duena, ikerketa Arduino plataformetan oinarrিতa egongo da. Azkenik, plaka gai izan behar da GI proiektuak garatzeko eta ondorioz, beharrezkoa izango da plakak WiFi konexio integratua edukitzea, *shields* eta *donglesen* erabilerara saihestuz eta beharrezko hardware-a sinplifikatuz.

Datuak eskuratzeko garatutako sistemaren ezaugarri espezifikoak honako hauek dira:

- Taula elektronikoa: ESP-8266 WiFi mikrokontrolagailu indartsuan oinarritzen da [43]. 32 biteko prozesadorea da eta 80 eta 160 Mhz-ko erloju abiadurarekin exekutatzen da 4 Mb-ko flash memoria batekin. Taulak 11 S/I pin digital ditu, sarrera analogikoko pin 1 eta bere dimentsioak 34.2 x 26.6 mm dira. Ordenagailura konektatu daiteke USB edo *Over-the-air* (OTA) metodoaren bidez, haririk gabeko programazio erabilgarria ahalbidetuz plakaren kokapena itzultzea zaila denean edo taula galduta dagoenean. Ezaugarri horiez gain, plaka honek prezio baxua du eta posible da Arduino plaketan garatutako kodea erabiltzea IDE berdina erabiltzen baitute. Gainera, WiFi integratutako mikrokontrolagailu bat da. Ezaugarri guzti hauengatik aukeratu da plaka.
- MikroSD shield: gorde beharreko informazio kantitatea handi dela aurreikusten denean, oso garrantzitsua da MikroSD txarteleko irakurleak erabiltzea. Mikrokontrolagailuarekin erabilitako komunikazio metodoa SD.h liburutegiaren eta *Serial Peripheral Interfazeko* (SPI) protokoloaren bidez da. Garatutako modeloan, 8 Gb-ko biltegitze-ahalmena duen MikroSD memoria txartel bat erabili da.
- Ingurune sentsoreak: lehendik dauden modeloen dibertsitate handiagatik eta ikerketa taldearen interes handiagatik, egokia izan da zenbait modelo hautatzea errendimendu testak egiteko. Helburua da emaitzak aztertzea eredu bakoitzarekin eta bere kalitatearen arabera, sentsore optimoa zein den gomendatzea erabileraren arabera.


- DHT22 [44]: oinarrizko eta kostu txikiko sentsore digital bat da. Termistore bat erabiltzen du temperatura neurtzeko (-40 eta 80 °C artean) eta sentsore kapazitiboa hezetasun erlatiboa neurtzeko (%0 eta %100 artean). ± 0.5 °C-ko zehaztasuna aurkezten du temperaturan eta ± 2 hezetasun erlatiboan eta 0.1 °C-ko eta %0.1-eko bereizmena. Sentsore honek hari bateko komunikazio protokoloa erabiltzen du datuak bidaltzeko eta 3.3 eta 5.5 V-ko tentsioarekin hornitu behar da. Irakurketa bakoitzaren arte gutxienezko denbora 2 s dira. Honek bere aplikazioa zenbait proiektutan mugatu dezake. IIP proiektuetan, sentsore hau temperatura eta hezetasun sentsoreen artean erabilienetakoa da. Are gehiago, aurkezten dituen ezaugarriak datuak eskuratzeko ohiko sistemen antzekoak dira. Beraz, sentsore hau ekipamendu pieza egoki bat izan daiteke ingurumenaren monitorizazio gailuetarako.
- SHT21 [45]: sentsore konbinatu honek sentsore kapazitibo bat erabiltzen du hezetasuna neurtzeko eta *band gap* sentsore bat temperatura neurtzeko. Neurketa tartekak -40 °C-tik 125 °C-ra doa eta %0-tik %100-era, ± 0.3 °C eta ± 2 -ko zehaztasunarekin eta 0.01 °C eta %0.04-ko bereizmenarekin. Sentsoreak 2.1 eta 3.3V arteko tentsio hornidura behar du eta sentsorearekin komunikazio metodoa I²C protokoloaren bitartez da. Sentsore hau Sensirion-ek garatzen du, fabrikatzaile honen sentsoreak oso erabiliak dira ingurumen monitorizaziorako ekipamendu komertzialetan. Ikerketa honetan sentsore hau erabiltzearen arrazoiak honako hauek dira: sentsorearen kalikatea, I²C komunizazio protokoloa eta ingurumen monitorizazio sistemetan izaten ari den hedapen handia.
- BMP180 [46]: presio barometrikoa eta temperatura neurtzeko kostu baxuko sentsore bat da. Neurketak 300 eta 1100 hPa eta -40 °C eta 85 °C tartetean egin daitezke, ± 1 hPa eta ± 1 °C-ko zehaztasunarekin eta 0.02 hPa eta 0,1 °C-ko bereizmenarekin. Sentsoreak 1.8 eta 3.6 V-ko tentsio hornidura behar du eta I²C komunikazio protokoloa erabiltzen du. SHT21-aren era berean, BMP180 sentsorea oso erabilia da sistema komertzialetan presio atmosferikoa neurtu behar denean. Ezaugarri hauek direla eta, modelo egokitzat hartu zen bere ebaluaziorako.
- BME 280 [47]: BMP180 sentsorearen bilakaera da eta hezetasun erlatiboa neurtzeko gaitasuna du gehigarri bezala. 300 eta 1100 hPa-ko, -40 °C eta 85 °C-ko eta %0 eta %100-eko neurketa tartekak ditu. ± 1 hPa, ± 1 °C eta ± 3 -ko zehaztasuna du eta 0,18 Pa, 0.01 °C eta %0.008-



ko bereizmena du. BMP180-ak bezala, 1.8 eta 3.6 V tarteko tentsio hornidura behar du eta I²C komunikazio protokoloa erabiltzen du. Sentsore hau ebaluatu da bere erabilerak BMP180-arekiko abantailaren bat ematen duen aztertzeke.

- Etengailu magnetikoko sentsorea: bi elementuz osaturiko gailua da, iman bat eta xafla etengailua. Xafla etengailua bi kontaktu isolatuen kapsulatzean datza. Alabaina, intentsitate nahikoa duen eremu magnetikoa gertu dagoenean, imana, kontatuak itxita daude. Sentsore hau oso erabilia da ateen eta leihoen irekiera sistemetan, xafla etengailua pieza finkatuan egonik eta imana mugitzen ari den elementuan.
- CO₂ sentsorea: erabilitako sentsorea MH-Z19 da [48]. Ohiko mota da, tamaina txikikoa, *non-dispersive infrared* (NDIR) printzipioan oinarritzen da CO₂-aren existentzia detektatzeko airean, hautakortasun onarekin, oxigenoaren ez menpekoea eta bizitza luzekoa. Inkorporatuta duen tenperatura sentsoreak tenperatura konpentsazioa egin dezake; eta tentsio irteera analogiko eta digitalak ditu UART edo PWM seinale irteera komunikazio protokoloen bitartez. Bere lan tentsioa 3.6 eta 5.5V artean dago, 0 eta 5000 ppm-ko kontzentrazioen neurketa posible izanik ± 50 ppm-ko zehaztasunarekin. Aurrez berotzeko epea 3 minutukoa da eta CO₂ kontzentrazioaren balioa egonkorra bihurtzen da. Mota honetako sentsoreek metodo elektrokimikoetan oinarritutako sentsoreek baina kontsumo altuagoa dute, baina erabiliagoak dira denbora errealeko monitorizazioan bere iraupen, fidagarritasun eta zehaztasunagatik [51].
- OLED *display*-a: 0.66"-ko OLED modulu bat erabili da ekipamenduak erregistratutako balioak in situ islatu ahal izateko. I²C komunikazio protokoloa erabili dezake, gailu oso trinkoa ahalbidetuz. Lan tentsioa 3.3V-ko da. *Display* hau 64 x 48-ko pixel zuriez osaturik dago eta ez du behar atzeko argirik, honela kontsumoa gutxituz.

Ikusi daitekenez, 5.3. Irudia, erabilitako ekipamendu guztia IIP plataformetan oinarrituta dago, *hardware*-etik *software*-era. Alderdi honek proiektuaren eskaera espezifikoen araberrako ekipamendua garatzeko aukera eman zuen. Aldi berean, bildutako informazioa modu ireki batean lortzea, tratatzea eta partekatzea posible izan da eta erabilerak murriztapenik gabe.



5. 3. Irudia- Garatutako monitorizazio gailuaren elementu sorta bat: A) DHT22 B)SHT21 C)BME280 D)BMP180 E)MH-Z19 F)Switch sensor G) ESP8266 mikrokontrolagailua.

5.3.3. Sentsoreen kalibraketa

Temperatura eta hezetasun sentsoreen funtzionamendu egokia egiaztatzeko, erreferentzia ezagunekin kalibratu dira esperotako den lan-eremu barruan.


Temperatura sentsoreen kalibraketa egiteko klima ganbera bat erabili da, 5. 4. Irudian ikusi daitekenez. Horretarako, 10 °C-ko temperatura urratsak programatu ziren azterketa klimaren ohiko muturren artean, ikerketa eremua 5 °C eta 35 °C artean egonik. Ondoren, kalibratutako temperatura datu bilketa sistema erreferentzia bezala erabili da ikerketa sentsoreentzat. Erabilitako datu bilketa sistema AHLBORN 2549 FHAD 46-2 sentsorearekin ± 0.3 °C-ko zehaztasunarekin. Laginketa tartea 1 min izan zen eta erreferentzia 90 min mantendu zen temperatura urrats bakoitzean.

Hezetasun sentsoreen kalibraketa disoluzio akuoso asean metodoa [49,50] erabiliz egin zen. Metodo honetan huts beirazko lehorgailuak (huts-gabe) erabiltzen dira eta bertan disoluzio akuosoak sartzen dira oreka higrotermikoa lortuz itxitura barruan, 5. 4. Irudia. Hezetasunaren banaketa uniformea lortzeko barrualdean, ontziek barruko ingurua homogeneizatzen duten haizagailu batzuk dituzte. Hezetasun maila ezberdinak gatz asean disoluzio akuoso ezberdinekin lortzen dira temperatura konstante batean. Ikerketa honetan, balio tarte zabal bat barne hartzen duten disoluzioak ikertu dira; temperatura 23 °C \pm 0.5 °C-tan ezarri da. Hezetasun erlatiboaren oreka honako puntu hauetan egin da: LiCl %11.30, MgCl₂ %32.89, Mg(NO₃)₂ %53.30 eta KCl %84.64. Ondoren, sentsoreak sartzen dira ontzien barruan kalibratzeko eta orekara iristean balioak erregistratzen dira. Bilketa tartea minutu 1 izan zen eta bilketa 24 h egin zen kasu bakoitzerako.


Azkenik, doikuntza protokoloen ondoren, kalibraketa kurbak lortu ziren, 5.5.Irudia. Kurba hauek korrespondentzia ematen dute sentsorearekin neurtutako balioaren eta erreferentzia balioaren artean. Doikuntza kurba hauekin, temperatura eta hezetasun



bakoitzaren transferentzia funtzioak zuzendu ziren kalibraketa erreferentzia ezartzeko. Horretarako, tenperatura zein hezetasun sentsoretarako, ekuazio kuadratikoa eta koefizienteen (C1, C2 eta C3) doikuntza ezarri zen monitorizazio sistemaren programazio kodean. Doikuntza honen bidez, hasieran grabatutako balioak doitu eta egongo liriteke, honela, monitorizazio gailuak kalibratutako balioak zuzenean erregistratzen dituelarik.



5. 4. Irudia- Laborategiko klima ganbera eta beira ontzi ekipamendua sentsoreen kalibrazio prozedurako.



5. 5. Irudia- Sentsoreen kalibrazio kurbak: A) Aire tenperatura eta B) Hezetasun erlatiboa.

5.3.4. Azterketa kasua


Monitorizazio ekipoaren funtzionamendu egokia egiaztatzeko, sistema etxe unitate batean ezartzea erabaki zen. Apartamentu hau Donostia-San Sebastian hiriko eraikin batean dago, 5.6.irudian ikusi daitekeen bezala. EuroPHit Europar Programaren barruan, eraikuntzaren transformazio orokor bat egingo da birgaitze energetiko baten bidez [51].

San Roke eraikina 4 pisuko eraikuntza bat da eta 10 apartamentu eta eremu komun bat izanik. Ingurutzaila termikoak ez du inongo isolamendurik. Aireztapena naturala da, leihoen irekitze erabiliz. Jatorrizko leiho eta pertsianak egurrezkoak dira kristal

bakarrarekin, baina jabe batzuk ordezkatu dituzte urteetan zehar. Fatxadaren egoera txarrak, adreiluez eginda dagoena, jabeek neurriak hartzera derrigortu zituen ikuskapen tekniko baten ondoren. Teilatua egurrezkoa da eta 1994an hobetu zen.

Azterketa apartamentua, 46m²-koa, eremu zabal bat du eta bertan egongela, jangela eta sukaldea, bainugela eta logela aurkitzen dira. Iparraldera eta ekialdera orientatuta dago. Kontserbazio egoerari dagokionez, ikusi daiteke eraikutzaren birmoldaketa egin dela eraikuntzan ekipamendu eta altzariei dagokionez.

Monitorizazio ekipamendua gela nagusian aurkitzen da etxearen portaera orokorra zehaztasun handiagoarekin irudikatzen duelako. Izan ere, erabilera anitzak ditu eta erabiltzaileek informatu bezala, gehien erabilitako kokapena da. Bestalde, ekipamendua iparralderantz orientatuta dagoen leiho batean kokatu da kanpoko sentsoreetan erradiazio zuzena ekidatzeko, eta aldi berean, gehiegizko kableatua ekidatzeko mikrokontrolagailuaren eta neurketa puntuaren artean. Gainontzeko sentsoreak mikrokontrolagailuaren ondoan daude, honela, dimentsio txikiko ekipamendu trinkoa lortuz.



5. 6. Irudia- San Roke 32 azterketa kasua, eraikinaren kokapena, apartamentua eta monitorizazio gailua.

5.4. Emaitzak eta eztabaida

Atal hau ikerketa honen alderdi garrantzitsuenak aztertzen saiatzen da. Horretarako, lehendabizi etxebizitzaren monitorizazioan grabatutako emaitza orokorrak aurkeztuko dira bere portaera higrotermikoa eta BAK ezagutzeko. Gainera, atal




honetan lortutako emaitzen eta prototipoaren eta sistema komertzial batekin lortutako erregistroen arteko konparaketa egiten da bere egiaztapenerako. Bigarren atalari dagokionez, lortutako emaitzetan oinarrituta, sentsoreek aurkeztutako erantzunean zentratuko da. Honen helburua etorkizuneko ikerketarako zein sentsore izan liteke egokiena zehaztea da. Azkenik, prototipoa oro har harturik, honen inguruko eztabaida egingo da monitorizazio sistemen gai garrantzitsuenei dagokionez. Lehen aipatutako bateriaren bizitza, datuak gordetzeko ahalmena eta ekipamenduaren kostua puntu oso garrantzitsuak dira erabaki bat hartzeko eta horregatik, arreta eman zaio gau honi atal honetan.

5.4.1. Emaitza orokorrek eta egiaztapena

Erregistratutako tenperaturei dagokionez, erregistratzen duten 4 sentsore daude, horietako 3 barruko baldintzetarako erabili dira (DHT, SHT21 eta BMP1280) eta bestea kanpokoetarako (BME280). Garatutako sistemaren funtzionamendu egokia egiaztatzeko erabili den ekipamendu komertziala apartamentu barruan kokatu da. Sistema hau HT-2000 modeloa da. Honek SHT30 sentsorea erabiltzen du tenperatura eta hezetasuna neurtzeko, eta OGM-220 sentsorea CO₂ kontzentrazioa neurtzeko. Bi sentsoreak prototipoan erabilitakoen oso antzekoak dira, beraz, neurketak egiteko tresna apropos bat kontsideratu daiteke. Bestalde, sistema honek ez du presio atmosferikoa neurtzeko aukera ematen, beraz helburu honetarako, eraikinaren ondoan dagoen (2.4 km) estazio meteorologikoa hartu da erreferentzia bezala. Estazio honetako modeloa Davis Vantage Pro2 Plus da.

Lortutako emaitza 5.7.irudian aurkezten dira. Grafikoan sentsore bakoitzak neurtutako tenperatura agertzen da eta sentsore bakoitzaren errore-banda. Sentsoreei dagozkien bi balio gehigarri erantsi dira kalibraketa kurba aplikatu eta gero. Alde batetik, kanpoko sentsorearen kasua gehitu zen eta bestetik, barruko sentsoreen batzbestekoa. Prototipoarekin lortutako balioei dagokienez, etxe barnealdean erregistratutako batzbesteko tenperatura 23.43 °C-tan egon da, 21.53 °C eta 25.10 °C-eko muturreko balioekin. Kanpoko baldintzei dagokienez, batzbestekoa balioa 20.25 °C-koa da, 14.90 °C gutxieneko balioa izanik eta 26.28 °C gehienekoa.



5. 7. Irudia- Erregistratutako balioak garapen-propioko gailuarekin eta egiaztapen ekipamenduarekin.



Bestalde, tenperatura balioekin bezala, lortutako hezetasun erregistroak bere errore-bandekin irudikatu dira eta balio zuzenduak gehitu dira kalibraketa eta gero. BME280 lortutako kanpoaldeko baloreei dagokionez, neurketetan dauden desberdintasun handiak islatzen dira. Hezetasun balio maximoa %97.48koa da eta minimoa %51.70, batazbesteko %80.80 izanik. Honek argi eta garbi adierazten du eguneko epearen eta hezetasun erlatiboaren arteko elkarrekikotasuna. Hau da, hezetasun erlatiboaren gailurrak gauean tenperatura jaisten denean gertatzen dira, eta hezetasun erlatibo jaitsierak eguneko tenperatura igotzen denean. Oro har, argi geratzen da hezetasun altuak, aztertzen ari garen klima ozeanikoaren ezaugarria dena, etxe barnealdean eragina duela. Etxe barnealdean hezetasun erlatibo altua dago eta honek etxearen erosotasun limitetik gertu egotea eragiten du, airearen hezetasuna kentzen duen aire girotuko sistemaren falta dela eta. Ondorioz, batazbesteko %70.62-ko balioa lortzen da, %79.07-ko maximoarekin eta %59.02-ko minimoa.

MH-Z19 sentsoareekin erregistratutako BAKaren balioak, monitorizatutako denboraldian zehar batez besteko kontzentrazioa 889 ppm-koa da, BAK onargarria islatuz. Ikusi daitezkeenez, zenbait gailurrek gomendatutako 1000 ppm-ko limitea gainditzen dute [52,53], 1961 ppm-ko maixmoak aurkeztuz. Neurketak udaran egin direla kontuan hartu behar da. Monitorizazioa berokuntza epean zehar egin izanez gero balio hauek altuagoak izango lirateke, egoera okertuz etxea estufa berogailu bat erabiltzeagatik. Bere errekontzak CO₂ kontzentrazioa igotzeaz gain, hezetasun erlatiboa igotzen du eta airean dagoen oxigeno kantitate murrizten du, etxeko erosotasun baldintzak nabarmenki murriztuz.

Azkenik, etxe barruko eta kanpoko presio atmosferikoko balioak aurkezten dira. Ikusi daitezkeenez, ez dago desberdintasunik bi balioen artean bi sentsoareak altitude berean baitzeuden, eta etxean ez dago inongo aireztapen mekaniko konstanterik kanpoaldearekiko presio desberdintasuna sortzen duena.

Garatutako sistemaren portaera ekipamendu komertzialarekin alderatuta, bien balioak oso antzekoak dira presio atmosferikoaren salbuespenarekin, 5.7. Irudia. Azterketa estatistiko deskribatzaileak, 5.1.Taula, prototipoaren eta ekipamendu komertzialaren balioen arteko diferentziak sentsoarearen errore marjinan daudela erakusten du, CO₂ aldagaiaren eta lehen aipatutako presio atmosferikoaren balioak izan ezik. CO₂ balioei dagokienez, prototipoaren sentsoarekin ingurumenarekin kontaktu zuzenean daude, HT-2000 ekipameduarenak berriz, ekipamenduaren estaldura barruan daude, airearen zirkulazioko saretak dituenak, eta ondorioz, bi sistemen esposizioa ez da berdina. Erregistratutako diferentzia maximoak eta minimoak balio bereziak aurkezten dituzte denbora tarte laburretan, hala nola, leihoa

irekitzen denean, eta ondorioz, ez dira hain adierazgarriak desbiderapen estandarrean ikusten den bezala. Bestalde, presio atmosferikoaren balioetan, estazio meteorologikoaren kokapena kontuan hartu behar da, izan ere, ez zegoen ekipamendu komertzialeko sentsorearen kokapen berdinean. Bi kokapenen artean 44 m-ko altitude desberdintasuna zegoen. Lehen aipatutako barruko eta kanpoko batez besteko tenperaturak hartuz, 23.43 °C eta 20.25 °C hurrenez hurren, bi puntuetan neurtutako batezbesteko presioen arteko desberdintasuna, 5.1. Taula, altitude desberdintasunarekin bat dator.

5.1.Taula- Garapen propioko eta ekipamendu komertzialekin neurtutako aldagaien azterketa estatistikoa.


	Temperatura (°C)	Hezetasun erlatiboa (%)	CO ₂ kontzentrazioa (ppm)	Presio atmosferikoa (hPa)
Batez bestekoa	0.249	-3.006	68.568	5.160
Minimoa	-0.132	-7.375	-304	4.574
Maximoa	0.618	-0.998	489	5.744
Mediana	0.244	-2.950	57	5.165
Desbideratze estandarra	0.136	0.628	61.620	0.191
Balidazio erreferentziaren zehaztasuna	± 0.6	± 3	± 50	± 1.0

Oro har, emaitzek erakusten dute apartamentuaren portaera eraikuntzaren tipologiaren eta klimaren araberakoa dela. Hau da, kanpoko tenperatura moderatua eta hezetasun erlatibo handia, aipatu bezala, barruko baldintza higrotermikoetan eragin handia du. BAK-k CO₂ kontzentrazio arruntak aurkezten ditu eraikuntza tipologia honetarako, non aireztapena fenomeno naturalengatik sortzen da. Nabarmendu beharreko puntua leihoa irekitzearen eragin argia da *switch* motako sentsoreak erakusten duen bezala. Hau kutsatzaile kontzentrazio gailurretako 3 kasutan islatzen da (2016/07/02, 2016/07/03 eta 2016/07/06), leiho irekitzearekin orekatu zirenak eta barruko airearen kalitatearen hobekuntza azkarra 400 ppm-ko kontzentrazio inguruan. Ondorioz, erabiltzaileak sistema ondo erabili eta neurri hori eraginkorra izan arren, barruko tenperatura 1 °C jaisten da. Jaitsiera honek udaran barruko egonkortasuna hobetu dezake, baina berokuntza denboraldian zehar erosotasunean jaitsiera bat suposa dezake eta energia galerak eragin ditzake. Gainera, sistema komertzialarekin egindako egiaztapenarenari esker, garatutako prototipoak ikerketa astean zehar portaera ona erakusten zuela kontsideratu daiteke. Tenperatura eta hezetasun balioak esperotako limiteen barruan zeuden. Era berean, presio atmosferikoaren neurketak ados zeuden estazio meteorologikoaren erregistroekin altitude desberdintasuna kontsideratuz. CO₂-aren balioak soilik espero zen errorearen gainera zeuden, segur aski bi sistemen estalduraren diferentziagatik eta sentsore mota honen sentsibilitate handiagatik. Hala ere, emaitza hauek kontutan

hartuta, garatutako prototipoa ingurumenaren monitorizazioa aurrera eramateko sistema egokia dela esan daiteke.

5.4.2. Sentsoreen emaitza konparatiboak


Orain, erabilitako sentsoreen azterketa konparatiboa egingo da. Soilik temperatura eta hezetasun sentsoreak konparatuko dira, izan ere, zenbait modelo erabili dira eta kalibratuak izan dira.



5.8. Irudia- Kalibratzeko prozesuan lortutako temperaturako erroreak eta fabrikatzaileak adierazitako sentsoreen errorearen arteko konparazioa.

5.8. Irudian temperatura neurtzen duten lau sentsoreen portaera aurkezten da erreferentziako sentsorearekin alderatuta kalibratze prozesuan. Grafikoetan kalibratutako erreferentziaren eta fabrikatzaileak adierazitako sentsore bakoitzaren erroreak kontuan hartzen dira, itzalekin islatzen direnak. Oro har, ikusi daiteke errore gehienak esperotako limiteen barruan daudela. Hala ere, 35 °C-ko kalibraketa muturrean DHT22 eta SHT21 sentsoreek erregistratutako puntuak esperotako errorea baina handiagoak dira. Bestalde, aipatu beharra dago BMP180 eta BME280 sentsoreak presio atmosferikoa neurtzeko sentsore espezifikoak direla. Hauek temperaturaren balioa presio atmosferikoaren neurketa zuzentzeko erabiltzen dute, eta horregatik, bere ± 1 °C-ko zehaztasuna beste bi sentsoreena baina baxuagoa da. Hala ere, beren portaera esperotako tartean dago.

Sentsoreen portaera hezetasunari dagokionez, 5.9.irudian neurketen errorea azaltzen da erreferentziako gatzekin alderatura eta, aurreko kasuan bezala, fabrikatzaileek emandako errore tolerantzia itzalekin islatzen da. Erabilitako DHT22 sentsoreak portaera fidagarria erakutsi du egindako azterketan. Lortutako erroreak fabrikatzaileak adierazitako errorean marjinetan aurkitzen dira. Bestalde, SHT21 eta BME280 sentsoreek, grafikoetan ikus daitezenez, fitxa teknikoetan zehaztutako erroreekin zerikusirik ez duten portaera aurkezten dute. Nahiz eta SHT21 sentsorea %53.3-ko hezetasunean fidagarria izan, portaera antagonikoa izan du gainontzeko balioetan, BME280 sentsorea bezala %32.9-ko hezetasunean. Hala ere, kalibraketa prozesua eta gero, posible izan zen desbideraketa hauek zuzentzea eta emaitza koherenteak lortzea.



5. 9. Irudia- Kalibratzeko prozesuan lortutako hezetasun erlatiboaren erroreak eta fabrikatzaileak adierazitako sentsoreen errorean arteko konparazioa.

Lortutako emaitzek portaera zuzena aurkezten dute tenperatura neurketetan, baina zenbait ustekabe hezetasunari dagokionez. DHT22 sentsorea izan da sentsore bakarra tenperatura eta hezetasunerako balio egokiak eskaini dituen kalibraketarik gabe, eta honek sentsore hau aplikazioa honetarako egokia dela adierazten du. Hala ere, desabantaila nagusietako bat mikrokontrolagailuarekin komunikatzeko metodoarekin lotuta dago. Wire protokoloa erabiltzen du, beraz, mota honetako sentsore bakoitzak mikrokontrolagailuarekin konektatzeko sarrera konexio bat behar du eta hau arazo bat izan daiteke sarrera asko behar diren proiektuetan.

Bestalde, I²C komunikazio protokoloa erabiltzen duten hiru sentsore gehiago daude eta honek sentsore asko paraleloan konektatzeko aukera eskaintzen du sarrera digital gehiago behar gabe. Hezetasunaren kalibraketa prozesuan, SHT21 eta BME280 sentsoreek erreferentziako gatzekiko emaitza desberdinak erakutsi zituzten. Hala ere, kalibraketari esker lortutako emaitzak biltzea posible izan zen. BME280-aren abantaila bat presio atmosferikoaren neurketa ahalbidetzen duela da eta honek SHT21 baina osatuagoa bihurtzen du. Hala ere, kontuan hartu behar da BME280 tenperatura eta hezetasuna neurtzeko sentsore espezifiko da eta BMP180-ak bezala, tenperatura erabiltzen du presio atmosferikoaren neurketa zuzentzeko. Horregatik,



bi sentsoreen temperatura neurketaren zehaztasuna SHT21-arena baxuagoa da, bereziki temperatura eta hezetasunaren neurketak.

Ondorioz, lortutako emaitzak kontuan hartuta, sentsorearen hautaketa aplikazioaren eta beharrezkoa den doitasunaren arabera izango da. DHT22 sentsoreak errendimendu onena erakusten du eta ezin hobea da neurketa puntu gutxiko proiektuetan, izan ere, sarrera digital bat behar du sentsore bakoitzeko. SHT21 zehaztasun handiagoko aplikazioetan erabili daiteke, baina hezetasunaren kalibraketa maiztasun handiagoarekin egin beharko litzateke. Bestalde, BMP180 edo BME280 presio atmosferiko eta temperatura sentsore gisa erabili daitezke zehaztasuna funtsezkoa ez den kasuetan. Hiru parametroen monitorizazioa eta zehaztasun handi behar den proiektuetan, DHT22 edo SHT21 motako sentsore espezifikoa erabiltzea gomendatzen da presio sentsore batekin konbinatuta.

Kontuan hartu behar da ikerketa honen helburu nagusia apartamentuaren monitorizazioa dela eta ez sentsore desberdinen analisi zehatza. Hala ere, aurrera eramanez azterketak posible egin du sentsore desberdinen portaera desberdina konparatzea eta honela ikertzaile batek une jakin batean aurki ditzakeen egoerak islatu ditu. Konparaketa zehatzago bat aurrera eramateko eredu bakoitzeko sentsore gehiago erabiltzea beharko lirateke. Honen bidez analisi erakusgarriago bat lortuko litzateke eta portaera berezia izango lituzketen sentsoreak baztertzea ahalbidetuko luke. Hala eta guztiz ere, lortutako emaitzek argi eta garbi islatzen dute beharrezkoa dela aurreko kalibraketa bat eta rekalibraketa beharrezko maiztasunarekin. Hau egitearen arrazoia, lehen aipatu den bezala, denboran zehar hezetasun sentsoreetan gertatzen den portaera aldaketa da.

5.4.3. Prototipoaren analisisia

Azterketa honen zehar ikusi den moduan, 5.3.2 *Prototipoaren garapena* atalean helburu gisa ezarri diren eskakizunak bete dira. Azpimarratu beharra dago zenbait aurkikuntza azaldu direla, bere garrantziagatik monitorizazio prozesuetan, eta ondorioz, SICB eremuan.


Betekizun garrantzitsuenetakoa haririk gabeko konexioa edota energia hornidura galduz gero, datuen erregistroaren segurtasuna zen. Energia hornidura ez dagoenenean bateria bizitza handiago edo txikiagoa izatea eta datuen bilketan eskaintako segurtasuna edukitzea energia kontsumoaren arabera izango da. Garatutako ekipamendua segurtasun hornidura sistema batez hornituta zegoen etengabe. Horretarako, *power bank* bat ezarri zen energia hornidurarekin konektatuta zegoena eta aldi berean monitorizazio ekipamenduarekin. Energia hornidura ez izatekotan, diseinu honek 2200 mAh-ko biltegitzea ahalbidetzen zuen

power bank-etik. Bateriaren iraupena ahalik eta gehien luzatzeko, sistemaren energia optimizazioa egitea beharrezkoa izan zen eta horretarako beharrezkoa zen mikrokontrolagailua "sleep" eta "wake it up" moduen artean aldatzea. Hau posible izan zen ESP.deepsleep programazio komandoaren bidez. Modu honetan kontsumo handiak neurtzean eta datuak bidaltzean gertatzen dira eta gainontzeko denboran zehar sistema hibernazio moduan dago.

Ekipoarekin energia kontsumoa egiaztzeko, korrante neurketak egiteko beste tresna bat garatu zen IIP-an (OSP) oinarrituta. Horretarako, zehaztasun handiko 16 bit-eko bihurtgailu analogiko-digital (ADC) bat gehitu zen. Modeloak, ADS1115, bereizmen handiko tentsio neurketak lortzea ahalbidetu zuen. Gainera, 1 -ko erresistentzia gehitu zitzaion seriean monitorizazio ekipamenduaren energia hornidurari eta tentsioaren beherakada neurtu zuen ekipamenduak. Erabilitako erresistentzia 1 -koa zenez, Ohm'en legearen arabera, tentsio neurketak zirkuituko korrante fluxuarekin bat zetozen.


Neurketak egiteko, korrante elektrikoa erregistratu zen 50 min zehar 10 ms-ko tartearekin neurketen artean. Erregistratutako belioen batezbesteko kontsumoa 15.54 mAh-koa izan zen. Datu hauen ikerketa sakonagoa eta kontsumo eredia ezartzea eta hiru kontsumo fase desberdintzea ahalbidetzen du, 5. 10. Irudian ikusi daitezkeenez. Lehenengoak kontsumo baxuena du, batezbesteko balio 5.65 mAh izanik 4770 ms-ko iraupenean zehar. Denbora horretan zehar mikrokontrolagailua "sleep" moduan dago, baina MH-Z19 sentsorea atsedendian dago eta hemen kontsumo parasito bat sortzen du. Egoera 5 s-ro gertatzen da. Bigarren fasean mikrokontrolagailua lo jarraitzen du baina CO₂ sentsore piztuta dago, 225 mAh-ko kontsumo maximoak emanek eta jaisten doa 88 mAh-ra iritsiz. Fase honek 103.66 mAh-ko batezbesteko kontsumoa du 530 ms-ko epean zehar. Azkenik, hirugarren fasean mikrokontrolagailua esnatzen da. Epe honetan zehar sentsore guztien neurketa hartzen ditu, WiFi bidez bidaltzen ditu eta microSD-an gordetzen ditu. Fase honen iraupena 890 ms-koa da eta batezbesteko kontsumoa 87,80 mAh-koa da. Hirugarren fasea konfiguratutako erregistro tartetean gertatzen da, garatutako kasuan 10 min-ro. Bestalde, lehenengo eta bigarren faseak etengabeak dira monitorizazio prozesuan zehar. Beraz, garatutako ekipamenduaren kontsumoa denboraren arabera neurketa tartetean, $t(s)$, espresio honen bidez definitu daiteke (1):

$$\bar{I}(t) = \frac{\left(\frac{103.66 \text{ mAh} \cdot 0.53 \text{ s} + 5,65 \text{ mAh} \cdot 4.77 \text{ s}}{5.3 \text{ s}} \right) \cdot (t - 0.89) + (87.80 \text{ mAh} \cdot 0.89 \text{ s})}{t}$$



5. 10. Irudia- Monitorizazio prototipoaren korrante elektriko kontsumoaren analisia: A) Detektatutako patroikontsumo orokorra B) Batez besteko kontsumoaren zehaztasuna mikrokontroladorea esnatzen denean eta MH-Z19 sentsoreak neurtzen duen unean.

Neurketa hauen arabera, autonomia oso mugatua zegoen CO₂ sentsorearen funtzioamenduagatik eta bere kontsumo parasitoagatik. Hau etengabe piztu behar da emaitza koherenteak lortzeko eta ondorioz, ez zen posible izan kontsumo baxuagoko programazio kodea garatzea. Aurretik erregistratutako batezbesteko 15.50 mAh-ko kontsumoarekin 2200 mAh-ko power bank-ek ekipamenduari 141 h-ko autonomia emango lioke.



5. 11. Irudia- Mikrokontroladorearen kontsumoa deep sleep moduaren aktibazioaren arabera: A) Aktibatua B) Desaktibatua.

Nahiz eta "deep sleep" moduaren aplikazioak energia kontsumoa nabarmenki jaitsti, ez da ondo bereizi aurreko prototipoarekin. Ikusitako moduan eta adibide gisa, CO₂-ko sentsorea baztertuz, kontsumo baxuko pregramazio kode bat aplikatzean sistemaren etengabeko kontsumoa 0.56 mAh-ra jaitziko litzateke "deep sleep" moduarekin, 5.11. Irudia. Hasierako sisteman bezala, kontsumo maximoak erregistroko unetan gertatuko lirateke eta sentsorearen balioak 880 ms-z bidaliko lirateke, honela, batezbesteko kontsumoa 83.79 mAh-tik 0.73 mAh-ra jaitziz 10 min-ko neurketa tartearrekin. Modu honetan energia autonomia 26 h-tik 3013 h-ra igoko litzateke power bank-arekin.

Bestalde, haririk gabeko konexioaren galera posibleari dagokionez, kodea garatu zen arazo hau kontuan hartuta. Helburu honetarako, mikrokontrolagailua zerbitzari konexioaren programazio lerroan dagonenean eta konektatzen ez denean, automatikoki agindua saltatzen du, aurrera doan kodearekin jarraitzen du, sentsoreen datuak gordetzen ditu eta berriro hasten da "loop"-arekin.

Aurretik aipatutako datuen biltegitze ahalmenari dagokionez, nahiz eta gaur egungo ekipo komertzialen ahalmena zabaltzen ari den, kasu gehienetan eskainitako biltegitze ahalmena baxua da eta ondorioz beharrezkoa da datuak aldiro "in situ" gordetzea eta memoria berrezartzea. Gainera, aipatu beharrezkoa da monitorizazio kanpainetan epe luzeetan zehar neurtu behar dela nolabaiteko maiztasun handiko tarteekin (1-60 min), eta honek datuen bolumena eta biltegitze ahalmena nabarmenki handitzen ditu.

Garatutako prototipoaren biltegitze tamaina gorde beharreko zutabe zenbakien araberakoa da (neurketa aldagaiak). Adibide gisa, ebaluatutako kasuak 11 sentsoreen zutabe balioak zituen monitorizaturiko epean zehar 10 min-ko tartearekin neurketen artean eta sortutako .txt fitxategiak 62 kB zituen. Proiektuan 8 Gb-eko microSD bat erabili zen, beraz beharrezko espazioa biltegitze ahalmena baina askoz txikiagoa zen. Gainera, microSD irakurgailuak 32 Gb-eko txartelak konektatzeko gaitasuna du, eta lehen aipatutako biltegitze arazoak konponduko lirateke eta aldiro datuak gordetzeko eta memoria berrezartzeko beharrak desagertuko lirateke.

